

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



Zuzendaritzaren buru: Fr. Luis Villasante

Euskeraren XXXIII (2. aldia)
(1988, 2)
33
BILBO

EUSKALTZAINdia

Arbieto, 3 - 48008 Bilbo

Fotokonposaketa: Rali
Particular de Costa, 12-14
48010 Bilbo

Elkar, E. Koop. grafikagintza
Autonomia, 71 - 48012 Bilbo

© Euskaltzaindia
Ribera, 6 - 48005 Bilbo

ISSN. 0210-1564

Euskera

ISBN. 85479

Legezko Gordailua: BI-1258-89

Maketazio eta orrazketak: R. B. U.

Aldizkari hau beste agerkariekin tru-
katzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.

Esta **Revista** se intercambia con
otras publicaciones. Se ruega diri-
girse al Director.

AURKIBIDEA

EUSKAL KATEDRAREN MENDEURRENA

| | |
|--|-----|
| <i>Fr. L. Villasante, Euskaltzainburua: BILBOKO EUSKAL KATEDRAREN EHUNURTEBURUA.</i> | 355 |
| <i>Jose Antonio Arana Martija: EUSKAL KATEDRAREN LEHIAKETA ETA ERAGINA</i> | 361 |
| <i>Alfonso Irigoien: AZKUE, ARANA GOIRI ETA UNAMUNO</i> | 391 |
| <i>Ines Pagola: AZKUE VERSUS ARANA GOIRI: HITZ BERRIEZ</i> | 403 |
| <i>Pilar Valiente: EUSKAL KATEDRAREN MENDEURRENA</i> | 405 |
| <i>Jose Alberto Pradera, Bizkaiko Foru Ahaldun eta Diputatu Nagusia: EUSKAL KATEDRAREN MENDEURRENA</i> | 407 |

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

| | |
|--|-----|
| ZENBAIT EUSKAL TOPONIMOREN ORTOGRAFIAZ | 413 |
| <i>Fr. L. Villasante, Euskaltzainburua: EUSKERA ALDIZKARIAREN BIR-MOLDAKETAZ</i> | 415 |
| <i>Fr. Luis Villasante, Euskaltzainburua: EUSKALTZAIN OSOEI BATZARRERAKO TXOSTENAK ESKATUZ</i> | 419 |
| BATZAR-AGIRIAK: (1988, I, II, III, IV, V, VI eta VII) | 421 |

BERRIAK

Iparragirre liburuaren aurkezpena: Bilbo, 1988-III-18

| | |
|---|-----|
| <i>Fr. Luis Villasante, Euskaltzainburua: IPARRAGIRRE LIBURUAREN AURKEZPENEAN</i> | 441 |
| <i>Norberto Agirre: IPARRAGIRRE LIBURUAREN AURKEZPENEAN</i> | 445 |
| <i>Ricardo Badiola Uriarte: IPARRAGIRRE</i> | 449 |

| | |
|--|-----|
| <i>Jose Antonio Arana Martija: IPARRAGIRRE</i> | 455 |
| <i>Juan San Martin: EL LIBRO IPARRAGIRRE</i> | 457 |
| <i>José Antonio Garrido: EUSKALTZAINDIA.....</i> | 459 |
| <i>Endrike Knörr: UNAS PALABRAS EN LA PRESENTACION DEL LIBRO TOPONIMIA DE LA CUENCA DE PAMPLONA, CENDEA DE GALAR, DE JOSE MARIA JIMENO JURIO</i> | 461 |
| <i>Fr. L. Villasante: JUAN A. MOGELEN CRISTAUBAREN ICASBIDEA EDO DOCTRINA CRISTIANIA LIBURUAREN AURKEZPENA...</i> | 463 |
| <i>J. A. Arana Martija: "AZKUE BIBLIOTEKA"-K ERATUTAKO ERA-KUSKETAK</i> | 467 |
| <i>1987 ETA 1988. URTEETAN BATZARREETARA JOATEA</i> | 469 |

HILBERRIAK

| | |
|--|-----|
| <i>Emile Larre: PIARRS LARZABAL</i> | 473 |
| <i>Fr. Luis Villasante: JUAN GOROSTIAGA</i> | 479 |
| <i>Francisco Ondarra: IGORRE-KO JULEN AITA</i> | 483 |
| <i>Jose M. Satrustegi: MIGEL JABIER URMENETA</i> | 487 |

BATZAR TXOSTENAK

Gramatika

| | |
|---|-----|
| <i>Maria Teresa Echenique: STRESS AND PITCH</i> | 495 |
| <i>Endrike Knörr: EUSKAL KONPLETIBATZAILEAK: BILDUMA BATERAKO</i> | 523 |

Literatura

| | |
|--|-----|
| <i>J. Ignacio Tellechea Idigoras: LOS ORIGENES DE LA ACADEMIA DE LENGUA VASCA EN EL EPISTOLARIO DE D. CARMELO DE ECHEGARAY</i> | 537 |
| <i>Fr. L. Villasante: "OXOBI"-REN MENDEURRENEAN</i> | 551 |
| <i>Jean Haritschelhar: OXOBI OLERKARIA</i> | 555 |
| <i>Piarres Charritton: BIDARRAI, EUSKARA ETA EUSKALTZALEAK</i> | 561 |
| <i>Carlos González Echegaray: ANDRES DE POZA EN FLANDES: UNA ETAPA DE SU VIDA CASI DESCONOCIDA</i> | 569 |

Atlasgintza

| | |
|---|-----|
| <i>Gotzon Aurrekoetxea - Charles Videgain: EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASGINTZA 1987AN</i> | 625 |
|---|-----|

Onomastika

| | |
|---|-----|
| <i>Luis M.^a Mujika: GIPUZKOAKO EUSKAL TOPONIMIAZKO MATERIALEAK</i> | 633 |
|---|-----|

| | |
|---|-----|
| <i>Alfonso Irigoien: NAFARROAKO LEKU IZENEN EUSKARAZKO FORMEZ</i> | 647 |
| <i>Alfonso Irigoien: IZEN GEOGRAFIKOAK</i> | 651 |
| <i>E. Knörr - J. L. Lizundia: UROLA GARAIA –Diktamena–</i> | 659 |
| <i>J. M. Satrustegi: GARES</i> | 661 |

Lingüistika

| | |
|---|-----|
| <i>Andres Maria Urrutia Badiola: TESTAMENTU IREKIRAKO EREDUA-REN BIDEAN</i> | 665 |
|---|-----|

EUSKALTZAINDIAREN AURKITEGIA

| | |
|---|-----|
| EGOITZA / SEDE | 673 |
| “AZKUE BIBLIOTEKA”..... | 673 |
| GORDAILUA / ALMACEN | 673 |
| ORDEZKARITZAK / DELEGACIONES | 675 |
| EUSKALTZAINBURUGOA / CARGOS ACADEMICOS Y EJECUTIVOS BATZORDE GUZTIEN ORGANIGRAMA / ORGANIGRAMA DE LAS COMISIONES | 677 |
| EUSKALTZAIN OSOAK / ACADEMICOS DE NUMERO | 679 |
| EUSKALTZAIN OHOREZKOAK / ACADEMICOS DE HONOR | 683 |
| EUSKALTZAIN URGAZLEAK / ACADEMICOS CORRESPONDIENTES | 685 |
| Aurkibidea 1988 | 687 |
| EUSKERA XXXIII (1988,1) Zuzenkitzunak / Fe de erratas | 693 |
| | 699 |

**EUSKAL KATEDRAREN
MENDEURRENA**

BILBOKO EUSKAL KATEDRAREN EHUNURTEBURUA

Bilbon, 1988-VII-1

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren sarrera-hitzak

Jaun-Andreak:

Ehun urte da Bizkaiko Diputazioak Bilboko Institutuan euskararen katedra sortu zuela. Gogoangarri da gertaldi hau, bai lehiaketan parte hartu zuten gizon ospetsuengatik, eta bai, eta batez ere, euskararentzat ekarri zituen ondorioengatik. Hori dela eta, Euskaltzaindiari, Bizkaiko Diputazioarekin batean, iruditu zaio behar zuela ospaketa berezi bat egin urte-muga hori gogoratzeko.

Orduan, katedra sortu zenean, alegia, batzuek nahiago zuten euskara bizirik zegoen lekuari jar zedila, adibidez Markina edo Lekeitio, baina ez, Bilbo, Bizkaiko hiriburua, aukeratu zen beronen kokalekutzat.

Aureliano Galarza, Gernika aldeko diputatuak, egin zion eskaria Diputazioari, eta honek onartu. Ez zen, noski, lehenengoa. Bizkaitik kanpora —Donostian alegia— egin zen lehenago beste saiorik, eta bai, dirudienez, Araban ere, baina oraingo honek beste horiek ez bezalako segida izango du eta horregatik mereziz zuen oroipen hau egitea.

Itziar Lakak ateraberriak ditu Katedra honen sorrerari buruzko zer-tzeladak (1). Lehiaketara sei aurkeztu ziren: Luis de Iza, Pedro Alberdi, Eustaquio Madina, R. M. de Azkue, Miguel de Unamuno eta Sabino Arana Goiri. Azkeneko hirukote hau gerora entzutetsua izango da, bakotzak bere bidea hartzen duelarik. Unamuno eta Azkue urte berekoak ziren, 23 urteko adina zuten; Aranak, berriz, 22. Baina epaimahaiko jaunek, hautagaien “curriculum vitae” ikusiz, bi hautagai bakarrik hartu zituzten kontutan: Unamuno eta Azkue. 11 boto jaso zituen Azkuek eta 3 Unamunok.

(1) ITZIAR LAKA: “Bizkaiko Aldundiaren euskarazko katedra” ASJU (1987), 409.

Ez da ongi ulertzen zergatik nahi zuen Unamunok katedra hura beretzat. Dirudienez, ordurako jarrera guztiz tinkoa zuen: Euskalerriak, alegia, gaztelania behar zuela hartu mintzabide edo ibilgailutzat, eta besteari, euskarari, ehorzketa ospetsu bat egin, eta kito. Baino bego.

Besteak, Aranak, bai, bere egitasmoak aurrera eramateko gogo biziz desiratzen zuen katedra hori, baina Azkuek kendu zion. Eta hortik sortuko da, antza denez, Aranak Azkueren aurka beti izango duen jelosi punta bezalako hori.

Itziar Lakak bere lanean aipatzen du nik neure *Historia de la Literatura Vasca*-n dakardan lekukotasun bat. Eta bai, egia da. 1946. urtean zen. Comillasen kurtsoa bukatu ondoren, Lekeitiora joan nintzen ahaide batzuk bisitatzen (Fresnedo jaunaren familia, alegia). Eta jaun honek esan zidan: "Bihar Azkue ikusten joan behar dogu. Udaldia pasatzen etorria da". Nik Azkue liburuetatik ezagutzen nuen ordurako, baina aurpegiz ez; orduan ezagutu nuen aurrenengo aldiz. Eta ez dakit zergatik, baina gure elkar hizketa informal hartan kontu hau atera zuen, gero neure Historia delakoan jarri nuena: Aranak, alegia, bisita bat egin ziola, arren eskatuz, utz ziezaiola berari klaseak ematen; soldata, ordea, oso-osorik Azkuerentzat gelditzen zelarik. Azkuek, jakina, ezezkoa eman zion proposamen honi.

Baina, gura edo gura ez, Azkuek gerora aurrez-aurre izango du beti Arana eta Aranatarren eskola.

Ni ez naiz hasiko hemen katedra haren historia egiten, zer arrakasta izan zuen, zer irakaspen-mota ematen zen, nolako fruituak ekarri zituen etab. aztertzen. Baino hau behintzat oker egoteko arrisku handi gabe esan daitekeela uste dut: ez zela, alegia, katedra horren fruiturik txikiiena izan Azkue bezalako euskal langile handi bat sortaraztea. Bai. Azkue apaiz-karrera bukaberri zen. Diputazioak eman zion izendapen honekin Apezpikutegiak ez zion loturarak dakaren elizkargu edo obligaziorik jarri, eta hala libre geldituko da euskal gauzei lotzeko. Eta hark bere bizi guztian leialki erantzungo dio eginbide honi. Beste fruiturik lortu ez balitz ere, horrexegatik bakarrik katedra horrek sortzea merezi zuen. Neurri handi batean horri esker izan dugu Azkue bezalako langile handi bat euskal gauzetan.

* * *

Baina kasu eman diezaigun aldiari, histori uneari. Izan ere, orduan, eta Bilbon preseski, zerbait berri sortzen da, eta sortzaileak Arana eta Azkue izango dira. Bilbo, hiri handi, zabal eta aberats bihurtzen ari den unean, eta bertan euskarak krak egiten duen unean, zer da eta orduantxe, hain zuzen, gertatzen da fenomeno berri hau.

Azkue berak, euskal katedraren sorrerari buruz mintzo dela, hauxe esango digu: "Bizkaiko aldundiaren orduko asmoa gora andikoa izan zan euskera zarrari indar berriak zainetaratzeko. Orduan asi ginan Arana-Goiri ta ni, ateko aldeari bizkarra emanez, barrura begira, nola edo ala lanari ekin ta ekin" (2).

Eta orduantxe sortzen da Mitxelenak hiperbizkaieraren izenaz bataiatu duen fenomeno bitxia:

"Desde hace años, acaso desde finales del siglo pasado, ha hecho estragos el deliberado empeño de confundir el vizcaíno con lo que yo he llamado —no sin acierto conceptual, y que se me perdone la petulancia— hipervizcaíno, formado con solo aplicar la regla que sigue: algo es vizcaíno de lengua si y solamente si sólo aparece ahí y falta en las demás variedades de la lengua (de la cual se sigue suponiendo, sin embargo, que es dialecto el vizcaíno); si no se alcanza esa perfección extrema, siempre deseable, algo es vizcaíno en la medida en que tiene menos copartícipes o, en otras palabras, en la medida en que no es vasco común" (3).

Eta nik esango nuke erregela bera euskarari orokorrean ezarriz, orduan jaiotzen dela hipereuskara deituko genukeena ere. Zerbait euskarra izango da, noiz eta ez baitu beste hizkuntzetatik hartutako fitsik. Azkue gaztea oso iraultzaile agertzen zaigu urte haietan. Hori egiaztatze-ko aski da katedra hau sortu eta hiru-lau urte geroago agertu zuen *Euskal Izkindea* aztertzea (4).

Itziar Lakak aipatzen du Arrola izeneko jaun batek katedra honetan ematen zen irakaspenari buruz dioena:

"Ya que se habla de ese asunto, he de manifestar que yo concurri un año a esos exámenes y no entendí una palabra del vascuence que en esa cátedra se enseña; y por ello propondría que se suprimiera esa enseñanza o se diera en otra forma" (5).

Ikusten denez, purismorik amorratuenean irakasten zen, nimbait, hizkuntza. Eta hori egiten zen euskara biziak Bilbon krak egiten zuen unean berean.

Beharbada fenomeno bitxi honek izan du antzekorik beste hizkuntza batzuetan ere. Heberkera, esate baterako, herri-hizkuntza bizi bezala

(2) AZKUE: *Euskalerriaren Yakintza*, 1935, 8.

(3) MICHELENA L.: "Lengua común y dialectos vascos" ASJU (1981), 300.

(4) Zein diren, ustez, euskal aditzaren formarik zaharrenak, eta beroiek erabiltzera jarriko da. Ikuaz Azkue berak *Hiztegiaren* hitzaurrean dioena, VIII. orrialdean.

(5) *Boletín Oficial de la Provincia de Vizcaya*, 1899.eko Maiatzaren 20a; Itziar Lakak aipatua, o. cit., 417, 22. oharrean.

galdurik zegoen Jesukristo jaio zenerako. Hirurehun urte lehenago arameoa bilakatu zen juduen herri-hizkuntza, baina hori bai, judutar eskolatuek heberkeraz idazten zuten, eta heberkera guztiz garbian idatzi ere. Hala irakurtzen dugu *Les Langues du Monde* delakoan (6). Herrian ez da gehiago hitz egiten, baina ordainez edo erreakzioz talde landu hauek ez nolanahiko heberkera, baina guztiz garbi-aratza erabiliko dute.

Baina goazen aitzina. Urte asko geroago, 1925. urteko **Euskera-n** “Txukuneria” izenaz artikulu bat idatziko du Azkuek. Bertan esaten du badela gure artean gaitz bat, greko izenaz deitu behar balitz, “katharinitis” deitu beharko litzatekeena. Kataroak, dakizutenez, Erdi Aroko hereje batzuk izan ziren, eta hitz horrek *garbiak* esan nahi du. Azkuek aitortzen du bera ere gaitz horretzaz behiala kutsatua egon zela, baina jadanik sendatutzat jotzen du bere burua (7).

Halere, esan behar da Purismo-mota baten sortzaile eta zabaltzaile bilakatu zela Azkue, bereziki *Hiztegia* zela medio. Purismo-mota hau ez dator bat Aranaren purismoarekin, baina azken finean ez daude bata bestetik hain urrun ere.

Hizkuntzan sendo sustraiturik dauden hitz asko eta asko, erdarati-koak direlako, hiztegitik kantora utzi ditu Azkuek, edo hiztegian agertzen badira, galde-marka batekin edo birekin susmo txarrekotzat joak agertzen dira. Gero, jakina, horiek utzitako hutsartea betetzeko, ordezkoen bila ibiliko zaizu. Bai. Hiztegia egitean, hitz autoktonoen bila dabil Azkue, baina autoktonotzat jotzen dituenak askotan jatorriz kanpotarrak dira berak ere, edo iratxo batzuk besterik ez dira: horrela zabaldu dira gure mendean *arnari*, *margo*, *enparantza*, *bereter* etab.; eta beste batzuk, jatorriz euskaldunak izanaren, esparru txiki batean bakarrik dira ezagunak. Adibide salatari bat aipatzeagatik, *denbora* hitzarena aipatuko dugu. Azkuek bere hiztegian honela dio: “Denbora = tiempo (??). Debe desterrarse esta palabra, usando en su lugar las voces que aún existen en el pueblo”. Eta *aldi* hitzean esaten du: “tiempo, en su sentido de duración de los seres y época de sucesión”. Mitxelenak, berriz, OEHn esango du *aldi* dela “Vez, turno, momento, tiempo concreto”; eta beherago: “A partir de Azkue se comienza a emplear también como sustitutivo de *denbora*, que, salvo en bersolaris y escritores populares, prácticamente desaparece en las primeras décadas de este siglo” (OEH, aldi). Horra Azkueren hiztegiak izan duen eraginaren argibide bat.

Baina dena irabaztea izan ez bazen ere, dena galtzea ere ez zen izan. Orduan egiten da hizkuntza gaitu eta duintzeko ahalegin irmo eta sendo

(6) *Les Langues du Monde*, CNRS, 1952, 114.

(7) AZKUE: “Txukuneria”, **Euskera VI** (1925), II-III, 4-21.

bat, ondorio gabe geldituko ez dena. Bi gidari nagusiak Arana eta Azkue izan ziren, baina bada horien inguruau besterik ere: Etxeita Manilako alkate izana, Txomin Agirre, Kirikiño, Eguzkitza, Eleizalde, Ibargutxi, Arriandiaga, Zabala-Arana, etab. Bakoitzak bere fiabardurak ditu, noski, eta ezin sar daitezke denak zaku berean. Hor da Altube ere; honek bortizki arbuiatuko du hitzen gehiegizko purismoa, bai Aranarena eta bai Azkuerena ere; baina gero, zer da eta, berak sartuko digu beste purismomota bat, sintaxiaren. Eta hor da Urquijo, bilbotarra edo deustuarra berau ere. Honek garbi ikusiko du, zerbait iraunkorrik egingo baldin bada, tradizio zaharra kontutan hartu behar dela, eta hasiko da idazle zaharrak —Sarako Etxeberri, Axular etab.— berriz argitaratzen. Egia esan, orduko giro hartan ez du izango arrakasta handirik, hasieran behintzat. Gehienek ez dute ulertzen zertarako hustutzen zuen bere sakela jaun honek hain euskara txarra duten idazleak argitaratzen. Honekin ez dut esan nahi Azkue batek ez zituela ikusten Axularren balioak; ikusten zituen, bai, baina berezketak eginez beti ere. Hau izango da Azkueren bereizgarri ezagun bat: herri-zale izan nahi du, baina zuzenketak, salbuespenak eta berezketak eginez beti ere.

Orduan zabaltzen da gure artean ortografia berria ere: “K”ren erabilerak, etab. Honetan urte batzuk lehentxeago hasiak ziren Iparraldekoak. Jakina denez, letra honi, “K”ri, amorrugaitza agertuko dio Unamunok.

Eta orduan sortu zen joairak izango du eraginik Bizkaitik kanpora ere. Guti asko Hegoaerde guztira zabalduko da.

Baina honako hau esan behar dela uste dut: erizpide argi eta sendo ezarritako batzuen faltaz, euskal literatura gure mendean, Hegoaerdean behintzat, mutur batetik bestera ibiliko da, gehiegizko purismotik gehiegizko zabarkeriara. Hori nolabait konpontzeko, Agiri bat eman zuen Euskaltzaindiak 1959. urtean, zein den euskal hitza erabakiz, baina behar den oreka ez dakit oraindik lortu den (8).

* * *

Bukatzeko, zilegi izan bekit oraintsuko aurkipen baten berri gaur hemen ematea. Bilbotar bati buruz da, hain zuzen, eta uste dut baduela zer-ikusi ukitu ditugun gaiokin.

Igaz, Euskaltzaindia Zarautzen bildu zenean, egin nuen Juan Mateo Zabalaren aipamena Zarauzko frantziskotar mixiolarien kolejioan bizi izan baitzen. Eta beste gauzen artean esan nuen nola azken urteotan azaldu diren bi sermoe-liburu eskuz idatziak eta bilbotar ospetsu horrenak direnak. Orain esan behar dut, baina, hirugarren bat agertu dela, non eta Jerusalenen, hango frantziskotarren komentuan.

(8) “Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz”, **Euskera** (1959), 214.

Gauza honela izandu da. Aita Nikolas Zumalde, erromesekin hemen-dik hara maiz joaten denak, eskutitz bat egin zidan, hauxe esanez: bazela, alegia, hango komentuaren ekonomatoko artxibategian euskarazko liburu bat, eskuz idatzia, baina egilea ezezaguna zela eta ia egin al nezakeen zerbaite hori jakiteko.

Zumalde horrek, bada, orrialde batzuen fotokopiak bidaliz batera, autorea nor izan zitekeen arakatzeko eskatzen zidan. Aitorrtu behar dut bat ere gogorik gabe hartu nuela eskari hori. “Nola arraio jakin nezake nik Jerusalenen dagoen liburu baten egilea nor den?”, galdetzen nion neure buruari. Egun batzuk pasatzen utzi nituen orriak zabaldu gabe. Azkenean ikusi nituen: Gabon eguna zen, mendian gertatuko zitzaidan erorikoa baino egun batzuk lehentxeago, eta ikusi hutsarekin ez nuen zalantza-izpirik izan: “Hau Juan Mateo de Zabala da. Oso ondo ezagutzen dut Aita horren letra”, esan nuen. Eta hala jakin arazi nion Zumalderi.

Hemen duzue liburu horren fotokopiazko ale bat, eta gaur Euskal-tzaindiko bibliotekaroko, hots, “Azkue Biblioteca”rako uzten dut. Titulua honela du: *Euskerazco Misiñoetaraco Doctrinaac ta sermoiac*.

Nola joan zen liburu hau Jerusalenera? Hori ez dut jakin oraindik, baina gauza ez da hain gertagaitza. Badakizue Lur Sainduko santutegirik gehienak frantziskotarrek zaintzen ditugula, mundu guztiko frantziskotarrek, alegia, eta frantziskotar euskaldunik aski egon izan da han. Segur aski, Mendizabalen esklastrazioa gertatu zenean edo pixka bat geroago, hara joan zen fraideren batek berekin eramango zuen liburua; ordurako Aita Zabala hila zen; fraide horrek agian pentsatuko zuen handik itzultzean liburu horrek mesede egingo ziola sermoiak prestatzeko etab., baina han hilko zen, eta beste fraideek, liburuaren kaligrafia ederra ikustean, gorde egin zuten.

Aita Zabala joan-mendearen lehen erdikoa dugu. Berak ezagutu zuen euskal giroa eta joan-mende horren hondarrekoa ez dira berdinak, nahiz eta guztiz desberdinak ere ez izan. Aita Zabalak beti idazten du bizkaieraz eta ardura eta kontu handiz lantzen du bere hizkera. Gizon jakintsua da, herriko euskara sakonki aztertu duena. Bera ere purista da, eta uste dut hizkuntza guztiek, eta bereziki hizkuntza ñimiñoek, behar dutela beren nortasuna gorde eta zaindu, eta beraz on dela neurri bateko purismoa. Baina Aita Zabala bilbotarrak badu sena eta badaki behar diren neurriak gordetzen. Horregatik uste dut alde bateko eta besteko nabarmenkerietatik geure burua gordetzeko, gidari ona dugula Aita Juan Mateo Zabala bilbotarra.

Eta besterik ez.

EUSKAL KATEDRAREN LEHIAKETA ETA ERAGINA

Bilbo, 1988-VII-1

Jose Antonio Arana Martija

Resurrección María de Azkue, Bizkaiko Aldundiak sorturiko Euskal Katedraren arduradun izendatua izan zenetik, ehun urte bete dira aurteno Ekainaren 8an. Eta bere garaian garrantzi handia izan zuen izandatze hau ospatzera eta aztertzera goaz Euskaltzaindiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatu duten eginkizun honetan. Garrantzsua iruditzen zait orduko lehiaketa, partaideen artean hiru bizkaitar ospetsu nabarmendu zirelako eta katedrak berak eta izendapenak ondorio itxaropengarriak ekarri zituztelako euskarak orduan behar zuen bultzaren eta berpizterako.

Ez da gaurkoa soilik, mendeurrenaren une honetan, gaiak eragin duen interesa, luzea baita honetaz bibliografia, nire lanaren azkenean ikus dezakegunez. Lehenago argitaratuak diren ikerlanetan azaltzen diren xehetasunak ez ditugu hemen gaur errepikatuko eta lehiaketaren historia jakin nahi duenak honako lan hauetara jo beharko du: Lino Akesolo, Manuel Basas, Itziar Laka, Manuel Llano Gorostiza eta Martin Ugalde jaun andreek idatzi eta argitaratutako lanetara, noski. Baina gehiena esanda egon arren, badira zalantzak eta iluntasunak, eta aipagarri izan daitezkeenak ez esandako artean. Gaurko hizlariak halako ildotik saiatuko garelakoan nago. Nere aldetik katedraren irabazole eta lehen Euskaltzainburu izan zen Azkue jauna izango da ikerlanaren ardatza.

Dena den, gaia bideratu eta mugatzeko, lehiaketaren historiatxo bat ematea egokia iruditzen zait. Pablo Alzola Minondo, donostiarra (1841-1912) Bizkaiko Diputazioaren Lehendakaria zelarik, 1887.eko Azaroaren 8an Mungiako semea zen Aureliano Galartza Diputatuak dohainko euskal katedra bat sortzea proposatu zion Aldundiari. Ez zen hau izatez asmo berria, 1841.eko Apirilaren 2 eta 4an Bizkaiko Batzar Nagusiek Bilbon Institutu berria sortu zutenean Euskal Katedra bat bertan antolatzea asmatu bait zuten, geroago, 1860 inguru, Fray Jose Antonio Uriarte frantziskotarrak (1812-1869) bultzatu zuen ideia berbera. Hogeita hamabost urte geroago, 1876.eko Urriaren 6an Camilo Villabaso Diputatuak proposamen berbera egin zion orduko batzarrari. Ordutik 1888 data

arteko hamaika urteen zehar, beste Diputazioek aurrea hartu zioten Bizkaikoari. Araban, *Lau buru* aldizkariak 1883.eko Irailaren 2an dioskunez,

...El claustro de Profesores del Instituto de Vitoria se ocupa actualmente de llevar a cabo la instalación de una Cátedra de vascuence

Derrigorrezkoa zen orduan euskararen irakaskuntza berreskuratu eta nonbaiten kokatzea, Gasteizko irakasle horiek beharreko asmo hori burutzen ari ziren urte berean kendu zitzaien Udalei maisuak izendatzeko eskubidea eta. Maisu erdaldunak izendatzen zituzten goitik behera eta erabaki horren kontra azaldu ziren behin baino gehiagotan beste batzuren artean Aran-Goiri eta Azkue bera. Izkribuetatik aparte gogora dezagun lekeitiarrak musikatutako *Vizcaytik Bizkaira*. Azkuek zarzuelatxo hau estreinatu zuen urte berean, Gipuzkoako Diputazioak, 1895.eko Azaroaren 12an udalek maisu euskaldunak izendatzeko eskubidea eskatu zuen. Alperreko eskaria zeren eta sei urte geroago, 1902.eko Otsailaren 15ean izendatutako maisu erdaldunek Gipuzkoan euskaraz hitz egitea ez galaraztea eskatu beharrean aurkitu zen Diputazioa. Alperrekoa eskari hau ere: 1902.eko Azaroaren 21eko Erret Dekretuak erdara hutsean irakaskuntza burutzea inposatu zuen.

Baina goazen berriz euskal katedraren harira. Gipuzkoari dagokionez, *Euskal Erria* aldizkariak (1886-6-10, 213. zenbakia) ematen digu lurralde honetako katedraren berri: Euskal Loretako Jokoen eskaria onartuz, 1886.eko Ekainaren 7an erabaki zuen Gipuzkoako Diputazioak euskal katedra bat sortzea. Aldizkari berean (1886-9-20) ikus dezakegu Jose Gaspar Oregi apaiza katedradun izendatua izan zela, bera bakarrik lehiaketara aurkeztu zelarik. Hamahiru urteren zehar iraun zuen katedra honek, 1899an ezabatua izan bait zen.

Nor zen Gipuzkoan euskararen irakaskuntzarekin arduratu zen apaiz hau? Soraluzen jaioa omen zen, 1840an, Jose Gaspar Oregi Aranburu jauna. Dakigunetik, katedra lortu ondoren, Maria Cristina erreginari euskarazko klaseak ematen dihardu zuen 1887.eko udan. Hainbat euskalzale-rekin harremanetan ibili zen eta, nola ez, Edward Spencer Dodgsonenkin ere bai; olerki bat zuzendu zion honek, Aita Santiago Onaindia-ren *Euskal Literatura* delakoan ikus dezakegunez (III, 215-216 orr.). Azkuerenkin ere izan zituen harremanak eta lankide zirenez Bizkaiko eta Gipuzkoako euskal katedretan, *Euskal Izkindea* igorri zion bizkaitarrak 1891.eko Irailaren 26an. Eskerroneko erantzuna eman zionean, hara zer ziotson gipuzkoarrak:

"Nire, ai!, Donosti dontsu onetan Euskarak duan baño ikasle geiago ez izatea ezin geiagoraiño mingarri bazait ere, zeñi erakutsi daukadan bitartean, gure ikastegi one-tako argijariorik onena paregabeko zure Izkinde bikañ au izango zaigu".

Benetan harrigarria erantzuna, Bizkaiertzko Gramatika bait zen Azkuerena. Oregik erabiltzen zuen irakasteko metodoa eta irakasten zuen euskara moeta izan omen katedra ezabatzeko zioa. Gero, 1905ean Donostia-ko Artzain Onaren Elizan aurkitzen dugu Oregi jauna Gasteizko Gida Eklesiastikoak azaltzen digunez.

Nafarroan Euskal Katedra sortzeko ahaleginak ere *Euskal Erria* aldizkarian (1886-11-10, 228 zenbakia) ikus ditzakegu. Kontutan izan behar dugu Arturo Campion jaunaren *Gramática de los cuatro dialectos literarios del euskara* 1884-1885 urteetan kaleratua zela. Juan María Lekuonak esan didanez, bere osaba on Manuel Lekuonaren osaba izan zen Migel Antonio Iñarra Mitxelenak (1864-1898) irabazi zuen Iruñeko Euskal Katedra 1897an.

Beraz, Bizkaian baino lehenago emanak baziren euskal katedrak sortzeko urratsak, gure lurralde honetakoa izan zen bizitza luzeagoa eta eraginkorragoa eduki izan zuena.

Galartza jaunaren proposamena erregistratu ondoren, eta Gipuzkoako Diputaziotik hartutako argibidea aztertuta, Fomentoko Batzarkideek (Angel de Uria, Esteban A. de Azillona, Pascual Larrazabal eta Fernando Landetxo jaunek osotzen zuten Batzorde hau), katedra sortzearen alde jarri ziren Azaroaren 17an. Hurrengo egunean gertatu zen eztabaidea oso berezia izan zen: Diputatu orek onartu zuten Fomentoko Batzordeareen erabakia, baina katedra non kokatzea izan zen batzar luze baten gaia: Bilbo, Durango eta Markina aldeko taldeak bildu ziren. Bilboren alde eman zuten lehen botua, Uria, Galartz, Urizar, Torres Vildosola, Jauregi, Landetxo, Orbe, Goioaga, Basterra eta Alzola buruak. Markinaren alde agertu ziren: Larrazabal, Bolibar, Azillona eta Apoita. Lehendabizi Durangon kokatzearen alde azaldu baziren Urizar eta Orbe, Bilbon Markinan baino hobeto egongo zelakoan, Bilboren alde jo zuten azkenean bi diputatu hauek. Beraz, bozketaren arauera, Euskal Katedra Bilbon koka-
tzea erabaki zen.

Hurrengo urteko Otsaila arte ez zen beste erabakirik hartu. Hil honen 15ean Bizkaiko Boletinean iragarki bat jartzea erabaki zen, Otsailaren 17an agertu zena, hain zuzen. Martxoaren 31 jarri zen epemuga eskariak aurkez zitzaten lehiakideek. Epea bukatu zen egunean lau ziren azaldu ziren eskariak, jaun hauenak hain zuzen: Resurreccion Maria de Azkue, Sabino Arana Goiri, Pedro Alberdi eta Miguel de Unamuno. Hurrengo egunean, postaz sasoiz jarria, heldu zen bostgarren eskaria, Eustakio Madina jaunarena. Aldundiaren Artxibategian datzan expedientean ez da agertzen Luis Itza Agirre jaunaren eskaria, baina Azkuek dioskunez (Ikus Aita Lino Akesoloren lana) hau ere lehiakide izan zen. Pedro Alberdi, ostera, ez du Azkuek aipatzen.

Maiatzaren 28an Juan Pantaleon Aranzibia, Aldundiko Idazkari Nagusiari agindu zioten, lehiakideen merituak aztertuz, hauen arauera lerroka-

da bat presta zezala. Batzorde berezi bat ere izendatua izan zen gai honetan azken erabakia hartzeko: Buru, Uriar, eta kideak, Larrazabal, Azillona, Landetxo eta Torres Vildosola. Hurrengo egunean, Maiatzaren 29an Aranzubiak batzordeari eman zion eritzia hau izan zen:

Carece en absoluto de competencia el suscrito para juzgar trabajos literarios sobre la lengua vascongada, pues que sus conocimientos en la materia no pasan de los rudimentarios que pueda tener toda persona que habla la nativa, pero sin hacer estudio alguno de su literatura, y por consecuencia, para apreciar los presentados por los aspirantes a la cátedra que para su enseñanza tiene acordado establecer la Excma. Diputación, ni para emitir opinión respecto de los conocimientos científico-literarios que estos reúnan y que son necesarios para dedicarse con fruto a la enseñanza de una lengua, cuyo origen se remonta a la edad prehistórica y cuyos monumentos literarios son hartos escasos por desgracia.

Sin embargo, en cumplimiento de lo que se ordena por V. S., he de exponer con todo respeto el concepto que me merecen los títulos profesionales de cada uno de los aspirantes y la aptitud que, por su virtud, puede suponerse en ellos.

Entre éstos el que naturalmente ocupa el primer lugar, es el de D. Miguel de Unamuno y Jugo, Doctor en Filosofía y Letras, por ser ésta la única carrera de carácter oficial que supone conocimientos especiales en materias literarias y filológicas, máxime, cuando como el Sr. Unamuno, han sido calificados con la nota de Sobresaliente los exámenes que sufrió en las asignaturas de Lengua griega (1.^º y 2.^º curso), Literatura Griega y Latina, Literatura Española, Lengua Hebreo, Lengua Árabe, Historia crítica de la literatura española y Sanscrito, habiendo obtenido la misma nota de Sobresaliente en los ejercicios de la Licenciatura y el Doctorado de la Facultad expresada.

En segundo término debe figurar D. Resurrección M.^a de Azcue, Bachiller en Sda. Teología, quien ha acreditado haber hecho sus estudios con notable aprovechamiento, si bien es cierto que éstos no tienen relación directa, ni inmediata con la literatura y filología.

Y no presentando títulos profesionales los demás Sres. solicitantes, el suscrito, por las razones expuestas al principio, se abstiene de emitir opinión respecto de los mismos.

Es cuanto puedo manifestar respecto de este punto, evacuando el informe ordenado por V. S.

V. S., no obstante, con superior ilustración consultará a S. E. lo que estime más acertado.

Bilbao 29 de Mayo de 1988.

El Secretario

Juan P. de Arancibia

Ikusten dugunez, lehenengo baheak, Azkue eta Unamuno izan ezik, beste guztiak lehiaketatik kanpo utzi zituen. Eta gero ikusiko dugunez batzordekoek ere bi izen hauekin jokatu zuten katedraduna izendatzeko. Beste joera bat asma dezakegu Sabino Arana Goirik Jose Arriandiagari Sukarrietatik 1901.eko Abuztuaren 15ean idatzitako gutuna kontutan hartzen badugu (*Muga*, 17 zenbakia, 1981, 43-47 or). Bertan dio Sabinek batzordeko gehienak bere alde zeudela eta Larrazabal diputatuak Azkueri bide zabala uztea eskatu ziola. Larrazabal Azqueren alde zegoela argi ikus dezakegu hurrengo txostenean, baina gauzak zeuden zeudenan iksita, ez zuen Aranak atzera egin beharrik.

Ekainaren 6an, Aranzibiaren eritzia irakurri ondoren, eman zuten batzarkideek Azkue edo Unamunoren aldekoa. Uria, burua, eta Landetxo Unamunoren alde azaldu ziren eta Larrazabal eta Azillona Azqueren alde. Hona hemen bi bikoteen txostenak:

Excma. Diputación Provincial de Vizcaya.

Excmo. Dr.

Los Diputados que suscriben enterados del expediente promovido a consecuencia de la provisión de la cátedra de lengua vascongada, creada últimamente por V. E., tienen el honor de manifestar: Que han examinado detenidamente y con toda escrupulosidad las instancias presentadas por los solicitantes, con los documentos que a cada una de ellas acompañan. Han visto también el informe emitido sobre el particular por el Secretario de V. E. y de acuerdo con él, los suscritos son de parecer que, a fin de que la elección recaiga en el aspirante más apto, y sea lo más acertada posible, se hace preciso estudiar los títulos que aquéllos presentan y que acreditan su competencia para el cargo a que aspiran.

Examinados con este criterio todas las solicitudes que se han presentado, los firmantes ni vacilan en asegurar que el aspirante que debe figurar en primer término es el Sr. D. Miguel de Unamuno y Jugo, Doctor en la Facultad de Filosofía y Letras, y único que posee un título profesional de carácter oficial, título que supone conocimientos especiales en materias filológicas y literarias; y que ha sido calificado con nota de Sobresaliente en las asignaturas de Lengua Griega (1.^º y 2.^º curso), Literatura Griega y Latina, Literatura Española, Lengua Hebrea, Lengua Árabe, Historia crítica de la Literatura Española y Sanscrito, habiendo obtenido la misma nota de Sobresaliente en los ejercicios de la Licenciatura y el Doctorado de la expresada facultad.

Los Diputados que suscriben deben hacer constar que al anunciar se la vacante de la plaza de profesor de vascuence, se hallaba ausente de Bilbao el Sr. Unamuno; pues estaba en Madrid haciendo unos ejercicios de oposición a una cátedra vacante en este Instituto provincial de 2.^a enseñanza, por cuya razón no acompañó trabajo alguno a su

instancia; pero pueden citar, entre otros trabajos hechos por el Sr. Unamuno relacionados con el Vascuence, los artículos publicados en la Revista de Vizcaya acerca del elemento latino en el idioma vascongado, y el Discurso leído por dicho Sr. en el acto del Doctorado en el que hace un detenido estudio sobre el idioma vascongado, teniendo asimismo entre manos actualmente un Diccionario Vasco-Castellano, tanto del lenguaje comúnmente hablado como del clásico y literario.

También tiene publicadas diferentes composiciones de menor importancia, así en prosa como en verso escritas en vascuence; habiendo dado gallardas muestras de sus conocimientos en la lengua vascongada en las sesiones públicas organizadas por el Fok-Lore Vasco-navarro de esta Villa.

Todos estos hechos son razones que, a no dudar, dan garantías suficientes de las especiales circunstancias que concurren en el Sr. Unamuno; y por tanto los Diputados de la Comisión de Fomento proponen a V. E. se sirva designar al citado Sr. Unamuno para el cargo de profesor de la lengua euskara, cargo que está más en armonía con la Facultad de Filosofía y Letras que ejerce dicho Sr. Unamuno que no con la de Teología que accredita el Sr. Azcue, por cuanto esta última facultad carece del carácter profesional que aquélla tiene.

V. E. sin embargo, acordará, con superior ilustración, lo que estime más acertado.

Bilbao 6 de junio de 1888

*Excmo. Sr.
Angel de Uria
Fernando de Landecho*

Excma. Diputación Provincial de Vizcaya.

Excmo. Sr.

Los suscritos Vocales de la Comisión de Fomento han examinado el expediente instruido con motivo de la provisión de la cátedra de vascuence que V. E. acordó crear recientemente.

Entre los solicitantes, los únicos que aparecen con títulos profesionales que acrediten su aptitud para el mejor desempeño del referido cargo son los Sres. D. Miguel de Unamuno y Jugo, Doctor en Filosofía y Letras y D. Resurrección María de Azcue, Bachiller en Sagrada Teología. Ambos han hecho sus estudios con notable aprovechamiento y han obtenido en ellos las mejores calificaciones.

Los Diputados que suscriben, sin desconocer que el Sr. Unamuno presenta un título de carrera oficial que supone conocimientos especiales en materias literarias y foliológicas, entienden, sin embargo, que el Sr. D. Resurrección María de Azcue reúne mayores condiciones de

idoneidad, no sólo por su carácter sacerdotal del que es tan propia la misión docente, sino por la competencia y suficiencia que ha demostrado tener en el conocimiento de la lengua vascongada, como lo acreditan los trabajos que tiene presentados; el uno con el título de "Leyenda en prosa vascongada, basada en un hecho histórico acaecido en las aguas del Cantábrico hacia el año 40 de este siglo", y el otro con el de "Ensayos de algunas materias sobre la Gramática Vascongada", circunstancia que no se ha acreditado por el Sr. de Unamuno.

En vista de estas consideraciones los que suscriben tienen el honor de proponer a V. E. para ocupar la plaza de profesor de lengua vascongada al citado S. D. Resurrección de Azcue.

V. E. no obstante, acordará lo que estime más acertado.

Bilbao 6 de junio de 1988

*Excmo. Sr.
Pascual de Larrazabal
Esteban A. de Acillona*

Azkenean, gai hau tartean zelarik, bildu zen Diputazioa Ekainaren 8an. Bilera honen agiriak hau dio:

Excma. Diputación Provincial de Vizcaya.

Sesión ordinaria del día 8 de Junio de 1888.

"Acto continuo se dio lectura al informe de la Comisión de Fomento y voto particular que a continuación se trascriven.

(Aquí el informe y voto particular).

Abierta discusión sobre las propuestas precedentes, manifestó el Sr. Larrazabal que es cierto que en la convocatoria no se exigía como condición precisa la presentación de documentos que acreditaran los conocimientos de los aspirantes en el idioma "Euskaro", sin embargo, todos éstos, a excepción del Sr. Unamuno, habían acompañado a sus solicitudes trabajos más o menos importantes, distinguiéndose entre ellos los dos del Sr. Azcue, titulado el uno "Ensayo de algunas materias acerca de la Gramática Vascongada" y el otro "Una leyenda en prosa vascongada, basada en un hecho histórico, acaecido en las aguas del Cantábrico hacia el año 40 de este siglo."

Además hizo notar también que el Sr. Azcue había obtenido en todas las asignaturas de su carrera la nota de Sobresaliente, lo que acredita la brillantez con que había hecho sus estudios, añadiendo que aunque no pueda negarse, como lo hizo constar desde un principio, los méritos literarios y excepcionales cualidades que reúne el Sr. Unamuno en su carrera de "Filosofía y Letras", lo que se complace en reconocer, esto no obstante, no habiendo acreditado su suficiencia para el idioma

“Vasco”, como lo ha hecho el Sr. Azcue, debía ser designado este último para el cargo que se trata de proveer, sin que obste a ello el que el Sr. Unamuno tenga trabajos particulares sobre este punto, puesto que la Comisión los reconoce y bien pudo haberlos remitido desde Madrid como lo hizo el Sr. Azcue desde Salamanca.

El Sr. Landecho expresó a su vez que como ya se decía en el informe, el Sr. Unamuno se hallaba accidentalmente en Madrid cuando se anunció el concurso, ocupado en los ejercicios de oposición de la Cátedra de Psicología, Lógica y Ética, vacante en el Instituto Vizcaíno, por cuya causa no pudo remitir trabajo alguno sobre el idioma vascongado, mientras que el Sr. Azcue, se hallaba estudiando en Salamanca, y por lo tanto, teniendo allí todos sus trabajos, pudo remitir los que obran en el expediente pero que, como los hechos citados en el informe respecto al Sr. Unamuno eran exactos, a los mismos se refería. Citó también, las brillantes calificaciones obtenidas por el Sr. Unamuno en sus exámenes y grados en la Facultad de Filosofía y Letras, única que supone conocimientos especiales en materias filológicas y literarias.

El Sr. Uria, abundando en las mismas ideas expuestas por el Sr. Landecho manifestó, que no podía admitir como hecho exacto el citado por el Sr. Larrazabal, de que el Sr. Azcue, había acreditado su suficiencia en el idioma vascongado, pues tan sólo se sabía que éste había predicado en vascuence un sermón en Lequeitio, lo cual demostraba únicamente que lo hablaba, pero no que tuviera conocimientos bastantes para enseñarlo científicamente, pues, sabido era, que la gran mayoría de los que hablan el vascuence, no conocen su gramática, al paso que el Sr. Unamuno, tanto en sus escritos, como en sus obras y conferencias, había demostrado conocer su estructura y gramática y lo hablaba tan bien como el Sr. Azcue.

El Sr. Larrazabal manifestó contestando al Sr. Uria, que si algo fijaba éste su atención en los documentos que los Sres. Azcue y Unamuno acompañan a sus instancias, observaría por las notas obtenidas por el primero en su Carrera Mayor, que tiene grandes motivos para conocer perfectamente la estructura gramatical, estrañándole, por lo tanto lo que acababa de decir dicho Sr.

Replicó el Sr. Uria que los conocimientos de la Carrera Mayor a que alude el Sr. Larrazabal, se refieren a los de Sagrada Teología y no a los de la lengua vascongada, que es la que ha de enseñar el que sea nombrado por la Diputación.

El Sr. Basterra manifestó que no se podía formar un juicio exacto y verdadero, pues tanto los dictámenes de la Comisión como las explicaciones verbales dadas por algunos Sres. Diputados en pro de cada uno de los candidatos por que abogan, adolecen a su juicio de una falta, cual es la de no constar oficialmente a la Diputación la certeza de los hechos en que se fundan, y esta falta tiene por causa el no haberse anunciado en la convocatoria que los solicitantes presentaran trabajos de cierta índole, que de haberse hecho así es bien seguro que se

hubiera podido juzgar con más conocimiento de causa, sin que se dé el caso que hoy se da, de que se aleguen y expongan méritos de los candidatos que conocen en el terreno puramente privado: en su consecuencia se abstendía de votar en pro ni en contra de ninguno de los que solicitan la Cátedra de vascuence.

Procedióse a votar por papeletas y resultó elegido para la citada plaza de Profesor interino de lengua vascongada en el Instituto Vizcaíno con el sueldo anual de *Mil quinientas pesetas* D. Resurrección M.^a de Azcue, que obtuvo once votos, contra tres que obtuvo a su vez D. Miguel de Unamuno, y una papeleta en blanco.

Cmdo. al intº y al Contador

Junio, 11/88

Resurrección María de Azkue eta Aberasturi dugu, bada, Bizkaiko Institutuan kokatuko zen Euskal Katedraren arduradun, 1888.eko Ekainaren 8an izendatua. Katedraren lehiaketarako iragarkia Bizkaiko Boletinean azaldu zenean Salamancan zegoen Azkue apaiz karrera bukatzen. Ez zuen Boletinik ikusi baina Lekeitiotik eman zioten deiaren berri etxekoek. Eta Martxoaren 6an halako eskaria igorri zuen Diputaziora:

Excmo. Sr. Presidente de la Diputación de Vizcaya.

El que suscribe, Resurrección M.^a de Azcue y Aberasturi, natural de Lequeitio, provincia de Vizcaya, ordenado de subdiácono, de 24 años de edad, a S. E. con el debido respeto expone:

Que habiendo llegado a su conocimiento el proyecto que tiene la Excma. Diputación de crear una Cátedra de Bascuence en el Instituto provincial de la Villa de Bilbao y creyéndose apto para dirigirla, suplica a S. E. se digne prestar benévolos sus oídos a su demanda y conferirle el cargo que solicita.

Dios guarde a V. E. muchos años.

*Br. Resurrección María de Azcue
Seminario Central de Salamanca, 6 de Marzo de 1888*

Eskari honekin batera igorri zituen Salamancatik euskarazko lan bat, *Grankanton arrantsaleak*, eta euskal gramatika baten zirriborroak. Irailaren Sean, katedra irabazi ondoren Lekeitiotik Bilbora etorrita, eskuratu zituen Diputazioan eskariarekin etorri ziren eranskinak, bazterrean hala idatziz eta sinatuz:

He recibido las dos certificaciones y dos obritas titulada la una *Leyenda en prosa bascongada* y la otra *Ensayo de algunas materias* a que

se extiende la *Gramática Bascongada*, que se acompañaban a esta instancia.

Bilbao, 5 de Septiembre de 1888

Azkueren kasuan, irabazle izan zenez, espedientean geratu zen eskarria. Baino beste lehiakideen kasuetan ez da eskaririk agertzen, eta itzuliak izango zirelakoan nago, penagarri izan arren bakoitzaren datuak ezagutzeko aukera izango genuen espedientean geratu baziren eta.

Azkuek aurkeztutako bi lanetatik bat ezaguna dugu, baina ez argitaratua. *Grankanton arrantsaleak* da “Leyenda en prosa bascongada” hori eta Azkuek berak dioenez euskaraz berak idatzitako lehen lana dugu. Eskariarekin batera igorri bazuen Diputaziora, Martxoaren 6a baino lehen idatzia izango zen. Ez da beraz hau orain ezagutzen duguna, Pariseko Bibliothèque Nacionaletik ekarritako argazkiak Martxoaren 27ko data darama eta. Beste kopia bat egingo zuen Azkuek, Cesareo de Churruga josulagunari egileak zuzendua. Kopia hau Dodgsonek eraman zuen Parisera 1892.eko Abenduaren 19an: eskuskribuak azala eta bederatzi orrialde ditu. Azkueren euskarazko lehen lan hau, argitaragabea, **Euskera** agerkarian atera beharko genuke faksimilean, eta hala eskatzen dut ezagutzea merezi duelakoan une honetan.

Baina bazeukan Azkuek zeozer argitaratua, euskaraz, lehiaketaren epea bukatu orduko, eta arraroa da eskariarekin batera ez aipatzea, Bilbon kaleratu baizen, *Apis* aldizkarian. *El Vasco* egunkariaren eranskina zen aldizkari hau eta 29 ale atera zituen 1888.eko Urtarrilaren Setik urte bereko Abenduaren 20a arte. Enrique Olea zuzendari izan arren, Estanislao Jaime de Labayru apaiza izan zela eragilea esan dezakegu. Honek eskatuta edo igorriko zituen Azkuek Salamancatik *Apis* delakora bere lantxoak. Martxoaren 15ean, beraz katedrarako eskaria egin ondoren, argitaratu zen *Peru matraka ta Pedranton* Azkueren ipuinaren lehen zatia. Gero Apirilaren 19 eta 26ko aleetan jarraitu zuen Azkuek ipuin hau argitaratzen. Ez zuen ipuina amaitu. *Grankanton arrantsaleak* kondaira eskuskribuz igorri bazuen lehiaketarako, bazeukan argitaratutako lan bat ere aurkezteko, ez bazuen egin ere. *Apis* desagertuta urte betera, 1889ko Abenduan, Azkuek, Silberio Etxebarria apaizak, Antonio Arginzoniz durangarrak eta Sabino Arana-Goikir bestetako aldizkari bat kaleratu zuten, *La Abeja* izenekoa, 1890ko Maiatzerrarte iraun zuena sei ale kaleratuz. Sei aleetan argitaratzen da berriz Azkueren *Peru matraka ta Pedranton*, baina aldizkari honetan ere ez du bukatzen Azkuek ipuina. Lehendabizi *Apisen* argitaratu zuenean bere izenarekin sinatu zuen lana; baina oraingoan, *La Abejan* argitara eman zuenean, ezizen bat erabili zuen, hots, “Ezti-Abaua”. Aldizkari berean argitara eman zuen 1890.eko Urtarrilan beste lantxo bat “Iolas-aldia” sailean: *Izena eta izatea*, “Eztena” izenordez erabiliz.

Beste lehiakide, gero ospetsuak izango zirenak, Miguel de Unamuno eta Sabino Arana Goiri ziren. Hiruretatik zaharrena Azkue zen Lekeition 1864.eko Abuztuaren Sean jaioa. Hau baino hile pare bat gazteagoa zen Unamuno, 1864.eko Irailaren 29an jaioa. Azkenik, Sabino Arana Goiri, Unamuno bezala bilbotarra, 1865.eko Urtarrilaren 26an jaioa zen. Jaiotzatik ematen zaio lekeitiarrari beste biren aurkako abantaila bat, hots, seaskatik xurgatu zuela euskara. Bilbotarrek, ostera, ez zuten txikitatik euskara ikasi eta gero ere mintzatzeko zaitasunak izan zituzten. Hala aitortzen dio Sabinok Zabala'tar Aingeruri Gernikara 1897.eko Apirilaren 13an zuzentzen dion gutunean, oraindik argitaratu gabe dagoenean. Unamunok ere, Bilbon zaila zenez euskaraz hitz egitea, Gernika aldean egiten zituen mintza praktikak; ez dugu ahaztu behar Concha Luzarraga andereñoarekin ezkondu zela hiri honetan 1891.eko Urtarrilaren 31an. Bainan hiru gizon hauen arteko istiluak Alfonso Irigoien jaunak aztertuko ditu eta ez noa gehiago luzatzen. Dena den, eta musikari dagokionez, Unamunoren izaera berezia ulertzeko, anekdota labur bat emango dut. Belarri onekoa ez omen zen gure Migel, eta abesbatz batetan kantari zelarik, zuzandariak akatsa nabaritu zuen. Hara Unamunoren erantzuna: "Desafino... para que me oigan".

Unamunok ez zuen lehiaketara idazlanik aurkezku, nahiz eta ordurako dozena erditik gorako lanak argitaratuak izan. Madriden beste lehiaketa batetan diardu zuelako zela esaten da expedientearen. Bilboko Instituuan Filosofia Katedra betetzeko zen lehiaketa hori, eta ez zuen irabazi Unamunok. Beraz, urte berean bi katedra galdu zituen eta beste makurraldi bat ere jasan izan behar zuen, Antonio de Truebareñ ordez Jaureriaren Kronista izendatua ez izatea. Bazituen bada Unamunok minduta egoteko zioak. Une egokia dela gaurko hau, uste dut, ordurarte argitara emandako lanen zerrenda, euskarari buruzkoak, emateko.

- 1884 – Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca. Madriden, 1884.eko Ekainaren 20an, Doktorego tesi gisa azaldua. Ez zen 1956 arte argitaratu.
- 1886 – El elemento alienígena en el idioma vasco. *Revista de Vizcaya*, 15-2-86, 259-269 orr. eta 1-3-86, 295-305 orr.
- 1886 – ¿Vasco o basco? *Revista de Vizcaya*, 399-404 orr.
– Más sobre el vascuence. *Revista de Vizcaya*, 422-426 orr.
– El dialecto bilbaíno. *El Noticiero Bilbao*, nov. 1886.
- 1887 – El diccionario vascongado de Novia y Salcedo. *El Norte*, Bilbao, 15-10-87.
– Sobre la acentuación de los apellidos vascongados. *El Noticiero Bilbao*, 7-11-87. (Hurrengo egunean azaldu zuen Aureliano Galartzak Diputazioan euskal katedra sortzeko proposamen).

1888 – De ortografia (vasca). *El Noticiero Bilbaino*. (Sabino Aranaren erantzuna izan zuen artikulu honek).

Unamunorekin amaitzeako esan dezagun, Azkuek katedra irabazi ondoren eta hurrengo kurtsorako programak prestatzen ari zelarik, bilbotarra-rekin topo egin zuela Gernikako Euskal Jaietan, 1888.eko Iailaren 10ean, biak izan bait ziren epaimahaiko euskarazko lanak saritzeko. Oraingo honetan Felipe Arrese Beitiari eman zioten lehen saria eta bigarrena Francisco López Alen donostiarri.

Sabino Aranak ere bazituen ordurako dozena erdi idazlan argitaratuak, honako hauek hain zuzen:

1886 – Proyecto de Academia Bascongada del Sr. Artiñano. EE, 30-10-86, 361-364 orr.

- ¿Vasco o basko? 1885an idatzia eta argitaratua, *Revista de Vizcaya*, 1886, 166-172 orr.
- Etimologías sueltas: España. *Revista de Vizcaya*, 1886, 241-244 orr.
- Nombres de villas de Bizkaya. *Revista de Vizcaya*, 1886, 413-421 orr.

1887 – Etimologías euskéricas. 1885an idatzia eta argitaratua, *Revista de Vizcaya*, 1887.

1888 – Pliegos Histórico-Políticos, I. 1886-4-21ean idatzia eta 1888-4-7an argitaratua.

- Pliegos euskeráfilos. 1886-12-20 idatzia eta argitaratua, *El Noticiero Bilbaino*, 1888-5-12. Unamunoren aurka idazten du artikulu hau, honek proposatutako ortografía delata.

Euskarazko gaietan ez bazuen Azkuek Sabino aintzakotzat hartzen sarri askotan, politika arazoetan hurbil zebiltzan Arana-Goiri hil ondoren. Azkuek Toursetik idatzi zuen gutun batetan, 1906.eko Urtarrilaren batean, zera esaten zuen: “En política soy en el fondo lo que me hizo Arana Goiri: nacionalista”.

Bizkaiko Aldundiaren Artxibategian dagoen espedientearen beste bi lehiakide agertzen dira: Eustakio Madina eta Pedro Alberdi. Azken honek ez dakigu ezer. Eustakio Madina aragoarra omen zen, Azkuek dioenez. Sestaoko apaiza zen 1881ean eta urte horretan Okendoko San Roman elizara zuzendua izan zen (BOV, 14-9-1881, 26 zenbakia). Bonaparte Printzearen paperetan (Carlos González Echegaray-ren Katalogoa, 283 zenbakia) agertzen da Madinak egindako itzulpen bat, Karmelo Etxegarai jaunaren ustetan: “Magnificat edo Ama Birjiñaren canta euskeraz”. *Euskal Herria* aldizkarian azaldu zituen dozena bete olerkitxo labur 1884-1889 bitartean. Katedrarako deia baino lehen dozena erdi izan ziren aldizkari honetan argitara eman zituenak.

Espedientean agertzen ez den lehiakidea Luis Cirilo Itza Agirre da. Azkuek lehiakideen artean jartzen du. Baino ondarrutarra zela esaten duenean ez du arrazoirk zeren eta Bilbon, San Juanetako Parrokiaren bateatua izan zen 1837.eko Irailaren 7an. Ama bai ondarrutarra zen. Beraz 51 urte zituen lehiaketaren sasoian eta baliteke beraren adinagatik edo eskaria ez onartzea. Santurtzin maisu zelarik Bonaparte Printzearekin izan zituen harremanak 1873an (BRSBAP, 1960, 369-370 orr.). Gutun batetan diotso: "Zazpi urte joanak dira (beraz, 1866) neure eskuetara eldu zala Pedro Pablo Astarloaren liburu eder bat, izendatua *Apologia*. Andic ona euskera icasteco eta iracusteco libuchu (sic) bat egiten nabil, bai eta euskarasco itzesco liburu bat erderasco ezan naijagaz". Eskola umeentzat izango zen liburutxo hau. Gero, 1880an, Bilboko eskola maisu zen Itza jauna. Santurtzin zegoelarik Manterolari bidali zion eta honek *Cancionero Basko* delakoan argitaratu (1878, Tomo IV, 30-31 orr.) *Esne saltzailearen* bizkaierazko itzulpena. Ordurako Bonapartek proposatzen zuen ortografia bereganatuta zeukan gure Itzak. Bilbora etorri ondoren, Campionen *Orreaga* poema itzuli zuen bizkaierara eta hurrengo urtean Calderón de la Barca-ren *El Alcalde de Zalamea* autoaren zati bat, Bilboko Udalak aginduz. J. E. Delmasek argitaratu zuen itzulpen hau liburu eder batetan. Hitzaurrean dioenez, Euskal Akademiaren faltan, Bonaparteren ortografia onartzen du. Urte berean, 1881ean, *Euskal Erria* aldizkarian (135-138 orr.). *Begoñako Ama Birjiña Miraritsuari. Kantia Bizkaiko izkuntzan* argitaratu zuen eta aldizkari berean, 1882an (42 orr.), *Aita Sebastian Mendibururi lenengo euneko mugaldian* olerkitxoa. Handik hamar urtetara hil zen Santurtzin Luis Itza, 1892an, etxeko balkoitik erorita, Juan Angel Etxebarriak dioskunez (Ikus: Lino Akesolo: *Dos escritores vascos bilbainos. Luis de Iza y Juan de Izurrategui*. BRSBAP, 1964, 4.^o 461/464 orr.).

Guzti hauek lehiakide izan zirelarik, pozik ikusten dugu ehun urte geroago denen artean Azkue izatea katedradun izendatua. Katedraren ondorioz bilakatu zen Azkue euskararen erraldoia, bere bizi osoa, hain luzea eta emankorra, euskararen defentsarekin bete bait zuen. Beste eragin bat ere burutu zuen katedrak: bilbotarrei euskara irakatsiaz aparte, hizkuntzaren izen ona eta berarekiko maitasuna sortzea.

1888.eko Ekainaren 11an eman zioten Azkueri izendapenaren berri, oraindik Salamancan zegoelarik. Uztailean apaiztu zen Azkue eta Meza Berria Lekeitio eman zuen San Migel egunean, 1888.eko Irailaren 29an. Uda horretan ez zuen astirik galdu Azkuek eta katedrarako ikasbide bat asmatzen ibili zen Lekeitio. Diputazioaren dei bati erantzunez, Urriaren 15ean aurkeztu zuen ikasturterako programa, 50 ikasgaietan sailkatua. Matrikulatze epea bukatu zenean, 52 ikasle zeuden zerrendetan, tartean Emiliano Arriaga Ríbero, Oscar Rochelt Palme, Rafael Rochelt Palme (gero *Ardi galdua* elaberrirako irudiak egingo zizkiona), Nikolas Viar Eguskiza, Carmelo Gil Gorroño, eta abar. Kontutan izan behar dugu

adineko ikasleak zirela; esate baterako Emiliano Arriagak 44 urte zituen, Azkuek baino 20 gehiago. Horregatik, euskararen ardura bizia zeukalako, zortzi urte beranduago, 1896.eko Urrian, umeei euskara irakasteko Ikastetxe bat sortu zuen Azkuek Jardines kaleko 10. zenbakian. Eta behin baino gehiagotan, *Euskalzale* aldizkarian Gasteizko Gotzain zenari eskatu zion Seminarioan Euskal Katedra bat zabaltzea. Ikasleek ikasketak hobe burutzeko Ikerbide bat argitaratzea iruditu zitzzion eta 1888.eko Urriaren 26an, Diputazioari eskari bat zuzendu zion Diputazioaren moldiztegian astero zortzi orrialde ikasgaiekin argitara zitzan. Lehen ikasturte horren barruan, 1889.eko Otsailaren erdian, Gabriel Maria de Ibarra jaunaren etxeko kaperaua izendatua izan zen, ama eta hiru arrebekein Bilbon bizi zelarik, diru gehiago lortzeko aukera izanez.

Hurrengo ikasturteetan ikasle ospetsuak izan zituen, esate baterako Gregorio Balpardo Herreria, Teófilo Guiard Larrauri, Jose Arriaga Igartua (“Juan de Eresalde”), Cosme Elgezabal Urringoetxea, Joaquín Arisketa Quintana, Ramón Real de Asua, Juan Carlos Gortazar Manso, Anacleto Ortúeta Azkuénaga, Eliseo Migoya Torres, Higinio Basterra Berastegi, Federico Zabala Allende, Luis Emperiale Enciso, Esteban Bilbao Egía, Francisco Iturribarria Lauzurika, Félix Landaburu Madaria, Ebaristo Bustintza Lasuen, eta abar. 1896-1897 ikasturtean lehen emakumezko ager-tzen da euskal katedran: Matilde Esteban Gil. Eta gero eta ugariagoak matrikulatzen dira.

Goizeko zazpi terditan ematen zituen Azkuek klaseak lehen urtean. Bigarrenerako bi maila jartzea eskatu zion Diputazioari, goizeko sei terditan hasi eta bi orduen zehar. Hala jarraitu zuen Azkuek hainbat urteren zehar, arratsaldean klaseak ematea lortu arte. Bigarren ikasturtea hasi eta denbora gutxitara, 1889.eko Abenduaren 19an, salaketa bat egiten dio Azkuek Diputazioari:

“... que por aversión de sus funcionarios al euskera no ha conseguido imprimir en la imprenta provincial los opúsculos de Gramática. Tiene además preparado, sin poder imprimir por ese medio, un Vocabulario y antes de tres meses terminará la Gramática y un Manual de Conversación basco-castellano. También tiene a medio terminar una obra de lectura amena...”

Azkueren Gramatika, edo *Euskal Izkindea* argitaratzeko laguntza onartua zen ordurako Diputazioan, 1889.eko Ekainaren 4ean, eta Azkueren aipatu eskaria hartu ondoren, hurrengo egunean, 1889.eko Abenduaren 20an baieztatua izan zen onarpena. Baina ezin izan zituen moldiztegi ofizialaren eragozpenak gainditu eta azkenean Jose Astui moldizginari agindu zion lana. 1891 urterako kalean zegoen Izkindea eta 1891-1892 ikasturterako katedraren testu gisa onartu zuen Diputazioak 1891.eko Irailaren 30ean, 150 ale erosiz.

Irakurgaietan aipatu zuen lana ere prestatuta zeukan Azkuek 1892.eko. Antoine D'Abbadier zuzendu zion *Bein da betiko* dugu hau. Diputatuak lanaren edukina ikus zezaten, itzulpen bat aurkeztu zuen Azkuek 1892.eko Otsailaren 12an, orain ere Diputazioaren moldiztegian inprimatzea eskatuz. Diru laguntza eta inprimaketarako baimena eman zion Diputazioak 1892.eko Maiatzaren 24ean. Baino oraingoan ere ez zuen lortu bertan inprimatzea eta Santa Casa de Misericordia zelakoen moldiztegira jo zuen Azkuek: 1893.eko Irailaren 2an amaitu zen inprimaketa, 500 ale arruntak eta 30 bereziak kaleratu zirelarik.

Katedraren azken laugarren eta bosgarren kurtsoan ikasleak gutxitzen joan ziren, 13 bakarrik zirelarik. Horregatik 1892.eko Ekainaren 28an, Galdiz Diputatuak katedra ezabatzea eskatu zuen, baina ez zioten proposamena onartu. Azkue bera ere pixka bat goibelduta zebilen eta beste ekintza probetxugarriago bat asmatu zuen 1893.eko Ekainaren 2an, ikasturtea amaitu ondoren, Diputazioari zera proposatuz: hurrengo ikasturtean, eta berehala hasita, katedrara huts egitea Euskal Herrian zehar euskal hitzak eta esaerak biltzen hasteko, Hiztegia burutzeko hain zuzen. Udan ibili zen, asmatu bezala, baina ikasturtearen lehen egunetan berriz zegoen Bilbon, oraingoan 24 ikasle zituelarik. 1893-1894 ikasturte hau bukatu zuenean eta moldiztegiarekin ez zuela ezer lortzen ikusirik, ikasleentzat apunteak prestatzeko “auto-kopista” makina bat erosi zuen 125 pezeta ordainduz. Makina honekin argitaratu zuen eskuz idatzitako *Ensayo Práctico*.

Euskara eta musika izan ziren, dakigunez, Azkueren ardurak bizi guztian zehar. Eta katedran iraun zuen urteetan biak erabili zituen pedagogiazko tresna bezala eta bere ideialak adierazteko bide gisa. 1895.eko Otsailaren 2an estreinatu zuen Bilboko Patronatoan *Vizcaytik Bizkaira* zarzuela, katedrako ikasleekin baliatuz. Urte pare bat geroago beste zarzuela bat eman zigun, orain ere ikasleak partaide zirelarik: *Sasi Eskola*. 1897.eko Martxoaren lehen eguna zen. Beste hirugarren zarzuela bat eman zigun Azkuek hurrengo urtean, 1898.eko Otsailaren 20an *Euskaldun Biltokian* estreinatuz: *Pasa de Chimbos*, hemen ere ikasleak partaide zirelarik. *Eguzkia nora* eta *Colonia Inglesa* ere urte hauetakoak dira.

Baina solasaldi hauetatik aparte, tinko eta erne jarraitzen zuen Azkuek euskararen defentsan eta irakaskuntzan. Eusebio Maria de Azkue aitaren *Parnasorako bidea* kaleratzen du 1896an eta urte berean ikaslegoari begira bere *Método práctico para aprender el vascuence vizcaíno y guipuzcoano con su correspondiente clave de temas*. Harrigarria da urte hauetako Azkueren lana. 1896 urteko Uztailean kaleratuta zeukan bere *Proyecto de Ortografía* eta Azaroaren 13an Diputazioari diru laguntza eskatzen dio. Hurrengo urtean, 1897an, *El Bascuence en 120 lecciones* kaleratzen du eta Ubillos eta Añibarroren lanak ere argitaratzen ditu.

Eta hemen agertzen zaigu Ebaristo Bustintza Lasuen. Hainbat arazotan sartuta zegoen Azkue eta hiztegia ere burutzen ari zen. Laguntzaile bat behar zuen bai katedrarako eta bere lanetan ardura pixka bat beste baten eskuetan uzteko. 1896an hasten dira bion arteko harremanak. Bustintza, hamabi urte zituelarik, Almansara joana zen familiarekin eta handik iritsi zen Madridera 1895an fisika eta matematika zientzietan lizenziatura burutzeko. 1866.eko Urriaren 26an jaioa, 33 urterekin eta ezkongabea zen garaian idazten dio Azkuerei Siguenzatik, Seminarioan irakasle delarik. “Agradezco mucho su ofrecimiento de trabajar por mi repatriación” diotso Azkuerei, 1900.eko Apirilaren 3ko gutun batetan. *Euskalzale* aldizkaria debekatu ziotenez Azkuerei, honen ordezko bat sortzekotan zebilen orduan eta *Ibaizabal* izenburua jarri orduko, beste izen batzu ere asmatuta zeuzkan Azkuek, hala nola, *Ze barri?* eta *Eguna*. Bustintzak beste izen batzu proposatzen dizkio: *Barrizale*, *Barridun*, *Or emen*, *Azaldari*, *Batzaire*, *Agerlari*, *Geutarra*. Baino *Eguna* izenarekin kale-ratzeko zen aldizkariak oztopoa aurkitzen ditu eta azkenean *Ibaizabal* izenarekin kaleratzen da 1902.eko Otsailaren bostean. Ordurako Bustintza Bilbon dago, 1901.eko Martxoaren 4ean etorrira. Baino ez da, maiz gaizki esaten den bezala, aldizkari berriaren zuzendaria, ez duelako oraindik, bere ustez, behar den bezala euskara meneratzen. Hori dela eta, Azkueren ikasle da Katedran 1901-1902 ikasturtean eta hurrengoan ere. Eta Azkuek ikusten duenean Bustintza klaseak emateko gai dela, bere ordezko jar-tzen du 1903-1904 ikasturtean. Esan behar da Bustintzak, lehen urte hauetan, *Mañari* eta *Bloa* ezizenak erabili zituela, ospea emango zion *Kirikiño* ez zuen 1913 arte erabili eta. Aipatu ikasturte horren bukaeran, 1904.eko Maiatzaren 18an idazten dio Bustintzak, ordezko irakasle gisa, bere lehen gutun ofiziala Diputazioari, azterketen data finka zezatela eskatuz.

Azkue bitartean Hiztegiaren inprimaketa prestatzen ari da. 1902.eko Urriaren 10ean eskaini zion Bizkaiko Diputazioari arazo eta bere ustez ohore hau. Eta Diputazioaren aginduz aurrekontuak biltzen ibili zen, Toursek Mame et Fils moldiztegikoa onartua izan zelarik. Hor dugu bada Azkue Toursen 1904 urtearen hasieran. Dakigunez, 1906.eko Maiatzaren azkenerako kalean zen Hiztegiaren lehen tomoa.

Mendearen hasierako urte hauetan gehitzentzioen zihoan irakasleen kopuru. Esate baterako, 1905-1906 ikasturtean 98 ziren lehen mailakoak, 54 neskak zirelarik, eta 12 bigarren mailakoak. Beste arrazoi batzuren artean bazeukan gehitze honek ziorik: 1905.eko Urriaren 4ean eskatu zion Bustintzak Diputazioari orduak aldatzea eta ordutik aurrera arratsaldeko 7etatik 9ak arte eman ziren klaseak. Beste berri bat ere ekarri zuen aldaketa honek: 1905.eko Azaroaren 14ean argi elektrikoa jarri zen Euskal Kate-drako geletan.

1906-1907 ikasturterako 113 ziren lehen mailako ikasleak, 24 neskak zirelarik, eta 20 bigarren mailakoak. 1906.eko Abenduaren 19an Brussela-

tik zuzendu zion Azkuek Diputazioari eskari bat bi katedra sort zitzan, bata gizonezkoentzat eta bestea neskentzat. 1907eko Otsailaren 15ean Azkueren eskaria onartua izan zen eta aurrerantzean bera izango zen gizonen katedra zuzenduko zuena eta Bustintza neskena. Baino Azkuek Brusselan eta Kolonian musika ikasten 1909eko Abuzturarte egon zenez, ez zen aldaketa praktikorik egin. Handik etorri zenean egin zen katedren banaketa. Bustintzaren garai honetan aipa ditzakegu honako ikasle hauek: Severino Zuazo Ugalde, Adolfo Gabriel Urquijo, Ceferino Jemein, Manuel Robles Arangiz, Felicísimo Larrinaga Celaya, Manuel Irujo Ollo, Guillermo Ibáñez García, beste batzuren artean.

Katedraren 25 urte bete zirenean, 1913eko Apirilaren 24ean eskari bat zuzendu zion Azkuek Diputazioari: ikasturtearen amaierako azterketak aurrera zitzala, folklore materialak bildu nahi zituen eta uda hartan Bizkaiko Diputazioak antolatu zuen lehiaketa batetara bere lana aukezteko. Hemendik sortu zen Azkueren beste izugarrizko lan bat, *Cancionero Vasco* delakoa, hain zuzen.

Azkueren bizitzaren 25 urte (1888-1913) ikusteko aukera izan dugu, ikuspuntu batetik behintzat. Katedraren eraginez bizi izandakoa gehien bat. Beraz, gizon erraldoi honek egindakoak, neurri handi batetan, Bizkaiko Aldundiak orain ehun urte hartutako erabaki bati esker gertatu ziren. Ordukoagatik eskerrak emotea dagokigu eta ildo beretik jarraituko duelaren esperantza agertu.

Eta entzuleoi mila esker nireak entzuteko izan duzuen eroapena-rengatik.

BIBLIOGRAFIA

- AQUESOLO, LINO DE: *Dos notas autobiográficas de Resurrección María Azkue*. BRSBAP, 1965, I, pp. 50/63.
- ARANA GOIRI, SABIN: *Carta a José Arriandiaga*, Sukarrieta 15-VIII-1901. MUGA, n.º 17 (1981), pp. 43/47: *Sabino Arana juzga a Miguel de Unamuno*.
- ARANA GOIRI, SABIN: *Carta a Zabala'tar Aingeru*, Gernika, 13-VI-1987 (Inédita).
- ARANA MARTIJA, JOSE ANTONIO: *Resurrección María de Azkue*. Bilbao, Caja de Ahorros Vizcaína, Temas Vizcaínos n.º 103-104, 1983.
- BASAS, MANUEL: *Resurrección María de Azkue consiguió la primera cátedra de euskera en pugna con Unamuno*. El Corregio Español, 5-VI-1988.
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA: Artxibategia: 1.037, 1.070/33, 1.079 Karpetak.
- BUSTINTZA, EBARISTO: Azkueri gutunak. Azkue Bibliotekako Artxibategian.
- CORCUERA ATIENZA, JAVIER: *Orígenes, ideología y organización del Nacionalismo Vasco (1876-1904)*. Madrid, Siglo XXI, 610 pp.

- IÑURRITZA (SALBATORE MITXELENA): *Unamuno eta abendatz*. Bayonne, Imp. Darrac 1956.
- JEMEIN, CEFERINO: *Biografia de Arana Goiri'tar Sabin e Historia Gráfica del Nacionalismo*. Bilbao, Editorial Vasca, 1935, XVI, 402 pp.
- LAKA, ITZIAR: *Bizkaiko Aldundiaren euskarazko katedra*. ASFVJU, 1987, XXI-II, 409/424 pp.
- LAKA, ITZIAR: *Euskal Izkindeako aditza*. ASFVJU, 1986, XX-3, 705/754 pp.
- LLANO GOROSTIZA, MANUEL: *Azkue, Unamuno, Arana-Goiri y el vascuence*. El Correo Español, 6, 8, 9 y 10-1-1957.
- UGALDE, MARTIN: *Unamuno y el vascuence. Contra-Ensayo*. Buenos Aires, Editorial Ekin, 1969, 213 pp.

En Dialecte Biscauen - par l'abbé R. M. de Azkue
présenté à la Bibliothèque Nationale à Paris
par E. L. Dodgson 19 nov : 1892

Celto-Basque 108

Grankanton Arrantsaleak



—
Leyenda



en prosa bascongada,
basada

en un hecho histórico ocurrido en las aguas
del Cantábrico hacia el año 40
de este siglo

Al R^{do} P. Posareo de Churruca de la Compañía
de Jesús dedica este pequeño recurso

Al Autor

Al hacer esta leyenda, el autor no había aún iniciado sus estu-
dios acerca del euskera (1), como me fue lo primero que escribió.

(1). Advertencia del autor fechada 5 años después de escrita la le-
yenda, con objeto de que no se objete acerca de las ~~contrarias~~ opiniaciones.

Nota. Aun viven en Lequeitio testigos oculares del hecho naturalmente inexplicable que vamos a describir.



Grankanton Arrantsaleak

I.

Lurragaz asarratuta balego lez, betondo itzal bat era-kusten dau Otoioko(¹) mendi gainetik zerauk; turmo ta Pleizako chilin sendoen Duruundiagaz gortu bear dira gizonen belarriak; batak bano bersteak aninago lurra astindu nairik burruka dabiltzazala esan lei onastarra(²), chingorra ta euria; chimistaren zirzartadak noizik noizene ebagiten daber uria sapaldu nairik dagoran odai astunak; zerenetan deia entzunda; ezen icharen bage, abian dira erreietan ichasoko urak, eta alkar garaitu erin dabentean doaz ondarra astertutenei batzuk, aitzak austen bersteak, eta danak gora goraka erakusten dabe lurra iruntziteko(³) guraria.

Onen antzera dabiltz bein ona ta bein ará(⁴) emakume errukarriak, zapia Dingilizka, ulleari tiraka, ats amarrakaz arpegia estaldutak begiak leortutenei, Antiguako Ama Dantzellaren oinetan auspaztu eta biotzetik erregu labur ta samur bat egiten dabela.

• Zer jaso(⁵) da Lekeitio?

(1) Otoi - monte al este de Leguritio — (2) relámpago

(3) Iruntzi - devorar. (4) frase vulgar y expresiva que denota impaciencia
Bein ona ta bein ará = ahora aquí, ahora allá

(5) ¿Qué ha ocurrido en Leguritio?

II

Ormechako(¹) kalean bizi zan Eulea (²) esaten eutsen atso bat. Meizan ez egoan adizkido ez eban Santurik, ez egoante urian irior. Puka esagututa maitekuo ez ebanik.

Pukan seme bat azkarra, zulia ta ona; bero gurari andiena zan ama pozer eukitoa: amagaz solora, amagaz Plezara, amagaz kaira ta amagaz edonora ebillor Lorentzo.⁽³⁾

Ez da retan esan ez egoanik iru probintzietañ
Pultarentzat bera Lorentzo baño mutil ederragorik.

Sarri ez eutsan por geiago esarriko Aingeruak se-
me bat eukiko ebala esan eutsian, Puleari zartzara
Lorentzoren jaioerak emon eutsan baño: Lorentzo barik
ez zan gauza bizi izatoka; ain modutan eze, sarri au-
soko lagunak bere agotik entzun eben, Lurrean Lorentzo-
gaz, Lorenteogaz zeruan eta Lorentzo barik inun ez ebala
bizi nai.

Nekazarria zan Pulea, bere ezizenak(⁴) autortutenez
moduan; eta bientrat lain(⁵)emoten ez eban lez bere izerdiaik,
Ausoko Antonen chalupan mari-erdiako(⁶) sartu eban bere
semea. Ichasoañ noiz egoan iparra, noiz egoia,

(1) con este nombre se conoce la calle de Narea.

(2) Teljedora. — (3) Hemos escrito Lorentzo y no Lorenzo por adecuar
más a la pronunciación bascongada.

(4) Ezizena = mote ó apodo. — (5) tanto como = lo suficiente etc.

(5) De media ~~edad~~ ^{edad}. Mari-a significa entre los pescadores, racion.
Ignoramos el origen de esta palabra.

noiz mendebala ta noiz kampaizea, inok bano obeto ekia Ormechako alargunak.

Bere biotz biguna atsakabeten eben Galarran otsak ta mendebalen putzak; eta lanoak, gurmiaik, zargoriak eta zarrazoiak ez eben talaiako⁽¹⁾ mendi-burua. Pulearen bekotia bano a geiago illunduten.

Orbelak eta bidetako autsak⁽²⁾ ekaitzaaren⁽³⁾ susmoagaz ikaratuta gora goraka ebiltzaranian, Ormechako kalearen sotando batan argi egiten eutsan antiquiako amaren imudiari errechinphiegartzi batek.

III

Der jaso da Lekeitio?

Begiratutu deigun Pulearen gelara, eta arrantsaleari seineroaren⁽⁴⁾ keiak adierasoten deutsen lez noiz Dagon ohonchorroa⁽⁵⁾, noiz manjua⁽⁶⁾, esango deusku gelako keiak zer jasoten dan Lekeitio eta zer ichasoan.

Jarraitzu deiguran Pulearen pausuak, entzun deiguran bere berbak; eta jakingo dogu ichasoen erdian dagozala uniko gizon gienak: goaren kairu⁽⁷⁾ta ikusiko dogu batet, potin, botakor ta chalupa⁽⁸⁾ gurtiak ichasoan diriala: begiratu deigun ichasora, eta ikusikodogu er dala agiri ontzink⁽⁹⁾ ze nuraño Jagiten dan bitzaren⁽¹⁰⁾ artean.

(1) Talai-a = monte al este de Lekeitio - (2) Ekaitza = tempestad -

(3) vela de resina muy usada hasta nuestros días entre la gente byla;

(4) Seinpro = iglesia de pescadores. - (5) Grupo de aves marinas comunes que sobren los perecidos. - (6) concentraciones de peces. - (7) Kai = puerto;

(8) Pecugintz = embarcaciones distintas por la forma y dimensiones

(9) Ontzi = barco, filibunda espumosa. - (10) Bitz = espuma.

Negar egiten deutsa seme bakarrari batek, senar barik getitu bear dau onék; aita ta nebak (1) eta eurakaz echeko ondasuna ichasoetan ichiko dauer arek; gurztiak denuke nor galdu, gurztiak dauke senide, ausoko edo lagun bat nori negar egin.

IV.

Onetan (2) eskolatik urten dabe umeak; banan banan (3), illara bitan eta chapela eskuan dabeli ichasoari begiratuten deutse ume gaisoak, gaur bi mila urte Israelen begiak ipinita Mesiaren icharoten egozanak lez; Dart dart (4) doaz kairantz Ama Mariari Ginguruaren agurra kantetan. Aurretik biderik ezin edegita dabil mutil sendo bat, esku biakaz makilla bateri goruntz eutsiten, eta makillaren ertza oial edo bandera urdin ta zar bat dabela. (5).

An hastutene dira mutilen kantaa, emakumene didarra, alargunen inkasak, ume zurtzen (6) arrantzak, aizaren chirputua, ta ichasoaren amurruzko baralla (7).

(1) Hermanos con relacion a hembra, para distinguir de Onaiak = hermanos sin relacion al varon. — (2) en esto — (3) de uno en uno — (4) temblando.

(5). Alusion a una costumbre piadosa e inmemorial de la villa de Legutiérn. Cuando la tempestad sorprende a los pescadores en el mar, salen los miembros de la escuela en procesion precedidos de uno mayordomo que sostiene en sus manos una tradicional bandera hecha girones y de color verde. Cantan por las calles el Ave-Maria y no cesan hasta un lugar denominado Tula gikoia, donde se eleva sobre las penas una linda ermita dedicada a San Juan Evangelista. Alli hincados delante de la imagen del Santo rezan la letania Lauritana, tienen un rato de receso en la pequena plazuela que rodea la hermita, y vuelven a la Escuela.

(6) huérfanos — (7) ruido.

Kaiganean gizon ta emakume aldra bat dago mutil batetan bornuan (1), zer bait jakin nainik.

Errian zabaldu da masiko potinak (2) Ondarroan sartu diriala, Motrikun trainekoak (3), eta inok ez daki Gran Kantoko gizonek barrirrik.

«Eta nire aita», dirautse mutilari; «eta nire senarm», «eta nire Seme Lorentzo...», ai ene biotzeko kutana! ; zirk eroan «zaitu Gran Kantora? Ama bakarrik ichita?»; Pe engozari «obeto zure amaren triagalpean (4) ichasoakaz kezkan (5) azi barik?»; Ai egun negargarnia!, Eriotsa erruki bakoa «zer gaitik ez ~~paseo~~ nazu zugaz ichasora erwan, seme maitearen besoetan Jaunari anima emon neion?»

Negarr onekar, batera entzuten zirian didarramako bakoak, arrantza gogorrak, alaran negarrgarriak, intzini zoliak, chilio biotzeakoak.

Salvetako chilinak Pleiran batu dauran abadeak azi dira organuaren zaratara Antiguakoari erregututene.

Gero ta gogorrago (6) chiztu egiten dau aiseak, gero ta bitzagiago ateraten dau uretan mendebalak, gero ta arpegi illunagok erakusten dau ekaitzak; eta inok ez daki Gran Kantoko gizonek barrirrik.

(1) en derredor - (2) lanchas pequeñas que se dedican á la pesca de la sardina - (3) lanchas algo mayores que con red más redondamente tegida se dedican á pescar anchoa - (4) frase figurada que denota protección - (5) Kezka = riña.

(6) modismo propio del Puskara que indica aumento de acción con la marcha del tiempo.

V.

~~Euskalherria~~ Grankantó da ichasoen erdian dagon kalku bat ondartsua, besiguz ugaria eta arrizku andikoa.

Baina nun dago euskaldunen biotza ikaratu ta atseratiko daben arrizkurik?

Er zirian potincho batzuetan Irlandaraño eldu?; Er dira eurak zurezko ontsietan Lurrari lenengo bira emon dantzak? Burdinazko ad ontsi ~~ezker~~ izugarrrietan Ingelosak ichasoari aginduten azi ordurako; Nortzuk aspiratu eben batel ta bombo (2) makaletan ichasoaren indarra?

Ara or Grankanton lenagoko Euskaldunen irudi bizia.

Ara or Zaldibar (3), El-Cano, Legazpi, Oñuriaka ta berste ichasoeko agintari aizkorren odola sanetan dauden gizonak.

Erroiau (4) daberz eguzki berotan puren tretzak (5), ondorio(a) erriauta dauez libatzetako kordelak; ur-azalpar igiri dabilta tuntuizak (6), mendebal gogorraren gomuta barik.

Umore onagar ateria dauz chapeletik arrata (7), tundalista pi pontsia (8) chalupa maiusak; panelpean (9) foloztutako (10) daukee narruko jantziak; eta kordelak alateko (12) agindua ~~eta~~ dau nau siak.

(1) Lugares escogidos para pescar en alta mar; su conocimiento parde de la posición que ocupa la lancha respecto de los montes.

(2) Barra de alto bordo: poco se diferencia del patacho y quechua arin.

(3) La historia se da el título de general.
Nació en Lequeitio; sirvió a S. Fernando, distinguiéndose mucho en la toma de Sevilla, rompiendo con su barra la cadena que impedia el paso del río y el asalto de la ciudad. (4) voz náutica que significa el modo de extender una cuerda a lo lejos - (5) aparejo para la pesca - (6) besugo. (7) hasta el fondo - (8) boyas, huecas de hoja de latón - (9, 10) objetos que usaban los fumadores antes de la fabricación de los vaporillos. (11) tabaquero de latón - (12) panel: tablante que cubre el suelo de la lancha - (13) plegados - (14) para reponer.

Ulaten ari la berste barik dino agura batek : "Mendebala, mutillak galarrona ; galduak gara."

Gaurra ikusgarria izango litzate, eun gizonen bizia amazkuan ez berlego, ze anin kordelletak batu, tretzak gorde, narruzku janariak soneratu eta ekaitzari arpegi emoten prestau dirian arrantsale gaiso arek.

Amar ontsi chiki arek ondatuteko ichasoko urak naikoa ez balira lez, zenuak botala (1) jausten da euria; zer jasoko dan ikusi nai ez da, odai arteko bidea artu-agaz, agur egin deute egezkiak benturaz betiko (2): zerenan danke euren icharropena (3) eta zerua odai illunakaz estalduta dago.

"Amar ordu bear doguz, dino batek, urren dan errian sartu teko; Baña nor da amarr orduan, eta dagon ichasoagaz, bere buruaren jaube (4)? Prin erakutsi gineo aizeari bali to chikia (5). Abant (6) mutillak, abant gogotik, Aurrera."

Danak diardue ichasoa auzten erramuakaz eta inok sein dau abantik egin-----

Orduan (7) danetatik zarrenak dirautse "Agur lagunak; gure amai (8) ollu da; parka eskata deiogun alkarreri, Iau-nari Damu andi bat erakutsiagaz. Agur."

(1) zenuak botala - todo lo que podian los cielos - (2) quizás para siempre.

(3) esperanza - (4) dueño - (5) Balizto chiki : así llaman a una pequeña vela.

(6) a remar - Es posible que esta palabra se derive del vocablo francés avant. - (7) Filologíicamente significa "en aquella hora" = entonces.

(8) fin

“Agurr», erantun eben osta-ostir biotzen hiru perdak (1).

— “Agurr», isil isilik eta agin artean erantun eben Lorentzok;
“Agurr, eneglama biotzekoa, Agurr».

Beate guztia Antiguako ama miraritsuari (2) euren buruazt
gaitik erregutetan eutsen artean, Lurreko ama gaitik zerukoari
bere barruan dei egiten eutsan Lorentzok j: arren eroan egite
len bait len Bizkaiko sokondotik zeruko Jauregira (3) bere ama;
ez ciela bakarrik lurrean ichi nai ordurano bera barik bizi
ezin zana.

VI

“...Getaria!!!», Kolonen agindupean egoran ~~maiz~~ gizonak
erria ikusi ebenian lako por andiagaz didar egin eben Lo-
rentzok, “...Getaria!!!».

Didar metara bizkortu zirian eriotxa ezin garaituta ebil-
tzazan gizonak; “Getaria” konkortuta diñe guztia, “Getaria»;
eta lau palada (6) erriruntz botauagaz, chapela kendu ta
burua makurtu eben San Anton Getariakoaren aurrean.

Kaira sartu ta chalupak lotuteko asti barik prestau zan Lorentz
Lekeitiora gau illunetar barni ona ematen joateko.

“Por dirautso chalupaku nausia Antonek; aldatu egizuz sonokoak,
“apaldu astiro (7), ta oira sartu zaite»

(1) convulsiones - (3) a la milagrosa - (4) Burua = cabesa hace oficio de refle
xivo : euren burua, gaitik : por si mismos.

(2) eñe = genitivo del pronombre Ni = yo. Pota poco meno que en desuso.

(5) al palacio - (6) palada = golpe de remo. (7) con calma.

“Nok lagun egingo deust Leketiora?» — “Nik-nik...» eranteun eutsen guztiak. Artu eban Antonek sendean erichon (1) lagun bat eta abian zan Leketioruntz.

VII

Goizaldean, emakume pillo bat joian Leketiko kaletatik Pleirara Antiguako ama maiteari erkennak emoten. Ez zan ~~an~~aren artean berterik entzuten ez bada: “Antiguako amak gorde dawz gure arrantsale galduen biziak.”

Inok ikusi barik urten eban urifik egun sentioran, (2) Euleak. Nekes igotan eban bere urteen pizua lepoan ebala. Loibeko (3) aldatsa; atsagoteko agiri barik Indairi (4), Baundo, Anicabe ta Ondarroa albo baton, eta berrian Arterrika ja Berritu ichi ^{ebazan}. Motrikun alkar ikusi eben ~~eta~~ arantz joian emakume maitegarniak eta onurtx etozan gizon erdi bilerizak. Ar barriro berri zirian ama ta semaoren biotza; eta bertatik, lagunen erreguak zeruko deragaitik atze ratuta, urten eban biak ortozik (5) Urrkiola, San Antonion Euleak egin eutsan promesa betetutenean.

— A.M.O.G. —

Bn Resurrección María de Azkue

Jalamainca Marzo 27
88

(1) que le parecia — (2) al alba — (3) Loibea caserío de Leguitio. (4) este y los nombres propios siguientes, pertenecen a pueblos y lugares que se encuentran cerca de la senda antigua de Leguitio d/Gipuzkoa. (5) descubiertos.

AZKUE, ARANA GOIRI ETA UNAMUNO

Bilbo, 1988-VII-1 ()*

Alfonso Irigoien

Badira ehun urte Bizkaiko Diputazioak euskal katedra sortu zuela Bizkaiko Institutuan kokaturik. Urrats axolazkoa eman zuen eman ere, eta modu batera edo bestera, zuzenean edo zeharka, ekarri dituen ondorioak ez dira nolanahikoak izan.

Bost izan ziren izena eman zutenak konkurso bidez ezarlekua irabazteko, horietarik hiru historian maila nabarmena irabazi dutenak, eta ez bakarrik Euskal Herrian, mundu zabalean baizik: Azkue, Arana Goiri eta Unamuno. Beste biak Pedro Alberdi eta Eustakio Madina.

Azkue-ri eman zitzaison. Mahaikoen eztabaidea Azkue eta Unamuno-ren artean kokatu zen. Unamuno Filosofia eta letretan doktorea izanik, titulu ofiziala zuen bakarra gertatzen zen, eta lanik aurkeztatu ez bazuen ere, Madrilen ari baitzen beste oposizio batzu egiten Bizkaiko Institutuko Logika, Psikologia eta Etikaren katedra baterako, ezagunak direla bere lanak esaten da. Azkue Teologia Sakratuan batxillerra zen. Horregatik, tituluen arauera Unamuno zen lehenen, eta hastapenean hala aipatu zen. Larrazabal eta Azillona jaunen eritziz, ostera, Azkue egokiago zen katedrarako, alde batetik apeza zelako, eta bestetik, aurkeztatu zituen lanengatik, eta hala adierazi zuten izkribuz, eta botoetara jorik bigarren honek hamaika izan zituen alde, hiru kontra, eta zuri bat, eta hala erabaki zen arazoa (1). Edozein modutan ere Azkue eta Unamuno urte berean

(*) Euskal katedra sortu zeneko ehungarren urteurrenean Bizkaiko Foru Diputazioak eta Euskaltzaindiak prestaturiko ospakizunean 1988-garreneko Uztailaren 1-ean Diputazioaren Jauregian Bilbon eginiko hitzaldia.

(1) Cfr. MANUEL LLANO GOROSTIZA, "Azcue, Unamuno, Arana Goiri y el vascuence", *El Correo Español-El Pueblo Vasco*, 6-I-1957, 8-I-1957, 9-I-1957, 10-I-1957.

MANUEL BASAS, "Resurrección M.^a de Azcue consiguió la primera cátedra de euskera en pugna con Unamuno", *El Correo Español-El Pueblo Vasco*, 5-VI-1988.

ALFONSO IRIGOYEN, "Del epistolario de Azkue", *Euskera*, II (1957), 3 eta 4, 265-266 orr. Katedraren oinarriak agertzen dira bertan.

jaiorikoak ziren eta biek Bilbon zegoen Bizkaiko Institutu berean egin zuten batxillerra (2).

Hau gertatu zen Foruen derogazioa eginik zegoela hamaika bat urte geroago Aureliano Galarta diputatu jaunak 1887-garreneko Azaroaren 8-an eskabide bat egin baitzuen Diputazioak dohaineko katedra bat sort lezan gorago aipatu den Institutuan (3). Baino katedra sortzearena Gernikako batzarretan, haien Madrileko agintariekin galera zitzaten baino hainbat urte lehenago, behin baino gehiagotan tratatu izan zen, eta inolako zalantzak gabe esan daiteke Bizkaiko herrian geroago ta sendoago sentitzen zen gogo bati erantzutera datorrela.

Hona hemen Gernikako batzarren zenbait berri:

1833-garen urtean egin ziren batzarretan, lehenengo karlistada hasi zen urte berekoetan hain zuzen ere, Erregeak izendaturiko Korregidorea bere hitzaldia euskaraz eta erdaraz egiten hasi zenetik Gernikako batzarre orokorretan euskara ofizialki erabiltzea zilegi izatera etorri zen, lehenago ez baitzen: “El cual después de haberle traducido verbalmente al idioma vascongado, para completa inteligencia de los Señores que no poseyesen el habla castellana, se mandó por la Junta que se imprimiera y se distribuyeran egemplares de él a todos los Señores apoderados” (4). Beste alde batetik ez da ahaztu behar Abandoko euskaltzale perrataileak zer edo zertxo lehenago Euskal Akademia batekin beste ezerekin baino zer ikusi gehiago zukeen zerbait sortu behar zatekeelakoa ere azaldu zuela, Gernikako batzarrek izendaturiko hogei ta lau pertsonez osatua, Aristides Artiñano-k Durangoko Euskal jaietan askozaz geroago, 1886-garren urtean, beste era batera Euskal Akademia sortzeko asmoa agertu baino lehen (5).

(2) M. GRANDE, “Estudios de bachillerato realizados por Resurrección M. de Azkue”, *Euskeria*, VI (1961), 360-361 orr. 1881-garreneko Ekainaren 23-an iragan zituen Batxillerreko gradua hartzeko egin beharrekoak.

MIGUEL DE UNAMUNO, *Obras completas*, VIII, *Autobiografía y recuerdos*, “Recuerdos de niñez y mocedad” (1908), Madrid 1970, 131 orr. eta hurrengoak: Dio: “En el curso 1875 a 1876, teniendo yo once años, en las postrimerías de la guerra civil, ingresé en el Instituto Vizcaíno”. Amaitzeari dagokionez 1879-1880 ikasturte izan zela batxillerraren azkena esan behar da. Beraz, Azkue-k baino urte bete lehenago egin zituen ikasketak urte berean jaio baziren ere.

(3) RESURRECCIÓN MARÍA DE AZKUE, *Euskalerriaren yakintza-Literatura popular del País Vasco*, I, Madrid 1935, 9 orr.

(4) *Juntas Generales del M. N. y M. L. Señorio de Vizcaya, celebradas so el árbol, y en la Iglesia juradera de Sta. María de Guernica desde el dia cuatro hasta el quince de julio inclusive de mil ochocientos treinta y tres*, Bilbao 1834, 13 orr.

Ikusene “Gernikako batzarreak eta euskara” (Iruñean, bosgarren Udako Euskal Unibertsitatean 1977-VII-an irakurria), *Anaitasuna*, 15-VIII-1977, 1-IX-1977, 15-IX-1977.

(5) LINO AKESOLO, “José Pablo de Ulibarri Galindez (1775-1847); actualidad de su obra”, *Euskeria*, XXI (1976), 170 orr. eta hurrengoak.

Katedrarena 1841-garren urteko batzarretan aipatzen da: “Resolvió asimismo la junta, por igual indicación, que al ponerse en planta, en virtud de lo acordado en la precitada sesión del 2, el Instituto científico de segunda enseñanza, cuidase la Diputación general de que se establezca en él una cátedra de lengua vascongada (6).

1864-garrenekoetan berriz tratatzen da euskal katedra sortzeaz eta baita maisuek euskaraz jakiteaz ere, —kontuan izan behar da garaitsu horretan eztabaidea bat garatu zela Madrilekoen kanpotik Euskal Herrira maisu erdaldunak bidaltzen hasi baitziren 1857-ko irakaskuntza publikoko lege berria oinarri harturik (7): “Igualmente diose cuenta de otra moción suscrita por varios Señores apoderados que a la letra dice así: ILLMO. SR.—Los apoderados que suscriben proponen a la Junta general se sirva acordar que la Illma. Diputación proceda inmediatamente al establecimiento de una cátedra de Lengua Vascongada en el Colegio de Vizcaya, a fin de secundar eficazmente los patrióticos esfuerzos del P. Fr. José de Uriarte, de D. Pedro Novia de Salcedo y de otros doctos vascongados que trabajan por el mantenimiento y la perfección de nuestra lengua materna, teniendo sin duda muy presente el **axioma de que allí donde concluye la lengua de los pueblos concluye su nacionalidad**. So el árbol de Guernica a 25 de julio de 1864.—Illmo. Sr.—Alejandro Rodríguez.—Angel María de Ventades.—Juan Antonio de Menchaca”. “Y acordó la Junta que dicha moción se remitiera a la Diputación general para su resolución, y a propuesta de un señor apoderado resolvió también un voto de gracias en favor del R. P. Fr. José de Uriarte, por los estudios que ha hecho de este lenguaje y servicios prestados con tal motivo” (8). **El axioma de que allí donde concluye la lengua de los pueblos concluye su nacionalidad** beltzez markatu dugu, Arana Goiri oraindik jaiotzeko zegoela printzipio nazionalista dei dezakegun hori formulatzen baita Gernikako batzarretan.

JOSE PAULO ULIBARRI GALINDEZ, *Gutunliburua* (esku izkribu faksimilez argitaratua), Gasteizen 1975. Ikus bertan datorren “Bibliografía” eta Aita Lino Akesolo-ren aurkezlatzea.

D. ARISTIDES DE ARTÍÑANO Y ZURICALDAY, *Proyecto de Academia Bascongada*, Barcelona 1886, 35 orr. (Premiado en las Fiestas Eúskaras de Durango, en 1886).

(6) 57 orr. eta hurrengoak. 1952-garrenekoetan, 72-73 orr., lehenengo irakaskuntzako eskola normalaren ardura ere eman nahi zaio Institutuari.

(7) Kontuan izan behar da 1857-garren urtean Madrilen irakaskuntza publikoaz lege berri bat egin zutela —ley de instrucción pública de fecha 9 de septiembre de 1857—, eta haren kontrako mugimendu bat sortu zela Gernikako batzarretan, gai horretan Diputazioen eta Udalen bete beharrak murritzurik gelditzen baitziren. Hain zuzen ere 1860-garren urteko batzarretan, 90-91 orr., lege hori honela hartzten da: “como contraria a las atribuciones que las diputaciones y ayuntamientos constantemente han gozado tocante a la inspección y vigilancia de este importante ramo, al nombramiento de profesores y señaladamente de su dotación”.

(8) 150 eta 151 orr.

Ikusten denez katedraren asmoa ez zen 1888-garren urterarte bete, Foruak galdu eta gerorarte, dudarik gabe garai hartako gerra eta gertakariakatik.

Azkue-k berak dioenez, *Grankanton arrantzaleak* izan zen aurkeztatu zuen euskarazko lana, eta *Algunas reglas gramaticales* “edo onelabait” (9). Katedra irabazi eta berehala, 1891-garren urtean, *Euskal izkinea - Gramática euskara* argitara zuen euskaraz eta erdaraz, geroagoko lanean autoreak berak gaztetako bekatutzat aitorlako zuena. Dodgson-ek *Azcuence* deituko zion Azkue-ren lehenengo bide honi. Izan ere hizkuntza zeharo logiko bat bultzatu nahi zuen eta *izan* berboaren presentea, konparazio baterako, *nai, ai, dai, gaiz, zaiz, daiz*, egiten du, *naiz, haiz, da, gara, zara, dira* formen ordez, eta, beste alderdi batetik, *daut, gauz, zauz, zautaz*, eta abar, *dut, gaitu, zaitu, zaitut*, eta abar, formen ordez, normalak direla, ordea, *nau, aut, au*, eta abar, bere logikaren oinarria horietan hartzen baitu. Egia esateko Bizkaiko itsasaldetik barrura *nai* forma *nas* edo *naiz-en* ordez, ezaguna da, bakarra ez bada ere, eta hor har zezaileen oinarri jatorrizko forma zela uste izateko eta bere buruan baino kokatzen ez zen alegiazko logika zaharra goitiik behera flexio-jokoetan berregiteko, eta horixe berbera egin zuen *edun* berboarenetan ere. Ez zen konturatzten asko erabiltzen diren flexio-jokoak ez direla normalki edozein hizkuntzatan erregulartasun hestukoak, eta berrienak, ostera, erregularra-goak direla. Hor dituzue, adibidez, oso berriak diren *leiket, leikezu, leike*, eta abar, Gipuzkoako Goierrin ere oso gazteen artean zabaltzen ari direnak *leike* oinarri harturik, eta *ez neike, zeinke, leike*. Edozein modutan ere *nai* forma **nadi* batetik letorke, agian aoristoko laguntzailea bestearekin nahasirik, oraindik hainbatek Bizkaiko leku batzutan *etorriko litzateke* perifrasiaren ordez *etorriko leiteke*, eta abar, esan izan duten bezala,

(9) IKUS RESURRECCIÓN MARÍA DE AZKUE, *Euskalerraren yakintza-Literatura popular del País Vasco*, I, Madrid 1935, 7 orr.: ‘Gaztetxo nintzan (ogei urte or or bainueten) Seminarioko ikastarondoko opor-egunetan, astiune batzuetan beintzat, erriaren agotik ipuin ta irakurgai bat edo beste ikasten ari izan nintzanean. Orduan ikasitako irakurgai bat, laubost urte geroago, lantto bat egiteko erabili nuen. Bizkaiko Aldundiak, Bilboko Instittuian euskerazko irakaskuntza sortu nairik, batzaldi bat iragarri zuen, irakasle izan nai zutenak berak egindako zerbaite erakutsi zezatela eskatuz. Bi lan txume agertu nituen nik: euskerazko bat, bestea erderazkoa. Lenengoari izentzat *Grankanton arrantzaleak* ezarri nion eta Lekeitio urte batzuk lenago ikasitako irakurgai bat izan zan (Uri artako itsastaren arrantzatoki edo kala urretitiko baten izena da *Grankanto*). Bigarrena *Algunas reglas gramaticales* edo onelabait izendatu nuen. Orain (arri zaiz, irakurle): Parisko *Bibliothèque Nationale* deritzaion Liburutegi aundian dautza bata ta bestea, E. S. Dodgsonek nire eskuetatik artu ta neronek enekiela ara eramanak. Arritasun ori yoango zaitzu, irakurle, Oxford-ko Bosleyren Liburutegian arkitu nituen paper batzuen berri yakin dezazunean. Lan onetan ari naizen onen eta Campion eta beste euskalariren baten postal batzuk, len aipaturiko euskalzale ingelesak utziak, ikusi nituen nik an. Bizkaiko Aldundiaren orduko asmoa gora andikoa izan zan euskeraz zarrari indar berriak zainetaratzeko. Orduan asi ginan Arana Goiri ta ni, ateko aldeari bizkarra emanetz, barrura begira, nola edo ala lanari ekin ta ekin. Irakurleak atseginez ikusiko dutela uste dut gure Aldundiak artarako erein zuen lenengo azia’.

lehenengoa ere ezagutuarren, edo *etorri jakon* esan beharrean, Leioa eta ingurueta *etorri ekion* esan izan den bezala, azkenengo hau Lizarraga Elkanokoaren erara, hark *etorri zekio* baitarabil *etorri zitzaison* zentzuan, *etor zekio(n)* perifrasia modu indikatiboan zuen iraganeko aoristo zentzua galdu baitzuen (10). Beste alderdi batetik *elemento inquirido* delakoaren gaia ere hor azaltzen da eta geroago Altube-ren eskutik segida izan zuen (11).

Azkue-ren bideari Dodgson-ek *Azcience* deitu ziola esan dugu, eta euskarara moldatuz gero ere balio du, zeren modu horretera *Azkuera* edo *Azkuara* esan behar bailitzateke, *euskera* edo *euskara* hitzakin jokoa eginik. Arana Goiri-rena *euzkera* zen, hau da, *z-rekin*, *eguzki* hitzarekin zer ikusirik bagenduela asmatu zuenetik aurrera, eta bide hori maisuak baino urrunago eraman zuten Arriandiaga-k eta geroago *Euskaltzale bazkuna*-ren inguruan ari izan zirenek, eta ez zuten Bizkaian bakarrik izan eragina, Bizkaitik kanpo ere bai. Kirikiño-ren moduko batzu eragin guztia gora behera ez zuten herriko euskara fresko eta indartsuaren kutsurrik galdu, ordea. Horretara baldin bazen, alderdi batetik *Azkuera*, eta besterik *euzkera*, *z-rekin*, edo Arana Goiri-ren eskola baziren, eta orain-suago hori adierazteko *hyper-hitz* bat sortu izan da, hau da, *hiperbizkaiera*.

Baina *Azkuera* oso gutxi iraun zuen, *Euskal izkindeak* iraun zuen beste, zeren Azkue-k bere hiztegi nagusia egiterakoan beste bide bat hartu baitzuen askozaz ere zabalagoa, garaiko purismoa zeharo gainditu ez bazuen ere, beste askok ere Euskal Herriko hegoaldean Bizkaia baino eremu zabalagoan zeharo gainditu ez zuen bezala. Hiztegiaren hitzaurrean izenik gabe aipatzen da Dodgson-ena (12). Edozein modutan ere Azkue-k Bizkaiko euskara dotorean idazten zuen hitzaldi labur honetan aipatuko ez ditugun bere lan ugarietan, Gipuzkera osotuaren teoria oinarri harturik *Prontuario de la lengua vasca* eta *Ardi galdua* elaberria argita-

(10) Edward Spencer Dodgson izan zen *azcience* hitza zabaldu zuena, cfr. Julio de Urquijo, "Vascófilos ingleses", *RIEV*, XXV (1934), 201-224 orr., Dodgson-i dagokiona 211 orr. eta hurrengoetan dator.

Azkue-k berak ere aipatzen du bere Morfolojian: "Tal demolición intentó el autor de estas líneas en aquella su *Euskal-izkindea*, ¿y no recuerdas, lector, el chiste dogsoniano de *Azcience*? El uso de *gorria*, *eskua* y *besoa* es hoy ya corriente, aunque el que así las escriba se valga, al hablar con los suyos, de las variantes que le son familiares. El lector las acepta asimismo. La propuesta de esas flexiones *daut*, *dauk*, *daun*, *daugu...* etcétera, como de uso exclusivo en lo futuro, es sí, empresa fácil; pero la aceptación por parte del pueblo la juzgo imposible y hasta contraproducente, pues en vez de destruir una Babel daría lugar a la formación de dos, o por lo menos a hacer más confusa la primera", cfr. Resurrección María de Azkue, *Morfología vasca*, Bilbao 1925, § 932, 691 orr.

(11) Cfr. *Euskal izkindea*, op. cit., 334-345 orr.

ALFONSO IRIGOYEN, "Sebero Altube eta euskal hizkuntzaren pleguak", *Euskera*, XXV (1980), 325 orr. eta hurrengoak.

(12) RESURRECCIÓN MARÍA DE AZKUE, *Diccionario vasco-español-francés*, II tom., Bilbao 1905-1906, "III. Del enemigo el consejo", I tom., IX orr.

ra zituen arte (13), hain zuzen ere Euskaltzaindia sortzerakoan. Harrezke-ro bere euskara batuaren bidetik ibili zen, batez ere busti-palatalen grafia kontuan, jarraitzaile guti izan bazuen ere bere inguruko artean, gipuzkoar izanik ere, zeren politika arazoak mundu abertzalean Arana Goiri-ren bidetik zihoatzenez gero, haren joerak nagusitzen baitziren, eta horretan ez baitzeten bat. Baina gerra ondoko euskara batuan grafia horri dagokionean Azkue-ren bidea gelditu da, eta Nazario Oleaga-k horrezaz zuen eritzi finkoa baliozko gertatu zen, zeharka bederen, eta beste alde batetik batez ere Lapurdiko euskal literatura oparo purismoaren bidean sartu gabekoa horren alde zegoen (14).

Unamuno-k bere lehenengo denboretan lotura handia izan zuen euskal munduarekin. Bere doktoradutzako tesiak ere bide horretarik abiatu zen: *Critica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca* (leída en Madrid el día 20 de junio de 1884). Gauzaren bat edo beste, hala nola *zillar*, 'plata', hitzaz dioena, eskozes, aleman, goto, eta ingelesarekin, —*silver*—, konparatzen duela, geroago ere ontzat hartu izan da konparatisten artean, Tovar, Mitxelena, eta abarren artean, esaterako (15).

(13) RESURRECCIÓN MARÍA DE AZKUE, *Prontuario fácil para el estudio de la lengua vasca popular*, Bilbao 1917, bigarren edizioa 1932.

R. M.^a AZKUE, *Ardi galdua*, Bilbon 1918.

(14) Cfr. ALFONSO IRIGOYEN, "Ene eritzia zenbait euskaltzain eta laguntzailek firmatutako gutun urriko batzarrean tratatuko denaz eta ene erabaki proposamendua", *Euskera*, XXII (1977), 208-213 orr.

Joan, jan eta halakoak *j-* grafiaz oraingo erara ematea, Euskal Herri osoa gogoan izanik, Azkue-k bultzatu zuen, halako jokabidea hartu baitzuen hiztegi nagusirako, geroago *yoan, yan* eta abar, erabili bazituen ere euskara batuaren izenean, seguru asko euskaldunak ahoskatze zaharrera bultzatzeko asmoz, cfr. Alfonso Irigoien, "J grafiaaren problematikaz egungo eguneako egoera", *Euskera*, XXIX (1984), 595-598 orr., eta baita ere "Jota grafiaz, noiz *j* eta noiz *i?*", *De re philologica linguae uasconicae*, II, Bilbao 1987, 229-302 orr. Edozein modutan ere *Ardi galdua-n* oraindik *joan*, eta abar, *j-* grafiaz ematen ditu euskara batuaren izenean eginkiz agertzen bada ere. Gauza bera gertatzen da *Prontuario de la lengua vasca* delakoan, zeren 1917-garreneko edizioan *joan, jan*, eta abar, *j-* grafiadunak irakurtzen badira ere, 1932-garrenekoan *yoan, yan* eta abar, *y-* grekoz agertzen baitira, edizio berria zerbaikoa zuzendua izateaz gainera. Azkenengo honetan, gainera, Arana Goiri-ren bidetik zabal korritzen zuten *x* eta *tx* ere ontzat hartzent diru, eta baita, *rr* bikoitzaren ordez, egungo egunean bantzerturik dagoen *í* gangarduna ere. Aldaketok Euskaltzaindioko *Euskera* aldzikaria agertzen hasten den momentu berean egiten ditu, cfr. 1919-1920, I-ko urtea, II-n zenbakia, 1921-garrenean agertua, eta Sebero Altube-ren Euskaltzaindioko sarrera hitzaldiari Bizkaiko euskaraz, ez bestela, egin zion erantzunean ere *yoan*, eta abar, darabiltza, Altube-k ez bezala, cfr. 1920-1921, II-garren urtea, I-ko zenbakia.

Arana Goiri-k 1896-garren urtean argitaratu zuen *Lecciones de ortografía del euskera bizkaino* delakoan, *Obras completas*, 810-982 orr., Bizkaiko euskararako *j-* grafia proposatzen du, hala nola, "jauregia (el palacio)", Markina-ko eskolako autoreen arauera, baina, gainera, maiuskula denean ere goiko puntuatua ipinirik, 858 orr. Gipuzkoakorako, ordea, grafia berbera goiko punturik gabe bultzatu nahi du, bai maiuskula denean, eta bai ez denean, erdarazko *j* bezalatsuko ahoskatze guturala dela kausa, 855-857 orr.

(15) MIGUEL DE UNAMUNO, *Obras completas*, IV, *La raza y la lengua*, Madrid 1968.

Handik laster lan baliotsu bat argitara zuen *Revista de Vizcaya* delaikoan: “Del elemento alienígena en el idioma vasco”, 1886, I, n.º 8, Otsailaren 15-a, 259-269 orr., eta 1886, I, n.º 9, Martxoaren 1-a, 295-305 orr., eta ondorik “¿Vasco o basco?”, 1886, I, n.º 11, Apirilaren 1-a, 399-404 orr. (Uztailaren 1-ean, hiru hilabete geroago, Arana Goiri-k aldizkari berean “Etimologías sueltas ¿Vasco o basco?” argitara zuen, eta *Obras completas* delakoan dioenez, 31 orr., 1885-garren urteko Abenduan idatzi zuen, eta bere lehenengoetariko lana da, eta edozein modutan ere argitaratzen duen lehenengoa) (16).

Unamuno-k “Vasco o basco” delakoa argitara zuen numero berean Tomás Escriche y Mieg, Bilboko Institutuan irakasle zenak artikulo bat argitara zuen “El vascuence” tituluaren azpian, 392-398 orr., lehenengoak “Del elemento alienígena en el idioma vasco” delakoan esan zituen zenbait eritzi, mailegu delakoekin ikustekorik ez zutenak kritikatuz eta euskararen bizitzaren alde agertuz. Hala dio: “Dijérase mañana al pueblo vasco que era dueño de dejar el castellano y usar como lengua oficial y exclusiva la suya propia, y este sólo acto voluntario de un gobierno (acto más o menos político, no discuto éso) bastaría para asegurar una gran vitalidad al vascuence, a pesar del incesante roce con los forasteros. Probablemente entonces llegaría a estar de moda su cultivo y la minoría de personas acomodadas que hoy lo desprecian y hacen alarde de olvidarlo, se apresurarían a estudiarlo y recordarlo con empeño”. “Sólo una respuesta entiendo que podría dar a ésto el Sr. Unamuno: ‘no queremos’, o ‘no quieren’ si es que personalmente deseaba él sustraerse del número de los indiferentes”.

Unamuno-k hurrengo numeroan erantzun zion, Apirilaren 15-ekoan, 422-426 orr., “Más sobre el vascuence” lanarekin, eta Maiatzaren 1-ean “Algunas palabras más sobre el vascuence” delakoarekin Escriche-k, 11-20 orr. Garaitsu horretan “El Sitio”-n hiru hitzaldi egin zituen, hirugarrrena, argitara eman den bakarra, 1887-garreneko Urtarrilaren 3-an “Espíritu de la raza vasca” titulua zuela. Edozein modutan ere euskaraz eginko oso gutxi zuen Unamuno-k eta katedraren konkursoko urte berean Gernikako arbolari zuzenduriko lan labur bezain ezaguna argitara zuen gure hizkuntzan (17). Orduko giroaren adierazgarri dira lan guzti hauek.

(16) *Obras completas de Arana Goiri'ttarr Sabin (Sabino de Arana Goiri)*, Buenos Aires, 1965.

(17) Cfr. *Euskal-Erria*, XIX (1888), 299-300 orr.: “¡Agur, arbola bedeinkatube!”. Neure artikulu baten notan eman nuen osorik, cfr. Alfonso Irigoyen, “Bilbo eta euskara”, *Euskera*, XXII (1977), (33) nota, 408 orr. Ikus hemen darabiltzagun arazoez 400 orr. eta hurrenagoak ere.

Gai hauezaz ikus baita ere ene artikulu “*Gorputz eta soin hitzez eta abar*”, *Euskera*, XXI (1976), 77 orr. eta hurrengoak.

Arana Goiri-k ere bazuen prestaturik, berak dioenez, 76 orr., artikulu bat Unamuno-ren “Del elemento alienígena en el idioma vasco” lanari erantzunik, baina dirudienez ez zen argitara eman, eta ezagutu ere ez da ezagutzen. Edozein modutan ere aipaturiko Unamuno-ren lanak bere eragina izan zuen *sensu contrario*, zeren kasu batzutan Arana Goiri-k neologismoak sortu baitzituen euskaldun guztiak edo gehienek erabiltzen zitzuten eta dituzten hitz arrunten ordez, hala nola, *elexa = txadon (etxe-deun)*, 1063 orr., *zeru = donoki (deun-oki)*, 1062 orr., *pamilija = sendi (sendi)*, 1063 orr., *salbau = gaizkatu (gaitz-ga-tu)*, 1062 orr., *[arraza] = abenda (aba-enda)*, 1061 orr., *pekatari = obendi (oben-di)*, 1014 orr., *mundu = ludi (lurr-di)*, 1063 orr., *koroe = burestun (buru-estun)*, 1014 orr., eta abar, eta abar. Baina *mutatis mutandis* Larramendi-k ere halako bideak korritu izan zituen lehenago, *megope* erdarazko ‘espíritu’ adierazteko erabiltzea proposatu baitzuen (18), eta abar, eta abar, Ifarraldekoen artean XVI-garren mendeko hastapenetik beretik gertatzen ez zen erara. *Hyper* preposizio grekoaz baliatu behar baldin badugu, *hypereuskara* delakoaren iturriak denboran urrunago bilatu behar dira. Edozein modutan ere Arana Goiri-ren hitz bat edo beste problemarik gabe zabaldu izan da. Esaterako, egungo egunean *euskalki* hitza normalki erabiltzen da. Gogora ekarri behar da, ordea, Arana Goiri-k *euzkelgi* proposatu zuela, 1062 orr., eta formaren aldetik zerbait aldatu bada ere hitz berbera dela (19).

Hain zuzen ere Arana Goiri-k Azkue-ri eginiko karta autografo baten, hark egungo egunean inolako kezkarik gabe euskal hitz modura hartzen dugun *koroe / koroi* formarako *buruntzi* erabili omen baitzuen, —gorago ikusi dugunez Arana Goiri-k *burestun* du—, bere eritzia ematen dio. Karta hori Federiko Krutwig-en eskuetan dago, Azkue-k eman baitzion, eta orainarte ez da sekula argitara agertu. Berari esker osorik irakurtzen dizuet orain, jatorrizko letra begien aurrean dudala, eta kopiaturik doa ondoren:

“[En la cabecera a la izquierda hay dibujada, utilizando la pluma con que fue escrita la carta, una bicrucífera, la cual simboliza una *ikurriña*].

”Sukarrieta 28-V-900.

”Sr. D. Resurrección M.^a de Azkue, Pbro., Bilbao.

”Mi buen amigo: En el himno que ha escrito V. para la Coronación de la Virgen de Begoña y que publica *El Noticiero* de hoy, he visto

(18) Cfr. PADRE MANUEL DE LARRAMENDI, *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*, tomo bi, San Sebastián 1745.

(19) Eguzkitza euskaltzainak artikulu bat egin zuen “*Euskalki ala euskalgi?*” tituluduna Euskaltzaindia sortu eta berehala, *euskalgi* hobetzat harturik, cfr. 1919-1920, I-ko urtea, II-n zenbakia, 38-44 orr. Hala ere egungo egunean bestea korritzen du.

empleada la palabra *buruntzi* por *corona*, y advierte V. en nota ser usual dicho vocablo. Esto último, este hecho, no lo dudo desde el momento que V. lo asegura; pero bien sabe V. que no nos debe bastar el simple hecho material de usarse una voz, para aceptarla como legítima, quiero decir, como auténtica. Es preciso estudiar y saber cómo se usa y por quiénes, y aun después de ésto, examinarla en sí misma. También se usa, por ejemplo, *txismistargi* por *luz eléctrica* y aun por *electricidad* (como si ésta fuera *luz*); pero sería imperdonable admitiéramos una voz tan risible, inventada, sin duda, en algún rato de ocio y buen humor, por algún *txistulari* ó *bertsolari* aficionado á gramática é inspirado por la sidra ó el chacolí.

"El vocablo *buruntzi* ha sido indudablemente compuesto de *buru-ontzi*; pero con bien poca gracia para el pobre euzkera. Lo que *buru-ontzi* podría significar (y así y todo á *duras penas*) es el casco ó capacete guerrero. Y digo á *duras penas*, porque *ontzi* ó *untzi* siempre y esencialmente lleva expresa la idea de *recipiente*, *receptáculo*, *continente*, como *vaso* en español y *vaisseau* en francés, por lo que *ontzi* y *vaisseau* y *vaso* significan á la vez *navío* y *vasija*. De mí sé decir que nunca aceptaría como buena la voz *buru-ontzi* para significar *casco guerrero*, mucho menos *corona*, porque ni ésta ni aquél son *continentes* de la cabeza, sino todo lo contrario. Apurándolo mucho, podría pasar el término en cuestión para expresar el *cráneo* (que ya tiene su nombre y no necesita otro), que es un recipiente que pertenece á la cabeza y está en ella (*burubaren ontzi*, *buruko ontzi*); y acaso también, y apurándolo más, para significar el *cerebro* mismo, que es el vaso fisiológico de la cabeza: pero, la verdad sea dicha, ni en uno ni en otro caso sería rigurosamente aceptable el vocablo á que me refiero, porque ni el *cráneo* ni el *cerebro* contienen la *cabeza*, sino todo lo contrario: son *burubaren ontzi* y *buruko ontzi*, pero no *burudun ontzi*.

"El hallar tan consciente é inconsideradamente formado el vocablo *buruntzi*, nos puede convencer de que no es usual con el uso que hace auténticas las voces, con el uso vulgar y corriente del euzkera, uso que, como puramente inconsciente é instintivo, resulta siempre acertado en sus productos, así en lo morfológico como en lo ideológico. Seguramente, la voz *buruntzi* ha pasado de algún libro ó de algún púlpito á la parte de vulgo que lo use: y ya tratándose de invenciones, precisa someterlas á riguroso examen antes de recibirlas y registrarlas como buenas.

"Me ha movido á hacer á V. las observaciones que preceden el haber visto el vocablo *buruntzi* por *corona* en un himno que, por su letra y su música, y por el grande acontecimiento que ha de conmemorar, está llamado á extenderse por el país y hacerse popular en considerable porción del pueblo vasko [sic.]. He cumplido con mi deber de patriota al escribir á V. la presente por el bien de la lengua de mi raza, y creo

firmemente de V., hará lo que á su juicio sea más conveniente para la misma.

"Ordene V. á su amigo y servidor en Jel.

"A. eta G.'tarr Sabin.

"P.D. No tengo inconveniente dé V. á la publicidad estas líneas, si lo juzga oportuno."

Arazo hau, *burestun* edo *buruntzi*, nola esan behar den euskaraz erdarazko *corona*, ez dugu gehiago egungo egunean eztabaidatzen, *koroa* / *koroi* euskal hitz modura hartzen baitugu, jatorriz erdaratikoa bada ere. Izan ere, Unamuno-ren "Del elemento alienígena en el idioma vasco" delakoa, *mutatis mutandis*, oraingoagoa iruditzen zaigu egun. Eztabaidatzen den hitzari dagokiola geroago Azkue-k, bere 1905-1906-ko hiztegian, *buruntzi*, 'aro superior de un cesto' zentzuan bilduko du Gernika, Ipazter, Lekeitio, Markina, Ondarroa, eta Bizkaitik kanpoko Gaintza-n arrunt erabiltzen dela esanik, eta Oiartzun-en zentzu berean *buruntzaki* aldagarria. Erdarazko *corona* adierazteko "por extensión" erabili omen zuen (20).

Hiru gizon erraldoi hauen arteko harremanak edukaziozko giro baten barruan mugitzen baziren ere elkarren lehian eta bakoitzak bere leku eta zebilen eremua zaindurik ziren beti.

Unamuno geroago Salamanca-ra joango zen eta lehenengo garaietan Bilbo-rekin harreman hestuak izan bazituen ere, luzera, kilometro askotara eta beste giro baten bizi baitzen, geroago eta gehiago urrundu zen euskal munduko gauzetarik, grina zeharo aldendu ez bazitzaion ere.

Hiru pertsona handi hauek Bilborekin eta Euskal Herri osoarekin lotura sendoak izan dituzte, bertan eragin handia sorturik, eta gainera hiru gizon tiporen eredu dira, oraindik ere nolabait irauten dutenak.

(20) **Euskera** aldizkarian, II (1957), 261-393 orr., "Del epistolario de Azkue" titulupean beste karta askoren artean Sabino Arana Goiri-ren bat ere argitara eman nuen, hain zuzen ere estalkiaren barruan gordetzen zen bakarra, eta estalkian, Azkue-ren eskuz izkribaturik, omen zeudenaren berri ere bai. Bertan ematen da hemen argitaratu den kartaren berri ere: "2.^a Sukarrieta 28, V, 1900. Una larga carta y razonable acerca del vocablo *buruntzi* que significando corona introduce en mi recién publicada poesía a N.^a S.^a de Begoña", 324-325 orr.

Euzkerea aldizkarian, IX (1935), Orrilla-Bagilla, 525-527 orr., "Páginas del maestro. Temas euzkerológicos", tituluaren azpian Arana Goiri-k Azkue-ri Hendaia-ra zuzenduriko beste karta bat argitaratzen da. "Sukarrieta, 2-VI-1900" du leku eta egunaren seinalagarri. Azkue-k aurreko 31-an egin zionaren erantzuna da, hala baitio bertan. Beraz, horren arauera, goian argitara eman denari Azkue-k 31-an erantzutzen dio, eta Arana Goiri-k egun bi geroago, Hendaia-ri izkribaturik, *buruntzi* hitzaz berriz egiten dio berba, "puesto que de evolución ideológica se trata, y no de creación de formas". Azkenengoaren berririk batere ez da agertzen gorago aipatu den estalkian, eta badirudi **Euzkerea** aldizkariak argitara eman zuenaren iturria ez dela Azkue-ren artxiboa.

Horregatik joan den Abenduan hirurei Bilbon katedra honen ehungarren urteko ospakizunen inguruan monumentu bat egin behar litziaekeela proposatu nuen, eta erraturik ez baldin banabil, talde batek Udalari eskabidea egin ondoren, asmoa aurrera joan daiteke. Biz aukera hau elkarren arteko harremanen lagungarri eta orainarteko elkartu ezinen legungarri. Ailedi Euskal Herria arrazoiean oinarrituriko harreman sendoetan murgil Europako zelai zabalean gaudela, eta Krutwig-ek lehenagoan ziosstan bezala: *όμονοια*, hau da, konkordia.

Hala biz.

AZKUE VERSUS ARANA GOIRI: HITZ BERRIEZ

Bilbo, 1988-VII-1

Inés Pagola Hernández
(EHU/UPV)

En la última década del XIX y unido al despertar de las ideas nacionalistas surge en Vizcaya el movimiento purista llamado "Escuela Renacentista" que con el tiempo se extiende al resto del País Vasco transformando radicalmente la lengua escrita. Tradicionalmente, Arana Goiri ha sido considerado el responsable principal de este ideal de pureza; y Azkue, su máximo oponente. Como señaló Altube (1934) e intentaremos demostrar en el breve tiempo de que disponemos, Azkue es esencialmente tan purista como Arana Goiri.

Por una parte, los trabajos recientemente publicados por I. Laka (MIT) demuestran que la renovación en el campo de la morfología, sobre todo, verbal, fue iniciada por Azkue. Por otra, de la tesis doctoral en vías de publicación de I. Pagola se desprende que aun en el terreno del léxico, donde las diferencias entre Azkue y Arana Goiri son mayores, éstas no dejan de ser superficiales. En efecto, ambos escritores participan de la común obsesión por rehuir los términos vascos de origen extraño, obsesión que caracteriza y define al movimiento renacentista frente a la escuela purista que le precede. Lo que Azkue le reprocha a Arana Goiri es su conocimiento imperfecto del idioma, es decir, básicamente, el quebrantar las leyes fonéticas de la composición y derivación contrayendo en exceso los vocablos; y la creación innecesaria de los mismos por existir en la lengua términos equivalentes por muy remotos y arcaicos que éstos sean.

EUSKAL KATEDRAREN MENDEURRENA

Bilbo, 1988-VII-1

Pilar Valiente Lekuona
Eusko Jaurlaritzako Pedagogi
Berrikuntzarako Zuzendaria

Agintari agurgarriak, euskaltzain prestuak, jaun andreak:

Hitz bi esan nahirik natorkizue, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren izenean, gaurko ospakizun alai honetara.

Alaia baita zinez, euskaldun guziontzat, era honetako mendeurren batean elkar hartuz gure aurrekoen ekintzak goraipatu ahal izatea.

Maiztxo izan ohi dugu gehienok, zertaz kezkatu eta zertan katiatua.

Bakanago, aldiz, eguneroko lan saiatuan aurrera atera nahi genituzkeen xede eta asmoak aspaldidaniko ahalegin baten oinordeko direla gogoratzeko parada. Azken hauetakoa dugu, inondik ere, egungo eguneko hau.

Ehun urte betetzen ditu Bizkaiak, eta horrekin Euskal herri osoak, Bilboko Institutuan lehen euskal katedra sortu eta hornitu zenetik. Fruturik eman zuen, guztiok dakigunez, orduko ekintza hark. Historiak berekin ekarri dituen gora-behera, bide-aldatze eta atzera-aurrera guztiekin ere orduko erabaki hora probetxuzkoa gertatu zen euskaldun gehienon ustean.

Eta orain, ehun urte pasa ondoren, herrigintzarako aukerak zabaldu diren heinean ezker-eskuin ugaritu dira, irakasmila desberdinatan, euskal hizkuntza eta literaturaren ikasguak. Resurrección María de Azkuek eta beste hainbatek badute jarraitzailerik. Eta espero izateko da aurrentzean, hasitako bideari eutsiz, oraingo mendu berriok indartu eta ugaritu baizik ez direla egingo.

Hirurogeitar urte joan dira Julio de Urquijok Oñatin, Eusko Ikaskuntzaren lehen Biltzarrean, euskal hizkuntzaren inguruko azterlanak Herri Aginteen babespean eratu eta sendotzeko eske-erregua plazaratu zuenetik. Lan hori nagusiki Euskaltzaindiak eta, berrikitanagotik, Uniber-

tsitateak beregain daramate, eta ongi eraman ere. Ez dago ahazterik ordea gaur egungo euskal hizkuntza eta literaturaren katedradun gazte edo sasoiko asko direla, haiei lagunduz, eginkizun eder horretan burubelarri sartuak. Herri Aginte sorberriek emendiozko erantzunik emana eta ematen diote beraz, eguneroko irakaslan arruntaz gainera, orduko gutizi bizi hari.

Besterik ez, jaun-andreok. Eskerrak berriro, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren izenean, hain ekitaldi bihotz-pizgarria eratu izanagatik. Ekin aurrera, nork bere laneremuan, belaunaldi gazteen euskal hezkuntza bermatu eta aberasteko ahaleginetan, eta ez itxaropenik gal orain dela ehun urte aldaturiko zuhaitz-landare hark emango duela aurrerantzean ere, hartutako bideari sendo eusten badiogu, fruitu ugaririk.

EUSKAL KATEDRAREN MENDEURRENA

Bilbo, 1988-VII-1

José Alberto Pradera
Bizkaiko Diputatu Nagusia/
Diputado General de Bizkaia

Jaun andrek, lagunok:

Bizkaiko Ahaldun Nagusi legez, Bilboko Institutuan Euskeraren Katedra sortarazi zaneko mendeurrenako ospatzeko Euskaltzaindiak antolatu dauen eginkizun honi amaiera emotea jagokit. Eta orain arte berba egin dabenen/dozuenon hitzaldi bikainak entzun eta gero, gauza pare bat esaten itxi daidazuela eskatzen dautsuet.

Hasteko, Euskeraren Katedra lortu gurean aurkeztu ziranak ez zirala edonor, guztiotzat ezagun diran Azkue, Arana Goiri eta Unamuno baino. Hiru gizon ospetsu eta apartekoak ziran, euren arteko antzik bakoak, bata filologoa eta besteak politikoa eta filosofoa. Eurak izan ziran orduan "Probintziala" zan Bizkaiko Aldundiak sortutako Euskeraren Lehenengo Katedrari ospe ona emon eutsenak.

Eta bigarrenez, katedra barria lortzeko ahaleginak egiten ebiltzanean Resurreccion jaunaren eta Miguel jaunaren artean egon zan lehia, kondairari eta periodistak maneskeriz azaldu dauskuela beti. Unamuno beti jo da "nunahiko euskotartzat", Azkue, berriz, baserritartzat.

Nire ustez biek maite eben euskerea, baina bakoitzat bere erara. Unamunok, euskerea hildakotzat jotzen eban, eta hil osteko omena egiten eutson. Azkuek ez eban hori pentsatzen, egite-zalea zan eta euskerea berpiztuko zalakoan egoan.

Gaur egun ikusi geinkenez, Bizkaiko Aldundiak Katedra emotera-koan arrazoia izan ebala ikusi geinke orain, ehun urte igaro eta gero.

Eta Unamuno eta Jugo-tar Miguel jauna gaur egun bizirik egongo balitz, Azkue-tar Resurreccion Maria jaunak esaten ebana egia zala ikusi-ko leuke.

Dana dala, Unamunok, *Eco de Bilbao* delakoan egin barik egoan *Euskal Hiztegiari* buruz idatzi ebanean, Azkue eta beronen lana goratu ebazan. Idatzitakoa hau da: “un diccionario tal y como lo imaginamos, que sirva de punto de partida a las futuras investigaciones acerca del vascuence y ofrezca a los doctos un texto de información, no puede ser obra individual. Es tarea superior a las fuerzas medias de un hombre el ir recorriendo pueblo por pueblo y valle por valle el pueblo vasco, tanto el español como el francés, para recoger cuidadosamente el caudal de voces de que se sirven los que hablan vascuence.

Nadie desconocerá que si la obra ha de ser lo más completa posible, tiene que ser colectiva la labor de acarreo e información.”

Hori izan zan Azkuek egin ebana. Euskal Herri guztitik ibili zan, herriz herri, bera bakarrik, euskera aztertzen, erraldoien lana eginaz. Sekulako lan hori eginaz, Azkuek, ordutik hona egin diran ikerketetarako oinarriak jarri ebazan.

Gauza gehiago esan gura neukez, baina azkena emongo dautsat hitzalditxo honi barriro bere lehen berba egin dozuenei eta etorri zarenoi eskerrak emonez.

Señoras, señores, amigos:

Como Diputado General de Bizkaia, me toca poner fin a este solemne acto, tan oportunamente organizado por Euskaltzaindia para conmemorar el centenario de la creación de la Cátedra de Euskera en el Instituto de Bilbao. Y tras las magistrales intervenciones de quienes me han precedido en el uso de la palabra, os ruego me permitáis añadir algunas reflexiones personales, que necesariamente han de ser muy sencillas y breves.

En primer lugar, impresiona el hecho de que un acontecimiento tan decisivo para el porvenir del euskera quedara fijado en nuestro espacio histórico mediante tres coordenadas cartesianas con nombre propio: Azkue, Arana Goiri y Unamuno. Porque no son tres nombres cualesquiera, sino que pertenecen a otras tantas personalidades excepcionales, dispares y encontradas entre sí... que determinan, por decirlo de alguna manera, todo “el volumen” del histórico hecho, al conferir a la primera cátedra de euskera creada por la Diputación (entonces “Provincial”) de Bizkaia sus tres dimensiones esenciales: filológica, filosófica y política.

En segundo lugar, llama siempre la atención el nada sutil maniqueísmo con el que algunos historiadores y periodistas han solidado presentarnos la tensión interna que enfrentó a Don Resurrección y Don Miguel cuando ambos trataban de poner su pie en la tarima de la nueva

cátedra. Y más aún, los trascendentales dilemas biográficos que se han pretendido establecer definiendo a Unamuno como "vasco universal", mientras con la otra mano ataban al cuello de Azkue la cadena destinada a los fieles guardianes del caserío.

Siempre he pensado que la universalidad está muy lejos de significar que, por querer ser "de todos los sitios", no se es "de ninguna parte". Todo lo contrario, tanto más universal será el hombre cuanto más profundamente prendidas tenga las raíces en su propia tierra. Condición ésta que cumplieron, de forma distinta pero en grado igualmente destacado, tanto Azkue como Unamuno.

Volviendo a 1888, yo creo que ambos candidatos a la Cátedra de Euskera amaban nuestra lengua, si bien cada uno a su estilo. Y hasta me atrevería a establecer la diferencia afirmando que el amor de Unamuno tenía matices funerarios de homenaje póstumo (eso sí, con muy solemnes oficios, campanas y entierro de primera), mientras que el de Azkue alimentaba una esperanza de resurrección más realista y creativa.

Sin entrar —repito— en el juego de los maniqueísmos a que antes aludía, sí que deseo proclamar sin ambages la alegría de que, hace ahora cien años, en la balanza de aquella memorable oposición hubiera pesado más el platillo de la esperanza que el de la gloria filológica de las lenguas muertas ¿O acaso el siglo transcurrido desde entonces no ha dado la razón a la Diputación de Bizkaia?

¡De verdad me gustaría que Don Miguel de Unamuno y Jugo pudiera levantar hoy la cabeza en su tumba para que, a la vista del actual renacimiento del Euskera, decidiese por fin romper el extraño silencio en que envolvió, durante toda su vida, la personalidad de su noble contrincante, Don Resurrección María de Azkue!

Paradójicamente —todo se convierte en paradoja en las manos de nuestro Rector de Salamanca!— el mejor elogio, el más cumplido reconocimiento a la labor de Azkue, su más certera y exacta alabanza, brotó precisamente de la pluma de Unamuno. En efecto, exponiendo éste en 1893 sus ideas sobre el entonces "todavía soñado" Diccionario Vasco, escribe en un artículo publicado en el *Eco de Bilbao*: "Un diccionario tal y como lo imaginamos, que sirva de punto de partida a las futuras investigaciones acerca del vascuence y ofrezca a los doctos un texto de información, no puede ser obra individual. Es tarea superior a las fuerzas medias de un hombre el ir recorriendo pueblo por pueblo y valle por valle el pueblo vasco, tanto español como francés, para recoger cuidadosamente el caudal de voces de que se sirven los que hablan vascuence. Nadie desconocerá que si la obra ha de ser lo más completa posible, tiene que ser colectiva la labor de acarreo e información".

Como veis, se trata de una impresionante anticipación profética en la que, con sólo sustituir la palabra “colectiva” por su contrario, “solitaria”, descubrimos al humilde clérigo lekeitiarra “recorriendo pueblo por pueblo y valle por valle el pueblo vasco...” para legarnos después, como fruto de una labor “individual” de gigante, esos “puntos de partida a las futuras investigaciones” que son el *Diccionario*, la *Morfología* y el *Cancionero*, por no citar más que tres de las grandes piedras labradas que componen la peana del monumento que la gratitud de los vascos ha erigido a Azkue muy dentro del corazón.

Muchas más cosas quisiera deciros, pero debo poner fin a mis palabras, a fin de que prevalezcan en vuestra memoria las que, tan magistralmente preparadas, hemos escuchado antes, y yo ahora quiero agradecer.

Eskerrik asko, bada, danoi.

**EUSKALTZAINDIAREN
AGIRIAK**

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIA ZENBAIT EUSKAL TOPONIMOREN ORTOGRAFIAZ

Euskaltzaindiak, euskaraz hasierako *i*- eta hurrengo bokala bi silaba eginik ahoskatzen diren toponimoetan, bokal biak *-h-* baten bidez berezirik idaztea ontzat hartzen du, delako *h-a* etimologikoa ez izanik ere. Hala nola:

Ihaben, erdaraz *Yaben* ahoskatzen dena (Nafarroan).

Ihabar, erdaraz *Yabar* (Nafarroan).

Ihurre, erdaraz *Yurre* (Araban eta Gipuzkoako Olaberrian).

Ihorreta, erdaraz *Yurreta* (Bizkaian).

Hala ere *Igantzi* (Nafarroan) eta *Igorre* (Bizkaian) lehen erabaki zen bezala uzten dira.

Donostian, 1988-garreneko Urtarrilaren 29-an.

EUSKERA ALDIZKARIAREN BIR-MOLDAKETAZ

Bilbon, 1988ko Uztailaren 1ean onartua

Fr. Luis Villasante

Argitalpen-batzordeak bilera berezi bat egin zuen Donostian joan den Maiatzeko 20an. Han luze eztabaidatu zen **Euskera** aldizkariaren hobetze-arazoa eta zenbait puntu argitu ere bai. Eta batzordeño bat –Euskaltzainburuaz, buru ordeaz, P. Altunaz eta A. Irigoienez osatua– izendatu zen Euskaltzaindiari proposamen bat aurkezteko. Batzordeñoak proposamena egin zion batzarreari, eta hark, zenbait ukiturekin, onartu egin zuen. Hona, beraz, Euskaltzaindiaren agiria **Euskera** aldizkariari buruz:

1. Ontzat ematen da aldizkari horretan bi parte ondo bereiztea: I Euskaltzaindiaren bizitze eta historiari dagozkien dokumentuez osatua, II *Iker* eta *Jagon* saileko txosten eta bestelako lanez osatua. Ospakizunik ez denean, ordea, lehen partea bigarren tokian joango da eta bigarrena lehen. Bi blokeok hautsi gabe beti ere.

2. **Euskera** aldizkaria bi aldizkaritan agertzeari ez diogu ongi eritzten. Arrazoiak: a) Ezezkoaren alde agertu ziren Maiatzeko bileran hitz egin zutenak; b) Ekonomi arrazoiak. Orain ere **Euskera**-k ez du bere burua ordaintzen (arpidedun guti eta zabalkunde urria duelako) eta baten ordez bi ateratzeaz, hobetu beharrean txarreragoko bidean joango lirateke gauzak. Arpidedunak gehitzeko, on lego ke euskal filologia ikasten ari direnei eta ikasi dutenei eskutitz bat zuzentzea.

3. Aldizkari honen bi zenbaki ateratzen dira urtean, 600 bat orrialde guti gora-behera jotzen dutelarik bien artean. Ez dugu uste neurri hauek gehiegiz alda daitezkeenik, ekonomi arazoei begiratuz eta aldaketak sortuko lukeen desorekagatik.

4. Ez dugu uste, bestalde, urteko bi zenbakietatik bata Euskaltzaindiaren bizitzeari soilki eta bestea *iker* eta *jagon* saileko txostenei esklusiboki eskaínia egotea komeni den. Egokiago iruditzen zaigu lehen esandaiko partiketa zenbaki bakoitzaren barnean egitea.

5. LEF (Lexiko Erizpideen Finkapenerako) batzordearen nahiz beste edozein batzordereren lanak ez dira **Euskera** aldizkarian agertzekoak. Hala erabaki zen 1980ko Abenduaren 19an egindako batzarrean. Ikus

Euskera, 1981, 195. Hara zer esaten den han: “Batzordeen lanak e. a. argitaratzeko Iker izeneko beste argitarapen bat egitea erabaki da”. **Euskera** aldizkaria, berriz, “dagoen eran uztea onartu da”. *Jagon* saileko bilduma sortzea ere orduan erabaki zen. Eta geroago *Onomasticon Vasconiae* deritzona. *Lekukoak*, berriz, lehenagokoa da. Beraz, lan monografiko luzeak argitaratzeko, Euskaltzaindiak badu zernahi sail, **Euskera**-z kanpo.

6. LEF taldeak, berriz, Euskaltzaindiak onarturik, Beloke eta Plentziako txostenak koaderno berezi batean argitara zituen eta saldu ere ederki saldu da. Geroztik egin dira Zarautz, Leitza eta Bidarraiko jardunaldiak, eta gure batzordeñoak uste du materiale hori argitaratu egin behar dela. Eskabidea dago, gainera. Non argitaratu, ordea? Zergatik ez, lehen bezala, koadernotan? Uste bada lanok orraztapen baten beharrean direla, zergatik ez da norbait liberatzen lan hori egiteko? Argitaratzea gahiegi luzatzeari ez deritzogu ongi.

7. Berdin iruditzen zaigu egin behar dela beste batzorde edo taldeen lan luze edo desoreka sortzen dutenekin, aidibidez Atlaseko inkestak, Juan Carlos Guerraren katalogoa edo lan monografiko luzeegiak. Horiek **Euskera**-rako ez dira on, eta beste nonbait behar dira atera.

8. Ez da onartzen, printzipioz behintzat, behin-behineko lanak, ongi onduak ez daudenak, **Euskera**-ra ekartzea, gero, bigarren orraztapen bat egin ondoren, beste nonbait hobetuak agertzeko asmoz.

9. Uste dugu Euskaltzaindiaren bizitzeari dagozkien dokumentuez gainera, Euskaltzaindiko batzarreetan irakurritako lanez hornitua agertu behar duela batez ere **Euskera**-k. Hau izan da aldizkari honen tradizioa. Euskaltzaineik batzarrera ekarritako lanen urritasuna ikusirik, Maiatzeko 20an egindako bileran neurri berri bat hartu zen, hots: euskaltzainei, deituren ordena segituz, txostenak batzarrerako eskatzea, eta euskaltzain-buruak eskutitz bat egin du hori jakinaraziz. Uste dugu neurri berri honekin zerbait hobetuko dela, bai gure batzarreen eta bai **Euskera**-ren maila edo kalitatea ere. Batzarrean lan bat irakurri izanak, beste gabe, ez du eskubide ematen **Euskera**-n ager dadin, ordea. Dudazko kasuetan Argitalpen-batzordeak izango du azken hitza.

10. Labur bilduz, eta bukatzeko, **Euskera** aldizkariaren zenbaki arruntak honela sailkatuko dira:

I. Lehen partea: Euskaltzaindiaren bizitze edo historiari dagozkien dokumentuak:

- Sarrera edo ospakizunak.
- Euskaltzaindiaren agiriak.
- Berriak.
- Hil-berriak.

II. Txostenak eta beste lanak (*Iker* edo *Jagon* sailekoak), gaien arabera sailkatuak:

- Linguistika.
- Onomastika.
- Literatura.
- Hiztegigintza.
- Gramatika.
- Atlas, etab.
- Liburu en aipamenak.

EUSKALTZAIN OSOEI BATZARRERAKO TXOSTENAK ESKATUZ

1988, *Ekainak 28*

Euskaltzain jaun agurgarria:

Euskaltzaindiko Argitalpen-batzordeak bilera berezi bat egin zuen Donostian joan den Maiatzaren 20an. Bileraren helburua zen **Euskera** aldizkariaren egoera aztertu eta egoera hori hobetzeko agian beharko ziren aldakuntzez gogoeta egin.

Garbi ikusi zen han, alde batetik, **Euskera** aldizkariak maila-beheititze bat jasan duela *iker-saileko* lanen urritasunagatik; eta, bestetik, gaitz horren erroa zera zela: Euskaltzaindiaren arratsaldeko batzarrean sail horretako lan gutiegi egotea. **Euskera**, Euskaltzaindiaren agerkaria izanik, eta beronen azpi-titulua “Euskaltzaindiaren lan eta agiriak” delarik, badi-rudi hileroko batzarrean irakurritako lanek behar diotela eman —neurri batean— kalitate eta duintasun hori, bai Euskaltzaindiko batzarreari eta bai **Euskera** aldizkariari ere. Hori kontutan izanik, erabaki bezalako bat hartu zen han: alfabetoaren ordenari jarraikiz, *iker-saileko* txosten bana eskatuko zitzaiela euskaltzainei arratsaldeko batzarrean aurkezteko. Alfabetoko ordenaren arabera, Altuna jauna da aurrenengoa, eta bera izango da, noski, aldi berri honi hasiera emango diona. Idazkari-ordea arduratuko da lana batzarrean aurkeztu behar duenari garaiz abisu emateaz. Txosten laburrak izango dira, euskara eta euskal gramatikari buruz.

Guzti honen berri Maiatzaren 27ko batzarrean eman genuen arren, iruditu zaigu egoki izango zela berariazko eskutitz bat egitea, denok jakitun ipintzeko. Euskaltzain jaun horri eskatzen dizugu, bada, ez diezaguzula zeure lankidetasuna uka, Euskaltzaindiko batzarrearen eta **Euskera** aldizkariaren maila hobetzeko da eta. Honenbestez, har ezazu ene estimazioaren agiri zintzoa.

Fr. Luis Villasante

EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK

1988-I-29

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioaren jauregian, 1988ko urtarrilaren 29an egin du Euskaltzaindiak osoen hileroko batzarrea. Goizeko hamar t'erdietarako iragaria egon arren, jauregi barruan lehergailuren bat zegoelako mehatxuagatik hamaika t'erdietan hasi da bilkura. Etorri dira: L. Villasante euskaltzainburua, J. Haritschelhar buruordea, P. Charritton, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, J. M. Lekuona, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta P. Zabaleta, euskaltzainak. Bertan egon da J. L. Lizundia idazkariorde urgazlea ere.

P. Altuna, X. Diharce, E. Erkiaga, J. Gorostiaga, A. M. Labayen eta A. Zavalak jaunek ezin etorria adierazi dute.

Abenduko agiria onartu da.

J. M. Lekuona euskaltzain berriari ongi etorria emanez hasi du euskaltzainburuak batzarrea.

Mitxelena zenaren aulkia hornitzea

Eguneko lehen gaia L. Mitxelena zenaren hutsunea betetzea denez, Araudiak prozedurari buruz dioena irakurri du idazkariak. Hamabost euskaltzain bertan bildutakoez landara, sei izan dira beren botua idazkiz igorri dutenak: E. Erkiaga, J. Gorostiaga, Iratzeder eta A. Labaienek, L. Villasante jaunari. P. Altunak J. San Martini eta A. Zavalak, J. M. Satrustegiri. Orohar, hogeita bat lagunek parte hartu dute bozketa. Une honetan euskaltzainen kopurua hogeitabikoa delarik, hamabi botu behar dira hautesleen gehiengo nagusia lortzeko.

Besterik gabe bozketa egin da, hautagaiak J. L. Alvarez Enparantzak eta I. Sarasola direlarik. Lehen itzulian erabaki da arazoak eta ondore hau izan du: I. Sarasolak 15 txartel, J. L. Alvarez Enparantzak 5, eta zuri bat. Ibon Sarasola da, beraz, euskaltzain berria.

Toponimiaz

Onomastika batzordean sorturiko erabakigai bat aurkeztu du A. Irigoyenek. Hitz hasierako *i*- eta hurrengo bokala bi silaba eginik ahoskatzen diren topónimoetan, alegia, bokal biak *-h*- baten bidez berezirik idaztea, nahiz eta *h-a* etimo-

logikoa ez izan. Adibidez, *Ihabar eta Ihaben*, Nafaroan; *Ihorreta*, Bizkaian; *Ihurre*, Araba eta Gipuzkoan. *Igantzi* Nafarroan eta *Igorre* Bizkaian, lehen erabakitako moduan uzten dira.

Horrela onartu du batzarreak.

Abenduan A. Irigoyenek zabaldutako izen geografiko arrunten zerrrenda eta urtarriko eraskina aipatu dira gero. Asmo horrek hitzen bilketa sakonago bat merezi duela eta, bakoitzak bere oharrak igortzea eskatu zaie batzartuei.

“Kanpaina 88” delakoa

Urtarriko batzarrera azken orduan iritsita mahai gainean zen “Kanpaina 88” delakoaren eskaria luzaz eztabaидatu da gaurkoan. Ikastolen Federakundeak EKBrekin batera azaldutako helburuak bi dira: UNESCO eta Strasburgeko erakundee bidez ikastolen egoera nazioartean agertzea, batetik; eta Euskal Herri mailan burutu gogo den zabalkunde haundiko ekintzarekin Nafarroa eta mugaz handiko ikastolentzat diru laguntza mamitsu bat lortzea, bestetik.

Alde eta aurkako arrazoia entzun ondoren eta gehiengoaren iritziai jarraituz, Euskaltzaindiak ez du erantzunik ematen, gauza batzutan ados baitago eta beste batzutan ez.

Bestelako gaiak

Yon Etxaide urgazlearen gutun bat jaso da *La Cruz-en* bilduma “Azkue Biblioteka”rako eskaитzen eta, denbora berean, argitaratu dituen liburuen originalak ere bertan jasotzea gogo lukeela, aditzera ematen. Atseginez entzun da berria eta horrela jakineraziko zaio berari.

J. Haritschelhar-ek hilarri buru errondadunek eraman ohi dituzten gurutze eta bestelako marra batzuren izen teknikoak aurkeztu ditu, berorien euskal itzulpena norbaitek ekar dezan eskatuz.

Bilboko “Círculo Vasco” elkargoak datorren martxorako eskuartean duen Barcelonako astealdian euskal liburuen erakusketa bat egin nahi lukeela, aditzera eman du, beroren ardura Euskaltzaindiak har dezan eskatuz. J. A. Aranarekin mintza daitezela, erantzungo zaie. Onartu da eskaria.

Aurtengo “Príncipe de Asturias” sarirako aurkeztu nahi den J. M. Barandiaran euskaltzainaren aldeko babesa eskatzen duen gutuna hartu da arduradunengandik. Zalantzak gabe bultzatzen du batzarreak aurkezpena.

“Euskal Letratako Merezimenduzko Saria” emango duen epaimahairako ordezkarria izendatzea eskatzen du Josu Legarreta, Euskara-arazoetarako zuzendariak. J. M. Lekuona joango da.

1987an batzarreetara joandako euskaltzainen zerrenda zabaldu du J. L. Lizundiak.

Bilboko Plaza Barriko egoitzaren aurre-proiektua burutu eta aurtengo aurrekontuetan sartu dela, aditzera eman du idazkariordeak.

Eta besterik gabe amaitu da goizeko batzarrea.

2. Batzarrea

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioaren batzar-aretoan, 1988.eko Urtarriaren 29an, egin du Euskaltzaindiak hileroko bere 2. batzarrea. Arratsaldeko 3 t'erdietan bildu dira, lehenengo batzar-agirian agertzen direnez gain, beste hauek: P. Altuna, euskaltzain osoa; J. A. Arana Martija, J. M. Aranalde, M. Atxaga, R. Badiola, Y. Etxaide, J. Garmendia Larrañaga, J. M. Iriondo, M. P. Lasarte, L. M. Mujika, I. Sarasola, J. I. Telletxea, A. Zatarain eta J. J. Zearreta, urgazleak.

Piarres Larzabalen hilberria. Euskaltzainburuak, Piarres Larzabal euskaltzainaren hilberria ematen du, eta ondoren bezala, Euskaltzaindian hutsarte bat gertatu dela adierazten du, Arautegiaren 33, 34 eta 35 artikuluen arabera. Hutsunea betetzeko proposamenen aurkezpen epea irekitzat ematen duelarik.

Emile Larre jaunak egiten du euskaltzain zenu berriaren nekrologi-txostena, haren bitzta eta lanen zehatzasunak eskainiz.

Goizeko bilkuraren berri. J. M. Satrustegi Idazkariak ematen du goizeko bilkuraren kontu, xehetasun nagusiak azpimarratuz.

Dagozkien batzordeen azalpena. P. Altuna, Gramatika batzordeburuak eta J. L. Lizundia, Onomastika batzorde idazkariak, batzorde bien azken lanen azalpena ematen dute.

Gipuzkoako euskal toponimiazko materialek. Luis M. Mujika jaunak ematen du gai honetaz txostena. 110.000 toki izen bildu ditu Probintzia osoan zehar, bere ustez euskararen lekuko hau zaharrena, ugariena eta iraunkorrena delarik.

Jarraian, txostenaren edukinaz eztabaidea interesgarria sortzen da.

Euskaltzaindiaren sorrera Karmelo Etxegarairen gutunetan. Jose Ignacio Telletxea Idigoras jaunak, Karmelo Etxegarai euskaltzain izan zenaren gutunerian Akademiaren sorreraz aurkitu dituen aipamen eta xehetasunen berri ematen du.

Telletxea Idigoras jaunari Euskaltzainburuak eskerrak ematen dizkio euskaltzain urgazle bezala bere lehen txostena dela eta.

Atera berri diren liburuak. R. Badiola, Argitarapenen Eragileak Euskaltzaindiak kaleratu berri dituen liburuen agerpena egiten du: 1. *Euskera 1987, I;* 2. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak II.* Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeak paraturiko lana; 3. *Euskararen Lekukoak 14: Cristaubaren icasbidea edo doctrina cristiania,* Fr. Luis Villasante, Euskaltzainburuak prestaturiko edizio kritikoa.

"XENPELAR" sariak banatzea. Azkenik, "XENPELAR" bertso paper lehiaketako irabazleei banatu zaizkie sariak. Lehen saria Joseba A. Santxo Uriarte getxoztarrak "Olgeta magikoa" izeneko lanagatik jaso du eta Joxe Aierbe Iraola donostiarrak eskuratu ditu bigarren eta hirugarren sariak "Txekor zazpikia" eta "Nire irratitxoa" bertsoengatik.

Eta honekin amaitutxat ematen da batzarrea.

*Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua*

*Jose M. Satrustegi
Idazkaria*

1988-II-26

Donostian Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1988ko otsailaren 26an egin du Euskaltzaindiak osoen hileroko bilera. Elurrik bideetan sortutako arazoengatik hamaika terdieten hasi da batzarrea deian iragarri baino ordu bat beranduago. Etorri dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, P. Charrington, J. L. Davant, A. Irigoyen, F. Krutwig, E. Larre, J. M. Lekuona, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola eta J. M. Satrustegi euskaltzainak, J. M. Jimeno Jurio Onomastika batzordeko eta J. L. Lizundia idazkariordea, urgazleak.

X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, E. Knörr eta P. Zabaletak, ezin etorria adierazi dute.

I. Sarasola euskaltzain berriari ongietorria eman dio euskaltzainburuak.

Urtarrileko batzar-agiria onartu da.

Nafarroako Herri Izendegia

Nafarroako Gobernuak euskal eremuko herrien izenak aurkeztu ditu J. M. Jimeno Jurio urgazleak Onomastika batzordearen izenean. Honako bailara hauek sartzen dira zerrendan: Aezkoa, Erroibar, Esteribar. Bidasoaldean: Baztan, Bertizarana, Bortziariak eta Malerreka. Anue, Araitz, Basaburua, Imotz, Larraun, Ultzama, Arakil, Aranatz eta Burunda. Idatzita aurkeztu diren eritziai hiru izan dira: "Leku izenen euskarazko formak Nafarroan", A. Irigoyenena; "-S eta -Z bukaerak herrien izenetan", Patxi Salaberrik bidalia; eta "Leku izenen formak Baztanen", P. Salaburuk dakarrena.

Banan-banan ikusi dira izen guziak eta egindako oharrekin onartu da batzordearen lana. Nafarroako Gobernuari igortzeko epea otsailaren azken egunean amaitzen denez, onarpenaren berri emango zaie bihar bertan agintariei eta ondo-ko egunetan, azken orrasketa egin bezain laster, eramango zaie zerrenda bera.

Eskuarteko gaiak

Datorren hileko batzarrea Bidarrain izango da Oxobi zenaren mendeurrenkerri. Hori dela-eta egin gogo diren Jardunaldien egutegiaz mintzatu da J. L. Lizundia. Martxoaren 25 arratsaldean egin daituke euskaltzainen bilera Hotel Noblian, azken ostiraletako ohiturari jarraituz. Egun horretan hasiko dira Jardunaldiak eta larunbatean amaitu. J. Haritschelhar mintzatu da gero igandeak 27ko emanaldiez. Nola nahi ere, deiarekin batera emango dira azken zehaztasunak.

Izen geografikoak. A. Irigoyen jaunak prestatutako txostenari ohar bat edo beste egin dio euskaltzainburuak lantxo baten bidez. Bat bateko beste aipamen batzu ere agertu dira. Orohar, bilketa zabal baten beharra ikusi da, ahal den neurrian tradiziozko hiztegi guzia biltzeko.

Bilboko euskal Katedraren mendeurrenra dela-eta, orduko hiru partaide ospetsuenei monumenturen bat egiteko eskaria Bilboko Udalari proposatzea, aholkatzten du A. Irigoyenek. Katedra bera berreskuratzea izan behar lukeela Euskal-

tzaindiaren eskaria, uste du P. Charritonek, Azkueren izena emanet. San Martinek, bestalde, Parragak Azkueri egindako erretratua biltzea izan daitekeela orioigarri hoherena, esan du.

Ikuspegি oso desberdinak agertu dira proposamen horien eztabaidea luze eta etsigarran. Azkenean, mugaturik gelditu da jestioen helburua: Bizkaiko Diputazioari, bere patrimoniorako Azkueren erretratua eros dezan eskatuko zaio, Plaza Barriko egoitzan uzteko. J. A. Arana, A. Irigoyen, F. Krutwig eta J. L. Lizundia izendatu dira horretaz arduratzeko. Beste puntuetan ez da sartzen Euskaltzaindia. Norberak ikusiko du bere aldetik arduradunekin mintzatu ala ez.

Gernika-Lumoko Udalaren gutuna jaso da, bertako Euskal Jaiak egin zireneko ehunurteburua dela-eta antolatu nahi diren ospakizunei buruz harremanetan egoteko arduradun edo ordezkarri bat izendatzeko eskatzen. J. A. Etxebarriak egingo du bitartekotza.

Spainiako Hizkuntzen Itzultzaire Profesionalen elkargoak (APETI), datorren apirilaren 14,15 eta 16an Madrilen egitekoak diren Jardunaldien berri ematen du bertarako ordezkarrien bat izendatzeko eskariarekin. Xabier Mendigurenen izena eman da.

Igorreko Udalak itzulpen lanbiderako konkurtso deialdia iragarri duenez, epai-mahairako ordezkarri bat eskatzen du. A. Irigoyen izendatu da, I. Atutxa ordezkoa izango duelarik.

J. A. Aranak dio, Portugalete eta Errenterian Kartografia Erakusketa antolatzeko eskaria jaso dela eta Euskaltzaindiaren erabakia nahi lukeela. Erakusketa lanak behar duen denbora kontuan izanik ez da komeni sarritan egitea, baina hogeimila biztanlegotik gorako herriean merezi duela, esan da. Portugalete eta Errenterian antola daitezke beraz erakusketa horiek.

Azkenean, 1987ko diru kontuen txostena banatu zaie euskaltzainei.

Eta besterik gabe amaitu da euskaltzainen goizeko batzarrea.

* * *

2. Batzarrea

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioaren batzar aretoan, 1988.eko Otsailaren 26an, arratsaldeko 3 t'erdietan, egin du Euskaltzaindiak hileroko bere 2. batzarrea. Bildu dira, aurreko batzarrean agertzen direnez gain, beste urgazle hauek: P. Arregi, M. Atxaga, R. Badiola, J. Etxaide, J. M. Etxebarria, J. Garmendia Larrañaga, M.^a P. Lasarte, A. Zatarain eta J. J. Zearreta.

Goizeko bilkuraren berri. J. M. Satrustegi idazkariak, ematen du goizeko bilkuraren kontu, punturik garrantzitsuenak zehaztuz.

Batzordeen azalpenean gai nagusia, Onomastika batzordeak aurkeztu dituen Nafarroako Herri Izendegiaren lehen lau zerrendak goizeko bilkuran birrestea izan da.

Luis Mitxelena zenak *stress and pitch* tituluarekin hasitako langaiaz segida izeneko txostena eman du Maite Etxenike andereak. Ingelesez jarritako titulu

horretan, Mitxelenak utzitako paperen azterketa egin du txostengileak. Txillarde-giren euskal azentuari buruzko proposamen erizpideak ez omen zituen hain garbi ikusten, batasunerako arauak eman ahal izateko. Jarraian irekitzen den elkarritzetan, A. Irigoyen eta P. Altunak beren iritzia ematen dituzte eta arau hestuegiak ez ematearen alde agertzen dira. Dena dela, beraien ustetan, Euskaltzaindiak ikerketak egiten jarraitu behar du.

“Gu bagoaz” - “baita ni”? ala “ni ere bai”? izeneko txostena irakurtzen du Anbrosio Zatarain jaunak. Bertan, gaur eguneko hizkuntzaren zenbait akats salatzen ditu, batez ere, telebistako zenbait esaldi oker nabarmenduz.

Eta honekin, amaitutatzat ematen da arratsaldeko batzarrea.

*Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua*

*Jose M. Satrustegi
Idazkaria*

1988-III-25

Bidarraiko Noblia Bentan, 1988ko martxoaren 25ean, arratsaldeko ordubi t'erdietan bildu dira euskaltzain osoak hileroko batzarrea egiteko. Etorri dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, J. San Martin diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, E. Larre, J. M. Lekuona eta P. Salaburu, euskaltzainak, J. L. Lizundia urgazlea eta idazkariordea, hala nola Anton Agirrecoitia eta Eduardo de Felipe arkitektoak Plaza Barriko proiektuari dagokionean.

Ezin etorria adierazi dute, X. Diharce, F. Krutwig, F. Ondarra eta I. Sarasolak.

Ohi den eran hasi da batzarrea.

Otsaileko batzar-agiria onartu da.

Euskaltzaingaiaren proposamena

Piarres Larzabal euskaltzain ohiaren hutsunea betetzeko, arauzko epearen barruan aurkeztutako hautagai bakarra Txomin Peillen jauna izan da. Proposamen hau, P. Charritton, J. L. Davant, J. Haritschelhar, J. Hiriart-Urruty eta E. Larre euskaltzainek izenpetu dute. P. Charritton jaunak egin du irakasle xuberotarraren aipamena. Apirileko batzarrean egingo da bozketa.

Plaza Barriko egoitza

A. Irigoyen mintzatu da lehenik, F. Krutwig etorri ezinaren eta bere izenean. Behar orduan haren botua emateko baimena ere azaldu du. Orain arteko gestioen laburpena egin ondoren, aurreko proiektuaren aldeko arrazoia ematen ahalegindu da.

J. San Martin diruzainak, bere aldetik, etxea barnetik erabat hustu beharra denez, aurreko egoeran ezinezkoa zen birmoldaketa egin daitekeela, esan du. Proposamen berriaren gakoa biblioteka hirugarren solairura aldatzean datza. Batzuen eta besteentzat ematen ahal izan da, hala nola Anton Agirrecoitia eta Eduardo de Felipe

arkitektoei deitu ziae, Diputazioaren nahiz Euskaltzaindiaren eskariz Bilboko proiektuaren egileak baitira.

Eduardo de Felipek aurreko projektua egiteko kontuan eduki zituzten helburu eta ikuspegi teknikoak aipatu ditu. Lehen solairua da, noski, barne nagusia eta bertan ikusten zuten Euskaltzaindiaren lehen mailako eginkizunen kokalekua. Beherean biblioteka.

Galdeerei erantzunez, plangintza berrian, barnea hustu eta berria egitean alegia, solairu guziak edozein baliabidetza gai izango direla garbi gelditu da. Euren aldetik, gehiegizko luzapenik gabe egin daitezkeela eskatzen diren aldaketak, esan dute. Baino, Aste Santua amaitu bezain laster nahi dute erabakia ezagutu, eta elkarren arteko hartu-emanetarako Euskaltzaindiak berariaz izendaturiko ordezkariak, “interlocutores válidos” beraien hitzez esateko, beharrezkoak ikusten dituzte.

Lauak et'erdi inguruan atera dira arkitektoak batzar gelatik, eta atsedenaldi labur baten ondoren jarraitu du euskaltzainen arteko eztabaidak. Era askotako proposamen eta iritzi desberdinaren ondoren, bi aukera gailendu dira beste guzien gain. I. proposamena: Bigarren eta hirugarren solairuak bibliotekatzat uztea, bertan joango direlarik arduradunen bulegoak. Teilitu azpiko ganbara gordailu izan daiteke. Ohorezko delako lehen solairuan eta entreplantan Euskaltzaindiaren batzargela eta bulego nagusiak. Arkupeko eskaratzean, sarrera mailako barnean alegia, eskuarteko irakurgaien gela eta erakusketa nahiz hitzaldien aretoa ezar daitezke.

II. proposamena: lehen solairuan eta entreplanta delako azpiestaian biblioteca ezartzea proposatzen da nagusiki. Bigarren solairua litzateke estai nagusia Euskaltzaindiaren zerbitzurik beharrezkoenak ipintzeko; eta hirugarren solairuan bulegoak joango lirateke.

A. Irigoyenek aditzera eman du aurrez prestatutako projektua ikusten duela hoberena. Hala ere, dagoen-dagoenean aurrera ateratzerik ez balego, bigarrenaren alde dagoela.

Iritzi bien arteko bozketa, lehen proposamenak 8 botu atera ditu; bigarrenak 4, eta zuri bat. Biblioteka gaineko partean ezartzea proposatzen duen aukera onartu da beraz. Arkitektoen ustez arazo teknikorik balego, azken hitza euskaltzainburuak izango du.

Erabaki hau arkitektoei azaltzen joateko, A. Irigoyen eta P. Salaburu izendatu dira.

Ohorezko izendapena

Mugaz handiko euskaltzainen eskariz, Jean Pierre Iratchet euskal idazle bidarraitarra, aho batez euskaltzain ohorezko izendatua izan da.

Eskuartekoak

Batzarrea asko luzatu denez, A. Irigoyenek izen geografikoei buruz prestatutako txostenaren onarpena datorren batzarrerako utzi da.

J. M. Satrustegik dio, Nafarroako Gobernuak Euskaltzaindiari eskatutako *Herri izenen zerrenda*, azken batzarrean onartutako moduan eman zaiola J. M. Romera, "Principe de Viana" elkargoko zuzendaria. Aurkezpen ofizialen bat egin behar ote den aipatu du.

Era berean, Bonaparteren bilduma osoa mikrofilmatzeaz egindako eskariari buruz, erantzunaren zain daudela Nafarroako artxiboan, esan du idazkariak.

Lexikologi Jardunaldiak

Goizean hasi dira etxe honetan bertan "Lexikologi Erizpideak Finkatzeko VIII. Jardunaldiak". Hitz elkartuei buruzko bosgarrenak dira. Batzarreko denboran lanean jarduten dute arduradunek eta bihar emango zaie Jardunaldi hauei bukaera. Igandean egingo da Oxobi zenaren mendeurrenarki Euskaltzaindiaren batzar irekia "Artetxea" trinketean.

Eta besterik gabe amaitutzat eman da euskaltzain osoen batzarrea.

OXOBiren mendeurrenaren batzar irekia 1988-III-27

Martxoaren 27an, goizeko 12etan, Bidarraiko Artetxea trinketean, Oxbiren mendeurrenenaren ospatzeko, bildu dira: L. Villasante euskaltzainburua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, P. Charriton, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, E. Knörr, E. Larre eta J. San Martin, euskaltzainak; X. Arbelbide, R. Badiola, R. Kanblong, D. Landart, Tx. Peillen, Ch. Videgain eta J. J. Zearreta, urgazleak.

Lehenik mintzatu da Arrabit jauna, Bidarraiko auzapez ordea, agurrak eginez Euskaltzaindiari. Pozik hartzen duela Euskaltzaindia Bidarraira etortza ospakizun horren egiteko, esan du.

Gero mintzatu da Aita Villasante euskaltzainburua, Oxobi eta Bidarrain sortu diren euskaltzaleak goraipatuz.

Ondotik, J. Haritschelhar buru-ordeak, Oxobi olerkariari buruz azaldu du bere txostena.

Jarraian, mintzatu da P. Charriton euskaltzain jauna, Bidarraiko herrian izan diren euskal idazleak aipatuz.

Azkenik Luberraga jaunak, Euskaltzleen Biltzarraren lehendakari berriak, aipatu ditu elkartea horrek dituen xedeak, aurten parte hartu nahi zuela bai Oxbiren mendeurreneneko ospakizunetan eta bai datorren irailean Dassance euskaltzain ohiari buruz Uztaritzen eginen direnetan.

Ordu bat et'erdieta bukatutzzat eman du bilera Aita Villasante euskaltzainburuak.

*Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua*

*Jose M. Satrustegi
Idazkaria*

1988-IV-29

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioaren jauregian, 1988ko apirilaren 29an egin du Euskaltzaindiak hileroko bere batzarrea. Goizeko hamar t'erdietan osokoen bilkuran egon dira: L. Villasante burua, P. Altuna, P. Charritton, J. L. Dabant, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, J. M. Lekuona, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola, J. M. Satrustegi eta P. Zabaleta euskaltzainak; J. L. Lizundia idazkariorde urgazlea, J. M. Satrustegi idazkari dela.

X. Diharce, J. Haritschelhar eta J. Hiriart –Urruty jaunek ezin etorria adierazi dute.

A. Irigoyen jaunak egindako ohar bat eztabaidatu ondoren onartu da apirileko batzar-agiria.

Euskaltzain izendapena

P. Larzabal euskaltzain ohiaren hutsunea betetzeko, Txomin Peillen izan zen epe barruan aurkeztua, bera delarik hautagai bakarra. Bozketa aurretik, prozedurari dagozkion Arautegi eta Barne-erregeletako artikuluak irakurri ditu idazkariak.

F. Krutwig jaunak dio, hautagaia ez dela zentduaren euskalki berekoa eta joera hau beste batzutan ere zilegitzat har dadin proposatzen duela berak. R. Lafon zenaren egoera berdintsuan aurkitzen dela, erantzun zaio, atzerrian sortu baitzen Peillen ere eta ez duenez zuberotarrez idazten.

Bertan dauden hamabost euskaltzainez bestalde, X. Diharcek euskaltzainburuari bidali dio bere ahala; J. Haritschelhar eta J. Hiriart-Urrutik, aldiz, P. Charrittoni eureka. Hemezortzi bozkatzaila dira beraz, hamabi boza behar direlarik arauzko gehiengo nagusia lortzeko.

Lehen bozketa erabaki da izendapena, 13 txartel hautagaiaren aldekoak izan direlarik, eta bost zuri. Txomin Peillen da, beraz, euskaltzain berria.

Geografi izen arruntak

Lehen ekarritako zerrendari beste izen multzo batzu gehitu zaizkiola aditzera eman du A. Irigoyenek. Bertan sortutako eztabaidan ohar asko eta beste izen batzu atera direnez, bakoitzak idatzita aurkeztea eskatu du arduradunak. Lan baliotsua izan arren, gaztelania bakarrik hartu dela eredutzat, dio I. Sarasolak. Lanaren aurrehistoria aipatuz, mapak egiteko erdal hitzen euskaratzea izan zela lehen helburua, esan du Irigoyenek. Hala eta guztiz ere ez legokeela eragozpenik, argitaratu nahi balitz, zerrenda alderantziz burutzeko. Datorren batzarrerako sartuko dira zerrendan azken orduko hitz hauetakoak.

Onarpenari buruz, irekirkik dagoen gidamoduko lan baliagarritzat ematen dio bere oneritzia Euskaltzaindiak.

Izendapenak

Madrilgo Kultura Ministeritzatik gutun bat jaso zen martxoko batzarre ondoren, zenbait izendapen egiteko presarekin eskatuz. Zuzendaritzan ikusi genuen

eta eman ziren izen batzu, hala nola: "Letras Españolas" sariaren epaimahairako, J. M. Satrustegi. Literatura sarirako I. Sarasola, eta Itzultzale sarirako E. Knörr. Bakoitzak izendapena onartu ondoren erantzun zitzaion gutunari.

Bizkaiko Batzar Nagusietatik itzultzale bat hautatzeko epaimahairako ordezkarri bat eskatzen dute. A. Irigoyen izendatu da, R. Badiola ondoko dela.

Izendapenekin jarraituz, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailetik euskarazko literatur lanak sortarazteko dirulaguntzak emango dituen batzorderako ordezkarria izendatzea eskatzen dute. Era berean, beste gutun baten bidez, bekak, laguntzak eta bidaiarako laguntzak banatuko dituen mahairako beste ordezkarri bat eskatzen da. P. Altuna arduratu da bietaz.

Eskuartekoak

Datorren irailean Pekinen egingo den liburu erakusketarako gure argitalpenetakoaren bat aurkezteko eskaintza jaso da Madrilgo Kultura Ministeritzatik.

Bilboko egoitza berria dela eta Bidarrain hartutako erabakiei buruz gutun bat aurkeztu du A. Irigoyenek, E. Erkiaga, J. Gorostiaga eta F. Krutwig-ekin batera izenpetua. Euskaltzainburuak irakurri ondoren eta iritzi batzu ikusita idazki hori euskaltzainburuaren esku uztea erabaki du aurkezleak.

A. Zorrillaren eskari bat jaso da telefono eta telekomunikabideetako hiztegi batentzat babesia, kontseilua eta zuzendaritza eskatzen. Hiztegi teknikoa denez ez da zuzenean Euskaltzaindiaren egitekoa. Beste batzutan egin izan den moduan, hizkuntzaren aldetik bere eritzia eta azken begiratua eman ditzake. Bestalde, euskaltzainburu izan zen Inazio M. Etxaide jaunaren *Telefonoa sortze eta aurrerapena* (1929) lana kontuan edukitza gomendatuko zaio.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

* * *

2. Batzarrea

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioaren batzar-aretoan, 1988.eko apirilaren 29an, egin du Euskaltzaindiak hileroko bere 2. batzarrea. Arratsaldeko 3 t'erdietan bildu dira, lehenengo batzar agirian agertzen direnez gain, beste hauek: J. M. Leizaola, ohorezkoa; J. A. Arana Martija, J. A. Arkotxa, M. Atxaga. R. Badiola, J. Etxaide, J. M. Etxebarria, J. Garmendia Larrañaga, X. Kintana, J. A. Loidi, X. Videgain eta J. J. Zearreta, urgazleak.

Goizeko bilkuraren berri. J. M. Satrustegi Idazkariak ematen du goizeko bilkuraren kontu, xehetasun nagusiak azpimarratuz.

Euskal Herriko Atlas Linguistikoaren azalpena. Gotzon Aurrekoetxea jaunak 1987an Atlasgintzan egindako lanen azalpena egiten du. Hiru puntu azpimarra daitezke bere txostenean: lehena, inkestagintzaren kalitateaz egindako egiaztapenak homogenitatea neurteko; bigarrena, informatizapenaz, kanpoko arazo batzurenagatik atzeratu dena, CNRS-ekiko erdizkako harremanengatik, hain zuzen; eta hirugarrena, artxibaketa dela eta egindako edo egingo diren lanak gordetzea eta honekin lotuta Euskaltzaindiari euskal fonoteka martxan jartzea eskatzen zaiolarik.

Bildutako zenbaitek gai honi buruzko erizpide batzu agertzen dituzte. Elkarritzeta labur bat ere sortzen da.

Testamentu irekirako ereduaren bidean izeneko txostena irakurtzen du Andres Urrutia jaunak, Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Kontseiluko kide eta Ondarroako notari den Jaun honek, euskarak zer gora-behera izan dituen Notariatzan eta Erregistro alorretan azaldu du, Araudi Notariala, Euskal Komunitate Autonomoko Euskararen Erabilpenerako Oinarrizko Legea, Nafarroako “Ley Foral del Vascuence” eta 1973.eko Konpilazioa zehazten ditu. Amaitzeko “Testamentu ireki” baten formulaziorako proposamena egiten du, euskara erraz bat eredu harturik.

Elkarritzeta labur baten ondoren, Euskaltzainburuak txostengileari eskerrak emanez, batzarrea amaitutatzat ematen du.

Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua

Jose M. Satrustegi
Idazkaria

1988-V-27

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian bildu dira euskaltzain osoak 1988ko maiatzaren 27an, goizeko hamar t'erdietan. Etorri dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, J. M. Lekuona, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola, J. M. Satrustegi eta P. Zabaleta euskaltzainak. Bertan egon da J. L. Lizundia urgazle idazkarioordea.

P. Charritton, J. L. Davant, X. Diharce eta J. Iriart-Urruty jaunek, ezin etorria adierazi dute.

Txomin Peillen euskaltzain berriari ongietorria emanez hasi du L. Villasante jaunak batzarrea.

Apirileko batzar-agiria onartu da.

Harri landuen hiztegia

J. Haritschelharek aurreko batzarre batean aipatutako “*Harri hiztegiñoa*” ikusi da lehenik. Harri landuetan agertu ohi diren marra, apaindura, eta gurutze moten euskal izenak jaso nahi dira berorien erabilpena finkatzeko. Gaia ez da berez oso ezaguna eta lan horietan ibili direnen iritziak jasotzea beharrezkoa ikusten da, hala nola, arte lanetan ikasiena. Nola nahi ere, aurrelanen bat oinarritzat harturik errazago litzateke, beste noizbait egin izan den bezala, zerrenda osotzen joatea. J. M. Lekuona, F. Ondarra eta J. San Martin arduratuko dira lehen bilketa ekartzez.

Bilboko Euskal Katedraren mendeurrenra

Aurten betetzen da Bilboko Euskal Katedra sortu zeneko ehunurteburua. Hori dela eta ospakizun berezia sartu zuen Euskaltzaindiak urteko egutegian.

Eguna eta egitaraua aipatu dira gaur. Ekaineko azken ostirala San Juan egunean delarik Diputazioko bulegari eta etxezainek festa dute eta hilabeteko batzarrera uztailaren lehenera atzeratzea erabaki da. Goizeko hamar t'erdietan bilduko dira euskaltzain osoak eta 12etan egingo da batzarre irekia. Gertakizunari buruzko bibliografia eta gaia ikertu dutenen izenak aipatu ditu J. L. Lizundiak. Egun horretako egitaraua honela gelditu da: euskaltzainburuaren sarrera hitzen ondottik, Ines Pagola, A. Irigoyen eta J. A. Arana mintzatuko dira.

Egun berean, L. Villasantek paratutako *Mogelen dotrina* aurkeztuko da.

Egoitza berria

Bilbo Plaza Barriko egoitzari buruzko azken harremanan kontu eman du euskaltzainburuak, bere esku utzi baitzen Bidarraiko batzarrean barne aldaketen azken onarpena. Arkitektoekin Arantzazun bildu zela esan du eta paper guziak prestaturik eraman zituztela inolako istilurik gabe. Ordurako A. Irigoyen eta P. Salaburuk euren aldetik ikusia zuten proiektua. Solairuz solairu azalpena entzun ondoren, Euskaltzaindiak erabakiarekin bat zetorrela ikusita eman zion bere oneritzia.

Izendapenak

Lekeitioko Udalak Eusebio Erkiaga euskaltzainari omenaldia eskainiko dio bihar, maiatzak 28. Euskaltzainburuak gutun pertsonal baten bidez zorionak eman dizkion arren, batzarreak bere aldetik A. Irigoyen izendatu du ordezkari ospakizun horretarako, Euskaltzaindiaren izenean goresmenak eta erabaki honen azalpena bidaliz.

Oiartzungo Udalak Manuel Lekuona euskaltzain ohiari egin nahi dion omenaldiaren egitaraua prestatzeko, Euskaltzaindiaren ordezkari bat eskatu du. J. San Martin Jagon Sailburua arduratuko da.

“Bizkaiko Ibilaldia 88” Txurdinagan egingo da aurten eta P. Salaburu joango da Euskaltzaindiaren izenean.

Bizkaiko Irakaslegoaren Unibertsital Eskolak bizkaierazko gaitasuna frogatzeko azterketak egingo ditu hirugarren urteko ikasleentzat eta ordezkari bat eskatzen du. Jaun Luis Goikoetxea izendatu da.

Eskuartekoak

Udako Euskal Unibertsitateko arduradunen gutun bat jaso zen apirileko batzarrearen ondoren, Eusko Jaurlaritzarengandik *Onura Publikoko* aitorpena lortzeko dokumentazioa biltzen ari direla esanez. Horretarako, Euskaltzaindiaren onespen-agiria eskatzen dute, izendapen hori merezi duela esango duen lekukotasunarekin.

Era guzitako eritziak agertu dira batzartuen artean bakoitzak bere pentsabidea arrazoitzuz, eta adostasunik ezean, isilkako bozketa egin da eztabaidearen ondoren. Zortzi txartel atera dira ezarekin, eta beste zazpiak oneritzia ematearen alde. UEU-k eskatutako babesea ez ematea erabaki du, beraz, batzarreak.

Asturiasko Hizkuntz Akademiak bertako agintariengandik jasotako erasoaren berri eman da prentsa mozkinak banatuz. Ez da ikusten zer egin lezakeen Euskaltzaindiak. Telegerma igorri zaie atxikimendua erakutsiz.

Senperen maiatzaren 22an egin zen “Herri Urrats” eguneko Gipuzkoako gobernadoreak mugan ipinitako oztopo eta erasoengatik protesta zehatza egitea eskatzen du X. Kintanak euskaltzainburuari zuzendutako gutun batean. Gero E. Knörrek gutunaren eredua izan daitekeen zirriborroa irakurri du. Eztabaidea eta orrazia ondoren, Julen Elgorriagari bidaltzea aipatu da, kopia gobernadoreari helaraziz. Bozketa egin ondoren, horrela egitea erabaki da hamaika bai eta hiru ezezkorekin.

F. Krutwig jauna Athenasko *Hetaireia paradosiakon spoudon* kultura elkargo-ko partaide izendatu dute eta Konstantinos E. Basiliakes beraren eskutik jaso zuen izendapen agiria maiatzaren 19an. Zorionak agertu dizkio batzarreak.

Miren Azkaratek lortu berria du, *Hitz konposatuak euskaraz lanarekin* Unibertsitatean doktoradutza. Atseginez ematen dizkio zorionak Euskaltzaindiak.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

* * *

2. Batzarrea

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioaren batzar-aretoan, 1988.eko Maiatzaren 27an, egin du Euskaltzaindiak hileroko bere 2. batzarrea. Arratsaldeko 3 t'erdietan bildu dira, lehenengo batzar agirian agertzen direnez gain, beste hauek: J. M. Leizaola, ohorezkoa; J. A. Arana Martija, J. A. Arkotxa, P. Arregi, M. Atxaga, J. Etxaide, J. G. Etxebarria, J. M. Etxebarria, J. A. Loidi, L. M. Mugika eta J. J. Zearreta, urgazleak.

Goizeko bilkurearen berri

J. M. Satrustegi Idazkariak ematen du bilkura horren kontu, gai nagusiak garatuz.

“Euskal konpletibatzailak: bilduma baterako” izeneko txostenetan irakurtzen du E. Knörr euskaltzainak. Sail hauetan banatzen du lana: 1. Perpaus konpletiboa forma ez-pertsonalak. 1.a. Aditz izena. 1.b. (Galdetzailea +) Partizipioa. 1.c. Galdetzailea + Aditz oina. 2. Perpaus konpletiboa forma pertsonalak. 2.a. Beste partikularik gabe +. 2.b. Partikula + 0. 2.c. Partikula, 2.b. horretan ageri direnak, salbu bait, gehi nola. 3. Perpaus konpletiboa baldintzaren itxuran. Adibide eta iruzkin ugarirekin osotzen du txostenetan. Jarraian, txostengile eta bildutako zenbai-ten artean solas-eztaba bat sortzen da.

“Un documento inédito de la estancia del Licenciado Poza en los Países Bajos” izeneko txostenetan, Carlos Gonzalez Etxegaraik Bizkaiko Artxibari eta Bibliotekari ohiak igorritakoia, irakurtzen du J. L. Lizundiak. L. Mitxelena euskaltzaina zen gai hau prestatzeko, baina haren heriotzeagatik Gonzalez Etxegarai jaunak burutu du. Licenciado Pozaren bizitzari buruzko ikerketa interesgarria aurkezten da txostenean, xehetasun berri anitz emanet.

Azkenik, Xabier Azurmendi idazlea eta Uitziko alkatea hurrengo asteburuan, Ekainaren 4ean eta Sean hain zuzen, Orixeren mendeurrenaren hasiera izango den ospakizun-egitarauaren berri ematera sartzen dira batzarera.

Eta honekin, bukatutzat ematen da arratsaldeko batzarrea.

*Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua*

*Jose M. Satrustegi
Idazkaria*

1988-VII-1

Bilbon, Bizkaiko Foru Diputazioko jauregian, 1988ko uztailaren lehenean egin dute euskaltzain osoek hileroko bilera. Goizeko hamar t'erdietan bildu dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, P. Charritton, E. Erkiaga, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, F. Krutwig, E. Larre, J. M. Lekuona, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta P. Zabaleta, euskaltzainak; J. L. Lizundia idazkariordea.

E. Knörr jaunak ezin etorria adierazi du.

Maiatzeko batzar-agiria onartu da.

J. Gorostiaga euskaltzainaren heriotzea gertatu dela aditzeria eman du euskaltzainburuak. Zenduaren bizia eta lanak aipatu ditu bere txostenean. 1950ean izendatua izan zen euskaltzain oso eta Nazario Oleagak eman zion erantzuna.

Jarraian, hutsunea iragarri du L. Villasantek eta bi hilabeteko epea irekirkir gelditu da hautagaia aurkezteko. Abuztua oporretako denbora denez iraileko batzarrerarte atzeratzen da legezko epea.

M. J. Urmeneta urgazle nafarraren hil-berria eman du gero J. M. Satrustegi idazkariak eta gerra ostean euskararen indarberritzeko ahaleginetan zentduaren lanak Nafarroan izan zuen garrantzia azpimarratu du bere txostenean.

Euskera aldizkaria

Euskaltzaindiaren aldizkari ofiziala hobetzeko izendatu zen batzordeak bere proposamena aurkezu du. *Euskera-n* bi parte ongi bereiztea gomendatzen da: I. Euskaltzaindiaren bizitze eta historiari dagozkiena eta, II. *Iker eta Jagon* saileko txosten eta bestelakoena. Bi aldizkaritan agertzea, nahiz urteko bi zenbakietatik bata Euskaltzaindiaren bizitzeari soilki, eta bestea *Iker eta Jagon* saileko txostenei bakarrik eskaintza, arrazoi askorengatik, ez da komenigarri ikusten. Zenbaki bakoitzaren barnean egindo da, beraz, esandako banaketa.

Batzordeen lan monografiko luzeek ez dute bertan sartzerik izango. Horretarako badu Euskaltzaindiak sail berezi frango.

Euskaltzaineik batzarreetara ekarritako lanen urritasuna ikusita, beraiei alfabetikoki txostenak eskatzeko asmo hura aurrera eramatea nahi da. Euskaltzainburuak eskutitz bana du zentzu horretan.

Hilabeteko denbora eman da aldizkariaren berrikuntzari dagozkion oharrak bidaltzeko.

Eusker/Euskara izenburua aldatzea eskatu du Tx. Peillen jaunak. Lehen ere aipatu izan dela arazo hori, erantzun zaio, baina aldizkariak bide luze bat horrela ibilia duenez, hori ere elkargaoaren historia dela uste dute batzartuek. Dagoendagoenean jarraituko du beraz.

Batzarre egutegia

Juan M. Lekuonak Euskaltzaindiko bere sarrera hitzaldia uztailaren 30ean egingo du Oiartzunen bere osaba M. Lekuona euskaltzaina zenaren hileta urteburuan. J. Haritschelharek egingo dio sarrera erantzuna. Bezpera arratsaldean Oiartzunen bertan bilduko da Onomastika batzordea Nafarroako lurralte mistoko toponimia zerrendari amaiera emateko.

Azken urteetako ohiturari jarraituz, Euskaltzaindiak ez du abuztuan batzarrerik egingo.

Iraileko batzarrea 30ean izango da, azken ostiralean, eta Gernikan. Lexikografia eta estilistikako jardunaldiak egingo dira horren inguruan. Batzorde bien arduradunek aurkeztutako gai eta hizlarien zerrendak banatu dira batzartuen artean.

Izendapenak

Madrilgo Kultura Ministeritzatik literatura sorketa bultzatzeko diru laguntzen epaimahairako ordezkarria izendatzea eskatu dute. J. M. Lekuona izendatu da.

Zarauzko Udalak sorturiko VII. "Xabier Lizardi" literatura sariaren mahairako ere, lehendanik bertan ibilia denez, J. M. Lekuonaren izena eman da.

Oiartzungo Udalak Manuel Lekuona euskaltzain ohiari omenaldia eskainiko dio uztailaren 29tik abuztuaren lehenera bitartean, haren heriotzearen I. urtemugakari. Bertako Seme Kuttun izendatuko dute, herriko Kultur Etxeari han bere izena emango diotellarik.

Eskuartekoak

J. San Martinek Miramar jauregiko egoitza berria nola izango den aditzera eman du, plano baten bidez egoitzaren kokapena eta barneko gelen banaketa azalduz. Azken berriak aipatu ditu.

Herri Literatura batzordeak bere gaiak aztertu eta landu gogoz, "Manuel Lekuona" izeneko iker saria sortzea eskatu du. 500.000 pezetako saria izango da eta iragarpenaren oinarrizko baldintzak ekarri ditu. Aurtengoan onartu da.

Onomastika batzordeko idazkariak hurrengo jardunaldiak 1990can Lizarran egiteko asmoa agertu du. Besteak beste, Lizarrako Foruaren 900 urteburua dela, esan du, eta Lizarra merinaldeko onomastika gai nagusitzat izango luke.

Jarraian osoko batzarrea egingo denez, geroago Bilboko Katedraren mendeurreneko ospakizunak hasteko, besterik gabe amaitutzat eman da batzarrea.

*Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua*

*J. M. Satrustegi
Idazkaria*

2. Batzarrea

Euskal Katedraren Mendeurrena

Bilbon, Bizkaiko Foru Diputazioaren batzar-aretoan, 1988.eko Uztailaren lean, egin du Euskaltzaindiak hileroko bere 2. batzarrea. Eguerdiko 12etan bildu dira, lehenengo batzar agirian agertzen direnez gain, beste hauek: L. Akesolo, J. A. Arana, A. Arejita, R. Badiola, F. Barrenengoa, X. Gereño, J. L. Goikoetxea, J. M. Larrarte, A. Muniategi, J. Oleaga, J. A. Retolaza, K. Rotaetxe, P. Uriarren, J. J. Zearreta eta A. Zubikarai, urgazleak. Mahaipuruan, gero aipatuko diren agintariez gain, M. Carmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikako Idazkaria ere jartzen da.

Euskaltzainen bilkuraren berri

J. M. Satrustegi Idazkariak ematen du bilkuraren kontu, gairik garrantzitsuenak azalduz.

Tomas Uribeetxebarria Bizkaiko Kultur Diputatuak irekitzen du batzarrea, Foru Erakundearen izenean, agurra eginez.

Fr. Luis Villasante Euskaltzainburuak mendeurrenen honen zergatia azalduz, sarrerako hitzaldiñoa egiten du.

Txostenak

J. A. Arana jaunak “Euskal katedraren lehiaketa eta eragina” gaiaz jardun du, gertakizun horren inguruan sortutako xehetasun eta agiri ugari garatuz. Jarraian, A. Irigoyen jaunak “Azkue, Arana Goiri eta Unamuno” izeneko txosten sakona irakurtzen du, hiru pertsonaia gailen hauen euskal nortasuna azpimarratuz. Hirugarrenik, Ines Pagola andereak “Azkue versus Arana Goiri: hitz berriez” mintzatu da, jaun bion ikuspuntuak adibide askorekin hornituta.

Pilar Valiente Eusko Jaurlaritzako Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendari Orokorrak, Hezkuntza Sailaren izenean hitz labur batzu esaten ditu, euskal katedra hura eta gaurko Institutuetako euskal katedradunen lotura aipaturik.

Azkenik, Jose Alberto Pradera Bizkaiko Diputatu Nagusiak, bilkurari amaiera ematen dio, egungo ospakizuna goraipatuz.

BERRIAK

IPARRAGIRRE LIBURUAREN AURKEZPENA

Bilbo, 1988-III-18

IPARRAGIRRE LIBURUAREN AURKEZPENEAN

Bilbon, 1988-III-18

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Iberdueroren Zuzendari, Garrido jauna.

Jaun-Andreak:

Zuzen eta bidezko ezezik, eginbidezko ere bada Euskaltzaindiak Iberduero-gandik azken urteotan jaso izan dituen laguntza gaitzak aitortzea eta eskertzea, eta hala egin nahi dut une honetan.

Oker ez banago, dena hasi zen Aita Imanol Berriatua ahaztu ezinaren har-emanekin. Euskarazko klaseak ematen zizkien Iberdueroeko langileei. Gero, berriz, arnasa handiko plangintza batí lotu zen. Nola irakatsi hizkuntza hau txikitán ikasi ez zutenei, eta irakatsi ere nola nekerik gutienaz eta onurariak handienaz egin? Hauxe zen Aita Imanolek buruan zerabilen ametsa. Eta hala asmatu zuen berak Oinarritzko Euskararen plangintza hura, Euskaltzaindiak bere garaiaren onartu zuena.

Esan behar da aparteko dohainez jantzia zela Aita Imanol ekintza hau aurrera eramateko. Euskara sustraitik menderatzentzen zuen, hizkuntzak irakasteko —batez ere hizkuntza biziak— aparteko bizitasuna zuen. Eta, noski, euskaragana erotikako maitetasuna. Diotenez, haurtzaroan, zorigaitzoko eratzuna —anilloa— eramatea tokatzen zitzaiion beti —euskaraz hitzegiteagatik—, eta hala euskarakin ezkondu zen betiko.

Berriatuaren obra handia, Euskaltzaindiak onartu ondoren, Iberduerok argitaratu zuen, bada, eta argitalpen horiek arrakasta ezin hobea izan dute. Orain, berriz, Berriatua hil zelarik eta egoera ere bestelakoa delarik, uste dugu Iberduero eta Euskaltzaindiaren arteko lokarriarentzat beste ildo edo bide batzuk bilatu behar direla, eta gaurkoz agerbidetzat horra non aurkezten dugun liburu berri hau, hots, *Iparragirre*.

Askoren artean egindako lana da, eta ikerketa-mailatakoia. Izan ere, hain aspaldikoa ez izanarren, puntu ilun asko zegoen Iparragirreren bizițza eta obran, eta liburu honek argia franko egozten duela uste dut puntu ilun horiek argitzeko, edo lehendik nolabait erdizka jakina zena osatzeko.

Horra, bada, Iberdueroren laguntzari esker, Euskaltzaindiak argitara ahal izan duen liburu berri, txairio eta ongi egituratua.

* * *

Es para mí motivo de gran satisfacción, al tiempo que cumplimiento de un grato deber, el reconocer y testimoniar públicamente la extraordinaria ayuda que la empresa Iberduero ha prestado a la causa de la lengua vasca y a la Academia fundada para guiar de algún modo los esfuerzos por la rehabilitación de este idioma, su puesta al día, etc.

Todo empezó, creo, con las relaciones del inolvidable P. Imanol Berriatua (q.e.p.d.), que impartía clases de euskara a los empleados de la empresa, y la presentación por parte del mismo de un plan ambicioso para enseñar euskara a adultos con el mínimo dispendio de energías y el máximo de rendimiento; es decir, el llamado plan de "Oinarrizko Euskara" o euskara básico. Iberduero, tras la aprobación del plan por la Academia, ofreció su generosa ayuda para la publicación de los textos, libros del profesor y del alumno en sus 3 grados con su aneja serie de lecturas apropiadas a los dichos 3 grados, etc. El montante de estas publicaciones ha sido considerable y hay que decir que han tenido una gran aceptación por parte del público. Nuestra encargada de ventas de libros suele decir que, aún hoy, los libros nuestros que más se venden son los de "Oinarrizko Euskara". Esto quiere decir algo y mucho. El P. Imanol, que por motivos fácilmente adivinables —pues era muy religioso— parece que solía decir que quería morir en Tierra Santa, tuvo la suerte de que se cumpliera este su anhelo. Yo confío en que él desde arriba nos ayudará a fortalecer estos lazos entre Euskaltzaindia e Iberduero, que él inició.

"Oinarrizko Euskara" cumplió su misión, yo creo que con un saldo altamente positivo. La recuperación del euskara por parte de adultos que no aprendieron esta lengua en su infancia es ciertamente una labor difícil, que exige una técnicas y unas cualidades en el guía no comunes o corrientes y que ciertamente el P. Imanol poseía, aparte de su conocimiento profundo de la lengua vasca y de los métodos que se aplican en otros países o lenguas con problemas similares, como p. ej. el hebreo en Israel o la lengua inglesa.

Al faltar el P. Imanol y después de haberse completado el plan o programa de publicaciones por él previsto —y aquí debo dar las gracias a su continuador Imanol Unzurrunzaga y colaboradores— esta iniciativa ha quedado conclusa en cierto modo. Tras la autonomía el panorama para trabajar en este campo también se ha modificado.

Pero el vínculo entre Iberduero y Euskaltzaindia no por eso se debe dar por cerrado. Nuestro deseo es que prosiga y se le busque un cauce nuevo. Y espero que esto se conseguirá, pues por ambas partes existe —creo— la misma voluntad.

De momento, y como un botón más de muestra de esta relación, tenemos hoy el gusto de presentar al público la obra sobre Iparraguirre, realizada por un grupo de especialistas y editada también gracias a la ayuda de Iberduero.

Iparraguirre es una de esas figuras a las que el destino les asigna un papel único; a él le asignó el de ser vocero y representación de la Euskal Herria tradicional. Hasta hace poco —y aún hoy— siempre que los vascos se reúnen, los cantos de Iparraguirre son los que afloran espontáneamente. Pero su figura histórica había quedado un tanto desvaída. Desde que Salaverría en 1932 publicara su obra *Iparraguirre el último bardo*, puede decirse que apenas se había

avanzado en la investigación sobre él. Creemos que este libro que hoy sale a la calle, constituye una aportación seria, positiva y valiosa para la clarificación histórica de su persona y obra, de su época, de su producción poética y musical, etc.

Pero sobre el nuevo libro nos hablará más de propósito con su particular competencia nuestro vicebibliotecario José Antonio Arana Martija, que además es uno de los autores de la obra.

A mí sólo me resta agradecer a los autores que han participado en la obra y por supuesto a Iberduero por su ayuda, sin la cual el libro no se hubiera publicado y se hubiera malogrado el esfuerzo. Pero antes de pasar al tema del nuevo libro, pido al Secretario de la comisión de publicaciones que lea la relación escueta de los libros y ejemplares que Euskaltzaindia lleva publicados con la ayuda de Iberduero.

* * *

Eta azkenik, eta gaurko ospaketa honi bukaera emanet, hona non eskaintzen dizudan Iberdueroren Zuzendari jaun horri, oroigarri eta esker agergarri gisa, Euskaltzaindiak borondaterik onenaz eman nahi dizun plakatxo hau.

Gauza guti da, badakit, baina gure eskerronaren testigu edo lekuko izan nahi du. Torizu, bada, jauna.



IPARRAGIRRE LIBURUAREN AURKEZPENEAN

Bilbo, 1988-III-18

Norberto Agirre

Iberdueroko Euskal Kultur Mintegikoa

Jaun agurgarriok:

Orain hamaika urte irakurri nuen egunkarietan aita Imanolen txostena Israelgo hizkuntzari buruz, eta horrexegatik, Aita Imanolengana joan nintzen nire ingelesko *Structural Readers* erakusteko. Ikusi ta gero aita Imanolek esan zidan oihuka: Hauek dira, hauek dira!

Ixitxean hasi ginen lan egiten. Geroago, Imanolen lana azaldu genion Inazio Elortzari eta pixkanaka, pixkanaka, itxura eman genien geure harremanei.

Iberdueroko Euskal Kultur Mintegia sortu genuen eta bapatean, jende guztiek euskera ikastera nahi zuen.

Bi talderekin, frogaren gisa, erabili zen metodoa. Eroak bezala, lan izugarria egin zuen aita Imanolek gure ikasgaiak prestatzen. Geroago, ikasgai hauekin, *Hitz Egin* lehen mailako metodoa egin genuen Iberdueroren laguntzaz.

Decía que hace once años leí en los periódicos el informe de aita Imanol sobre la enseñanza de la lengua hebrea en Israel y relacioné lo que allí se decía con los libros de inglés que yo estaba estudiando. Por ello me presenté a aita Imanol con mis *Structural Readers* de Logman. En cuanto los vio, exclamó: ¡Estos son, son como éstos!

Inmediatamente, se puso a trabajar sobre el proyecto de hacer un método en euskera adaptado del inglés.

Yo entonces no sabía una palabra de euskera, por lo que mi ayuda solamente se la podía dar en el campo de la reproducción, dibujo o edición. Pero aita Imanol de todo sacaba provecho, así que en mí encontró un cobaya en el que probar sus enseñanzas. Trabajó como un loco todas las horas disponibles. En cualquier momento de noche o de madrugada me llamaba por teléfono: perdona que te llame a estas horas, pero se me ha ocurrido que...



Lo primero que se le ocurrió fué elegir un vocabulario y unas estructuras suficientes para comunicarse con claridad; lo llamó "euskería básico" y lo dividió en 3 niveles perfectamente definidos. Después comenzó el trabajo de disponer este vocabulario y estructuras en frases conversacionales dentro de un contexto de dificultad creciente.

El día 22 de Setiembre de 1977 aita Imanol Berriatua nos arengó de tal manera que todos los compañeros de Iberduero querían aprender euskería.

Con extraordinario entusiasmo contagió a Ignacio Elorza y luego a nuestro director de entonces D. Manuel Gómez de Pablos y al director actual D. José Antonio Garrido. Y a todos los que tuvimos la suerte de contar con su amistad.

Para mí, aquellos años de trabajo intenso fueron maravillosos.

Teníamos que preparar, trabajando contra reloj, las lecciones para los dos grupos "cobayas" que probaron el *Hitz Egin!*

Al publicar estas lecciones, por el patrocinio de Iberduero, salieron a la luz los libros del alumno, de ejercicios y del profesor de cada uno de los tres niveles, junto con las lecturas complementarias hasta un total de 26 libros.

La filosofía del método es la de su nombre *Hitz Egin*, hablar.

Oír, repetir, leer y escribir.

Aita Imanol quería dejar el método de euskera concluido y bien plantado para acabar su vida en Israel estudiando las escrituras sin intermediarios. No pudo ser. Se quedó en Israel para siempre inesperadamente.

Después de su muerte, gracias a Imanol Unzurrunzaga y a Koldo Egía, publicamos los escritos en que estaba trabajando y que no dejó todo lo pulidos que él hubiera querido, pero creímos que era mejor publicarlos así, que cortar bruscamente su trabajo dejándolo inconcluso.

Ahora tras 10 años de fructífera colaboración con Iberduero, con muchos miles de alumnos motivados por *Hitz Egin!*, Euskaltzaindia ha estimado que la publicación de métodos y libros de lecturas está asegurada tanto por el Gobierno del País Vasco como por otras instancias y las publicaciones que desea realizar han de incidir en otros aspectos de la lengua vasca, por lo que la colaboración ha comenzado a tomar una nueva forma.

Horrexegatik hemen gaude *Iparragirre liburuaren aurkezpenean*.

Eskerrik asko.

IPARRAGIRRE

Bilbo, 1988-III-18

Ricardo Badiola Uriarte

Presentación del libro de *Iparragirre* en la sede de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia.

Ondo etorriak eta agur t'erdi!
¡Bienvenidos todos!

- Sr. D. José Antonio Garrido Jaun Agurgarria, Iberdueroko Zuzendari Orokorra/Director General de Iberduero.
- Sr. D. Fr. Luis Villasante Jaun Agurgarria, Euskaltzainburua/Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca.
- Sr. D. Ignacio Elorza Jaun Agurgarria, Iberdueroko Zuzendari Ordea eta Kanpo Harremanetarako Ordezkaria/Subdirector de Iberduero y Delegado de Relaciones Exteriores.
- Sr. D. Jean Haritschelhar Jaun Agurgarria, Euskaltzain Buru Ordea/Vice-Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca.
- Sr. D. José M.^a Satrustegi Jaun Agurgarria, Idazkaria / Secretario de la Real Academia de la Lengua Vasca.
- Sr. D. Juan San Martín Jaun Agurgarria, Jagon Sailburua / Director de la Sección Tutelar de la Real Academia de la Lengua Vasca.
- Sr. D. Norberto Agirre Jaun Agurgarria, Presidente del Euskal Kultur Mintegia de Iberduero y Miembro de la Comisión de Oinarrizko euskara de Euskaltzaindia.
- Sr. D. Koldo Etxebarria Jaun Agurgarria, Miembro del Euskal Kultur Mintegia de Iberduero.
- Sr. D. Alfonso Irigoien Jaun Agurgarria, Académico de Número y Bibliotecario de la Real Academia de la Lengua Vasca.
- Sr. D. Federico Krutwig Jaun Agurgarria, Académico de Número y Presidente de la Comisión de Literatura.
- Sr. D. Patxi Altuna Jaun Agurgarria, Académico de número y Presidente de la comisión de Gramática.
- Sr. D. Endrike Knörr Jaun Agurgarria, Académico de Número y Director de la Colección *Onomasticon Vasconiae*.

- Sr. D. José Luis Lizundia Jaun Agurgarria, Vicesecretario de la Real Academia de la Lengua Vasca y Miembro correspondiente.
- Sr. D. José Antonio Arana Martija Jaun Agurgarria, Vicebibliotecario y Miembro correspondiente.
- Sr. D. Juan José Zearreta Jaun Agurgarria, Gestor Económico y Miembro correspondiente.
- Sr. D. Ander Arana Bareño Jaun Agurgarria, estudiante de quinto curso de filología vasca y autor del índice onomástico del libro de *Iparragirre*.
- Sr. D. Julio Elorza Jaun Agurgarria, Gerente de Gráficas Grafo quien ha impreso el libro de Iparraguirre.

Guztioi egun on eta ongi etorriak.

Eskerrik asko Iberduerokooi. Eskerrik asko Norberto Agirre eta esker anitz Aita Imanol Berriatua (Goian Bego).

Nik bakar-bakarrik bi berba esanen ditut Iberduerok azken hamar urteotan Euskaltzaindiari eskaini dion diru laguntza oparoa dela eta, hots:

1978-1988 urteetan. *Hitz Egin* metodoaren lehen liburukia 1978. urtean argitaratu bait zen; beraz duela hamar urte.

Hemen ezin ditut utzi aipatu gabe Imanol Berriatuaren lankide finenak, alegia; Xabier Kintana, Norberto Agirre, Juan Luis Goikoetxea, Juanjo Zearreta eta abar eta abar, hots, Bilbo inguruko euskalduntze eta alfabetatzelarren sortzaileak.

Eta orain gaira jota, *Hitz Egin* metodoa eta beronen inguruko zenbait zertzelada, alegia:

1. Lehen maila: hamar liburuxka.
2. Bigarren maila: zortzi liburuxka.
3. Hirugarren maila: zortzi liburuxka.

Eta laugarren sailean, *Iparragirre, Jagon 2*, geroxeago azalduko dudanez.

Eta orain aleetara jo ondoren zera esan ahal dugu, hots:

1. Lehen mailan: 207.510 ale argitaratu dituela Euskaltzaindiak.
2. Bigarren mailan: 78.865 ale.
3. Hirugarren mailan: 66.500 ale.


Orotara: 352.975 ale: *hitz egin*.

Eta 1987.urtean, *Iparragirre, Jagon 2*, 3000 ale. Orotara: 355.975 ale.

Hitz Egin metodoan 26 zenbaki eta *Jagon* sailean 1. Beraz 27 titulu.

Eta ordainduriko diru-kopurua: 32.625.160 pezeta.

Eta hau guztiau ikusi ondoren, Iberduerori eskerrik asko.



Eta hemendik arurrera zer?

Gure gogoa eta nahia ez lirateke hemen agortu eta bertan behera gelditu behar.

Guk Iberduerorekin lanean jarraitzea nahi genuke eta harremanetan iraupe-na izatea. Asmo berriak elkarri adierazi eta aurrera jotzea.

Beraz guk aurrera jo nahi genuke eta enbidoa botzen diogu Iberduerori kultur sailean elkarrekin jokoan jarraitu eta argitarapen berriak burutzeko.

Honela izan dadila.

Muy buenos días a todos. Dos palabras de agradecimiento para Iberduero por medio de los que nos honráis con vuestra presencia, Sr. D. José Antonio Garrido, Director General, Sr. D. Ignacio Elorza, Subdirector, Sr. D. Norberto Agirre y Sr. D. Koldo Egia.

Estimados académicos, compañeros de trabajo. A todos gracias por vuestra presencia y también gracias a la prensa que esperamos sepa reflejar el acto de hoy, aunque humilde pero no carente de importancia y de cariño para con nuestro gran profesor y amigo Aita Imanol Berriatua (Q.E.P.D.).

En los últimos diez años (1978-1988) gracias a la ayuda de Iberduero la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia ha publicado el método *Hitz Egin* y los correspondientes libros de lectura para poder aprender y profundizar el Vascuence.

El método posee tres niveles con sus correspondientes libros de lectura.

Publicaciones ejecutadas hasta el día de hoy:

1. Primer nivel, diez tomos y 207.510 ejemplares.
2. Segundo nivel, ocho tomos y 78.865 ejemplares.
3. Tercer nivel, ocho tomos y 66.500 ejemplares.

Total de libros editados: 352.975 ejemplares. Y en Diciembre de 1987, el presente tomo de *Iparragirre* de la colección *Jagon*, con 3.000 ejemplares. En total: 355.975 ejemplares.

Así pues, resumiendo: 355.975 ejemplares, 27 títulos y 32.625.160 pesetas aportadas por Iberduero.

Así pues, de nuevo, muchísimas gracias a Iberduero. Y estas gracias quisieramos expresar primero en nombre de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia y en segundo lugar en nombre de esos trescientos y pico mil alumnos/alumnas que están aprendiendo y profundizando la lengua más antigua de Europa gracias a la ayuda desinteresada de Iberduero.

Quisiera terminar estas palabras de agradecimiento no sin antes instar a Iberduero que de aquí en adelante sigamos también trabajando juntos en pro de la cultura y la lengua de nuestros antepasados, en pro del Euskera.

He dicho.

IPARRAGIRRE

Egileak/Autores

1. Luis Villasante Kortabitarte: “Ataurreko/Presentación”. Euskaltzainburua/Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca.
2. Francisco Rodriguez de Coro: “La época de Iparraguirre, 1820-1881”. Doctor en Historia y Teología, Profesor de la Universidad de Deusto y ex-Profesor de la Universidad Complutense de Madrid.
3. Federico de Zabala: “Iparraguirre y su entorno. Los Fueros”. Historiador y ex-Senador.
4. José Antonio Arana Martija: 1. “Iparraguirre, cantor de Euskal Herria” 2. “Iparragirre eta Bizkaia” 3. “Melodías de Iparraguirre”, 4. “Bibliografía sobre Iparraguirre”. Miembro correspondiente y Vicebibliotecario de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia.
5. Juan María Lekuona: “Iparragirre eta bertsolaritza”. Académico de Número y Profesor de la Universidad de Deusto en Donostia/San Sebastián.
6. Manuel de Lekuona: “Eskolatük etortzeko ordua” “La hora de venir de la escuela”. (Q.E.P.D.) ex-Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia.
7. Juan San Martín: “Iparragirre literaturan”. Académico de Número, Director de la Colección *Jagon* y Tesorero de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia.
8. Justo Garate Arriola: “Iparraguirre en América”. Académico de Honor, Profesor de la Universidad de Euzkadi (1936-37) y Catedrático emérito de la Universidad de Cuyo (Argentina).
9. Endrike Knörr: “Iparraguirre y Alava. Notas sueltas”. Académico de Número, Director de la Colección *Onomasticon Vasconiae* y Profesor de la Universidad del País Vasco.
10. Piarres Xarritton: “Iparragirri buruz bizpalau xehetasun Iparraldetik”. Académico de Número y Profesor de la Universidad del País Vasco en Donostia/San Sebastián.
11. Jose M. Satrustegi: “Iparragirre eta Nafarroa”. Académico de Número y Secretario de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia.
12. Ander Arana Bareño: “Izen aurkibidea. Índice onomástico”. Estudiante de 5º curso de Filología Vasca en la Universidad de Deusto.

IPARRAGIRRE

Bilbo, 1988-III-18

J. A. Arana Martija

Iparragirre liburuaren aurkezpenean, Ataurrekoan Aita Villasantek, eta gaur hemen esandakoetatik aparte, liburuaren sorreran partaide izan nintzen aldetik, zeozer gehitu nahi nuke. Liburu batek, egitura eta edukinetik landa, badu bere historiatxoa eta.

Liburu honen egitura ikusteko nahiko izango da aurkibideari goi begirada bat ematea: pertsonaia bera, beronen garaia eta ingurua ikertzen da lehen sei kapituluetan, 160 orrialdeetan zehar. Iparragirreren biografia osotzeko, kronologiazko bidea jarraitu beharrean, beste metodologia bat asmatu zen duela zortzi urte liburuaren egituraz arduratu ginenean, hots, Euskal Herriekin bertsolari honek zeuzkan loturak aztertzea, eremu zabal horretan bazeuden egonaldi eta ekintzak eta. Beraz, sei Euskal Herrietatik ibili zen kantariaren berriak ikertza iruditu zitzagun orduan, ikuspuntu egoki eta berrigile gisa. Eta hori da hurrengo 160 orrialdeetan ematen zaiguna, Ameriketako egotaldi luzea barne delarik. Batek baino gehiagok nabarituko zuen eskualde baten falta: Gipuzkoa. Baino bertakoa zenez eta bertan hila gainera, Iparragirreri buruzko liburu gehienetan ematen dira hango berriak ugari, eta liburu honetan, aurrera-pausu bat eman nahi zuen Euskaltzaindiak, Aita Villasantek Ataurrekoan dioenez.

Liburuaren egitura bukatzeko, Iparragirreren bertso eta musika lana ematen zaigu ia ehun orrialdetan. Eta lehenagokoetan hainbat berri ematen badira ere, hemen dago, behar bada, bertsolariaren lana eskainikeran, inoiz taiuz eta osoki eman gabeko bilduma. Orain arte inoiz argitaratu gabe zeuden bertsoetatik aparte, argitaratutakoak ere oso osoan ematen dira lehendabizi, eta hainbat zuzenketa eginez gainera. Zoritzarrez, Iparragirreri buruz kaleratutako liburuun artean —eta asko dira Bibliografian ikus daitekeenez— bertsorik gehienak errataz beterik argitaratuak izan dira, eta kantauak ere bai. Belaustegi, Salaverria, Arrillaga, Castresana eta beste, bertsoen testuak behar den bezala ematen ez dira arduratu. Aurrekoetan agertzen ziren hutsune eta errata guztiak korritzen zuten erreka lohi honetan. Eta ur gardena edatea komeni zen Iparragirreren idazlanetan, edo sasiak kentzea euskararen belar berdea garbi ager zedin. Sarri askotan zaila zen garbiketa egitea eta bide errazetik jo dute denek. Gu gaurko honetan lan hori burutzen ahalegindu gara: hitzak, bertsoen puntuak, neurriak eta abar zuzendu eta aldatu egin ditugu Iparragirreren hizkuntzara eta bertsogintzara heltzeko asmoetan.

Lan handia eman digu, benetan, luburuaren paratzeak. Idazlanik gehienak aspaldidanik bilduta egon arren –1980an hasi ginenean bilketa lanetan— egituraren oreka lortzeko berriak ere bildu behar izan dira azken egunetan. Irudi, argazki eta ilustrazioen aldetik ere oreka hori lortzeko —liburu baten itxura ona hor datza hain zuzen— bilketa lanak egin behar izan ditugu maketazioaren unean.

Bi aldi izan ditu liburu honen historiak. Lehenean idazlanik gehienak bildu ziren, baina hor zeuden Euskaltzaindiaren artxiboan lotan, babesleak huts egin bait zigun. Iberduerok bere lepora bota zuenean liburuaren babesia hasi zen bigarren zorioneoko aldia, laburra zinez, lasterketa baten azken metroak bezala. Zati handi baten fotokonposaketa eginda zegoelarik, igazko Urriaren 14an egin zuen lehen bilera argitarapenarekin arduratu, zen batzordeñoak. Hurrengo egunean hasi ziren maketazio lanak, baina aldaketak, kenketak eta gehiketak sartu behar zirenez, idazle batzuren eraginez edo lehen aipaturiko orekaren eskariz, hiru aldiz maketatua izan da liburua. Azkenean, Abenduaren hiruan kaleratu zen 446 orrialde dituena.



Durangoko Azokan Abenduaren 6an aurkeztu bazen ere, eta gero Bizkaiko Diputazioan hil bereko 18an, beharrezkoa iruditu zitzzion Euskaltzaindiari gaur hemen, Arbietoko Egoitzan eskerroneko zerbait antolatzea. Eta hau da, jaun andreok, gaur hemen burutu dugun ekintza. Eskerrak, bada, Iberdueroko agintari jaunoi.

EL LIBRO *IPARRAGIRRE*

Bilbo, 1988-III-18

Juan San Martín

Era de suponer que un personaje de la talla de Iparragirre, tan mentado en el mundo cultural vasco durante la última centuria, un trobador cuya memoria aún permanece latente en el sentir del pueblo, tenía que ser suficientemente investigado y disponer de unos estudios poco menos que exhaustivos; pero, desgraciadamente, no es así. Las lagunas existentes sobre su vida son muchas y la recopilación de sus cantares es incompleta.

Con motivo del centenario de su fallecimiento, en 1982, salieron a la luz varias obras sobre la vida y obra del famoso bardo. Contribuyeron, sin duda, a consolidar e incrementar su popularidad, pero muy poco se hizo para avanzar o profundizar en él y su obra escrita, pues las aportaciones originales fueron mínimas. Es decir, poco se añadía a lo que ya se sabía.

Desde que Fermín Herrán y colaboradores le dedicaron aquel volumen en homenaje póstumo, en 1896, y las ulteriores búsquedas de recopilación por parte de Ignacio Belaustegui, muy poco se ha progresado en la investigación de primera mano y los estudios mostraban sus deficiencias.

Con el propósito de alcanzar nuevas metas se programó la presente obra desde la sección tutelar (*Jagon saila*) de Euskaltzaindia. El objetivo consistía en tratar de cubrir algunos huecos existentes para esclarecer ciertos aspectos de la figura de Iparragirre. En definitiva, completar su biografía, mostrando su época, su obra musical y literaria. Pero, además, ocuparnos también de su errante deambular por Europa y América, reuniendo y ordenando su desperdigada obra e incluyendo alguna canción inédita.

Se recurrió a diversas personalidades, como estos casos lo requieren, y distribuir el trabajo entre los mismos. La presente obra es el fruto de los resultados. Pero precisamente su carácter de obra de investigación y estudio dificultó su publicación en momentos de incomprendición hacia trabajos de cierta erudición en una sociedad donde las reivindicaciones van preferentemente dirigidas a *panem et circenses* (entiéndase pan y fútbol) en asuntos como el presente circunscriben una serie de incomprendiciones hasta entre personas presumiblemente cultas y de ahí vienen las complicaciones hacia trabajos de cierta seriedad que por su carácter resultan aventureras a la hora de editar. En consecuencia,

sufre un grave retraso por el que estuvo a punto de malograrse. ¡Por fin!, hoy sale a la luz, gracias a la paciencia de los autores colaboradores —a quienes pedimos nuestras disculpas— y, gracias también, a la generosa ayuda del Seminario de Cultura Vasca (Euskal Kultur Mintegia) de la empresa Iberduero.

La presente aportación va más allá de la simple biografía de una figura singular del romanticismo.

EUSKALTZAINDIA

Bilbo, 1988-III-18

José Antonio Garrido

Iberdueroko Zuzendari Nagusia/Director General de Iberduero

Creo que fue un hijo de esta tierra el que de forma tan lapidaria como correcta planteó uno de los actuales retos del Pueblo Vasco, al proclamar que el slogan que debiera guiar, en buena parte, nuestros esfuerzos debiera ser: Euskera y tecnología.

Represento en este acto a una empresa que se ha hecho acreedora de una calidad tecnológica que le permite competir con entusiasmo en esta nueva Europa de las fronteras plegadas. Y Uds. representan a una Institución que ha acreditado al euskera como lengua viva, capaz de una adaptación creativa, —con su milenaria tradición— a las nuevas condiciones de la historia futura.

Iberduero se debe a la sociedad a la que sirve desde su condición de institución económica que presta servicios y fomenta desarrollos tecnológicos competitivos. Euskaltzaindia tiene su razón de ser en su obligación de impulsar el fomento del euskera para que siga siendo —más allá de objeto de estudio— lengua competente en el concierto de una sociedad cada vez más internacionalizada.

Tanto Euskaltzaindia como Iberduero tenemos contraídas responsabilidades sociales que en modo alguno podemos eludir en relación al Pueblo Vasco. El desarrollo de nuestra vida comunitaria no es responsabilidad exclusiva de las instituciones estrictamente políticas. La grave crisis económica —con sus secuelas del alarmante paro, sobre todo juvenil— no podrá resolverse por medidas administrativas exclusivamente, por muy importantes que éstas sean en determinadas circunstancias. Es grande la responsabilidad de Iberduero en el ámbito técnico. Y grande también la responsabilidad de Euskaltzaindia en el ámbito lingüístico. Y de la acertada actuación de estas dos instituciones puede depender en parte nada despreciable la acertada orientación de no pocos problemas culturales y económicos.

No entiendo de asuntos relativos a la lengua y menos de los específicos del euskera. Pero las lenguas que podrán afirmarse en el futuro, serán las que se desarrollen en entornos de creatividad científica y técnica. Sin embargo, la técnica no se desarrollará donde no haya un sentido comunitario desarrollado.

Creo que el euskera, expresión de un pueblo que ha vivido secularmente el trabajo bien hecho, que ha asumido responsablemente el riesgo, es factor que



puede y debe impulsar un nuevo desarrollo tecnológico que revierta en beneficio del propio euskera. Y la tecnología debe ser medio que nos facilite una cohesión social más armónica y —a la vez— más dinámica de nuestra comunidad.

Por estas razones —mucho más profundas que las coyunturales— Euskal-tzaindia e Iberduero vienen colaborando en su servicio a la Comunidad Vasca. No es de extrañar, por tanto, que sus caminos se hayan encontrado desde hace años y hayan colaborado en fructíferos proyectos, como el que hoy presentamos.

Han sido largos años de estrecha colaboración los que corroboran nuestra capacidad de entendimiento en el apoyo a proyectos concretos. De ahí que este acto, más que una ceremonia vestida de oportunismo, sea la confirmación de un compromiso al que nos debemos desde nuestra diferenciada identidad. Porque son, efectivamente, diferentes el euskera y la técnica, pero ambas se necesitan mutuamente, si es que queremos una sociedad vasca normalizada socialmente, avanzada económicamente, integrada en su identidad cultural y consolidada democráticamente.

UNAS PALABRAS EN LA PRESENTACION DEL LIBRO TOPONIMIA DE LA CUENCA DE PAMPLONA, CENDEA DE GALAR, DE JOSE MARIA JIMENO JURIO

Endrike Knörr

Presidente de la Comisión de Onomástica de
Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca

Pamplona, 8-II-1988

Señoras y señores, amigos todos:

El 21 de junio de 1986 presentábamos aquí mismo el libro *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur*, de José María Jurio. Se trataba del primer tomo de la colección *Onomasticon Vasconiae*, creada por Euskaltzaindia para estudios y repertorios onomásticos de Euskal Herria, un proyecto modesto, si se quiere, pero quizá el único que, puestos a ser realistas (ejercicio muy recomendable), parecía y parece conveniente, útil y factible, teniendo en cuenta las fuerzas de que se dispone.

No voy a insistir aquí sobre la favorable acogida dispensada a aquel libro, tanto por el mundo de los especialistas como por el de los euskaltzales (conjuntos que, pese a lo que algunos creen, no son biunívocos). Se ha aplaudido a una obra ejemplar “excepcional entre nosotros”, como muy bien dice Mitxelena en un libro que justo pudo ver publicado días antes de su desaparición (*Palabras y textos*, p. 478), un trabajo hecho con espíritu de exactitud y magnífica abundancia de datos antiguos y contemporáneos.

Este segundo tomo que hoy nos reúne, dedicado a la cendea de Galar, sigue las huellas del primero. Modelo de estructuración, encontramos una bibliografía adecuada (no “hinchada”, como con frecuencia tenemos que ver), una introducción a la historia, medio físico y población de esta cendea, y después vienen las listas de los pueblos, a su vez precedidas de notas sobre cada uno de ellos, a lo que hay que añadir los mapas en cada sección y los índices onomásticos y temáticos.

Una simple lectura de este tomo sugeriría aquí el espigar algunos ejemplos. Vemos, verbi gratia, en Arlegi un lugar llamado *Dindarte*, sin duda alguna relacionado con *inda*, “senda, vereda”, cf. *Pero d'Indaco o Dindaco* en Navarra mismo, el s. XIII. También en Arlegi, como en otros pueblos, aparecen *Buzu* y

compuestos, indudablemente *butzu*, la variante aquí de *putzu*, “pozo”, y en varios pueblos asoma el nombre *Sario*, de *saroi* y éste de *sare + ohe*, “majada”, cf. *arrazio*, de *arrazoi*, “razón”. Hay *Chindila arçeco bidea*, *Chindilaçeco erreca* y *Gueseco chindillaçeco buruan*, casi con toda seguridad *txindilatze*, “lentejal”. (1)

Es curioso, pero no inusual, que algunos topónimos se nos aparezcan “declinados”, como *Oyan charrean* y *Guicu labean*, respectivamente “en el bosque malo” y “en el horno de yeso”, de Arlegi y Subiza, respectivamente.

¿Por qué no decirlo? Sentimos cierta emoción al repasar los nombres de Beriain, que serían tan familiares al autor del devocionario, y también al general Oráa, militar liberal (detalle que, tal como están las cosas y lo que se oye, no estará de sobra indicar).

Permitaseme señalar que *Cordobilla* aparece aquí, en la documentación antigua, no pocas veces sin el diminutivo. Es un caso típico de nombre importado, y que tiene su paralelo en la Llanada de Alava, en el nombre de *Gordoa*, donde hace ya muchos años Mitxelena vio *Córdoba*.

Nos alargaríamos demasiado con observaciones que saltan en la lectura del libro, y además muchas saltan a la vista. Por ejemplo, *Chinurrieta*, de Subiza, no puede ser otra cosa que el equivalente del *Formigal* de los esquiadores.

No faltan en este tomo, como tampoco en el primero, *Satznamen*, es decir, “nombres-frase”, como *Guilac direna*, de Subiza, algo así como “donde hay cerezas negras”, o *Urdeac esiten dire* (sic) *unçeaa*, también de Subiza, literalmente “prado donde se cierran los cerdos”. Mitxelena, en el pasaje antes citado de *Palabras y textos*, se ocupa de tales nombres, de los que él mismo habló a propósito de la toponimia de Contrasta (*Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”* 19, 1985). En un trabajo en prensa menciono un lugar de Gorbea, de este tipo, *Urasartzeandanlekua*, “sitio donde se mete el agua” con un interesante nombre verbal en *-tzean* característico de Arratia.

Pero esto ha ido demasiado lejos y voy a terminar. El libro es, claro, una mirada atrás, pero no a “reliquias”, me atrevería a decir. Toda esta toponimia, la vasca como la romance, es un patrimonio, un legado, es decir, algo que se nos ha legado y nosotros, a nuestra vez, hermos de legar. Pero, además, una de las lenguas, claramente, sigue en desventaja. No hace falta decir que precisa del amparo legal, por un lado, pero también de la adhesión, no retórica ni de escaparate, de las personas.

Animo a Jimeno Jurío, además de felicitaciones de corazón, y que siga en esta labor tan importante para el conocimiento de la lengua, la historia y la etnografía. Parabienes y agradecimiento también a todos los que han tenido que ver con el libro, tan dignamente impreso. Y un reconocimiento especial, como no podía ser menos, a la Institución Príncipe de Viana, del Gobierno de Navarra, que ha ayudado en los gastos de esta obra.

(1) En el primero de los tres nombres, sin embargo, no sería aventurado traducir “camino de coger lenteja(s)”.

JUAN ANTONIO MOGELEN CRISTAUBAREN ICASBIDEA EDO DOCTRINA CRISTIANIA LIBURUAREN AURKEZPENA

Durangon, 1988-VI-11 eta Bilbon, 1988-VII-1

Fr. Luis Villasante

Jaun-Andreak:

Euskaltzaindia une honetan euskararen gerorako, bai epe laburrean eta bai epe luzean ere, beharrezko diren tresnak prestatzen ari da. Hiztegi kontuan OEHren argitalpena martxan dago.

Lehen liburukia behintzat atera da eta hurrengo biak ere prestaturik daude. Obra galant hau oso baliotsua izango da kontsultarako, euskal hitzen tradizioa ezagutzeko, alegia.

Beste obra behar-beharrezko da EGLU (*Euskal Gramatika. Lehen Urratsak*). Bigarren liburukia ateraberria dugu eta oraintxe egin da hemen beronen aurkezpena.

Baina Euskaltzaindiak uste du hizkuntza batentzat garrantzi handikoa dela, orobat, idazle zaharren edizio kritikoak egitea. Eta horretarako sortu zuen “Euskalaren Lekukoak” deitzen den liburu-bilduma.

Igaz agertu da bilduma honen 14. liburukia. Neronek prestatu dut beronen edizioa. Idazlea edo egilea ez da nornahi, Juan Antonio Mogel, bizkaiera literarioaren aitzatzen jotzen duguna baizik. Liburu hau ere bizkaieraz dago, noski, eta gaur arte argitaragabe egon da.

Konta dezadan laburkilo beronen historia –nik ezagutzen dudana, jakina.

1963. urtean hil zen Oñatiako Bidaurretan Aita Aingeru Madariaga, bermeotarra. Euskaltzalea zen, Ameriketan etab. ibilia. Arantzazuko Aita Guardianak –Aita Pedro Aranguren– esan zidan: “Zoa eta ikus ezazu ea zerbait baliozkorik utzi ote duen”. Eta bai, haren gelan aurkitu eta jaso nuen eskuz eta euskaraz idatzitako kodize bat: “Cristaubaren Icasbidea edo Doctrina Cristiania”. Ez du jartzen egilearen izenik. Aurreko orrialde batean ohar hau dakar: “Este libro recogí en Elgoibar. Debió pertenecer a los PP. Franciscanos de aquel convento. Le entregué al P. Angel de Madariaga OFM. Fr. Andrés de Ocerin Jaúregui OFM 1922”.

Mendizabalen esklastraziora arte frantziskotarren komentua egon zen Elgoibarren, eta, dirudienez, hangoa zen kodize hau. Egilea, berriz, nor izan zitekeen, nahiz eta neure susmoak izan, urte askotan ziur jakin gabe egon naiz.

Neronek utzirik, Mitxelena zenak ere eduki zuen liburua denboraldi batean eta fitxak hartu zituen bertatik. OEHn autoridade bezala sartua dago liburu hau izen honekin: "Catecismo de Elgóibar". Ez, noski, egilea elgoibartarra zelako edo doctrina hau Elgoibarren inoiz, nik dakidala, irakatsi delako, kodizea bertan jaso zelako baizik.

Geroago jakin nuen Derion bazela obra honen beste ale edo kodize bat. Ikuhi nuen eta ohartu nintzen bazirela batetik bestera aldakuntza batzuk. Gainera, Deriokoan espresuki esaten da nor den egilea: Juan Antonio Mogel ta Urquiza. Elgoibarkoa, osteria, badu zerbaite, besteak ez duena, hots, hitzaurre bat erdaraz, guztiz ernagarria, eta antza denez bukatu gabe dagoena.

Hitzaurre horretan esaten da katixima hau Baionako Apezpiku beneragarri batek egindakotik hartua dela, nahiz eta ez hitzez-hitz; baina ez du Apezpiku horren izena esaten. Hasi nintzen Baionako katixima horren aztarnen bila eta jakin ahal izan nuen zein zen: Lavieuxville, Baionan 1733. urtean *Bayonaco Diocesaco bi-garren Catichima* atera zuena.

Lapurdiko Bizkaikoaren iturri izanik, pentsatu nuen bidezkoa zela lapurdierazko lehenik ateratzea, eta hala atera nuen "Lekukoak" bilduman, 1985ean. Azkenik, honi heldu zitzaison aldia, eta hala agertu dugu orain bilduma berean.

Lavieuxvillegandik katixima honek daukan menpetasuna, egia esan, ez da handiegia: ez, behintzat, lehen kolpean usteko genuen bezainbestekoa. Mogel gehienetan bere bidetik dabil, bere begien aurrean daukan jendearentzat zuzendu du bere liburua, hots, baserri-giroan bizi zen Bizkaiko jendearentzat. Esan behar da, gainera, Lavieuxvilleren dotrinak 4 parte dituela; honek 3 bakarrik: Kredoak, Aginduak, Sakramentuak. Lavieuxvillek badu 4. parte bat urteko festaburu eta Liturgi-aldiei eskainia, eta hori Mogelenean erabat falta da.

Beste aldetik, berriz, hau ere esan behar dela uste dut. Kristau dotrina edo katezismoak aipatzean, umeentzat egindako liburutxoak etortzen zaizkigu gogora, eta ez da hau gure kasua. Mogelen liburu hau pertsona nagustuentzat egina dirudi. Kristau eskola aski zabala eta sakona eman nahi die horiei, eta eguneroko biziitzan gertatzen ziren gertaldi eta kasu askoren gainean argitasuna eman nahi du, kristauak nola joka behar duen jakin dezan. Galde-erantzunetan dago egina liburua, hori bai, baina askotan erantzunak oso luzeak dira: irakaslea mintzo da han, eta ez ikaslea. Egia da kristau bizitzari buruz ematen duen ikuskeria pixka bat hitsa dela, goibela, baina horretan garai hartako teologiaren menpeko dagoela esango nuke.

Guk argitalpena egitean Elgoibarko kodizea hartu dugu oinarri, baina aurreko Sarrerari eraskin kritiko bat jarri diogu, eta bertan Derio eta Elgoibarko kodizeen artean dauden aldaeren kontu ematen da. Atzekaldean, berriz, Hiztegi bat jarri zaio edizioari, liburuan agertzen diren hitz eta esaera franko jasotzen duen Hiztegia.

Zoritzarrez, eta hau uste dut dela euskal edizioetan maiz gertatzen den akatsa: zenbait errata itzuri dira, eta ez behin eta berriz inprintako frogak zuzendu ez zirelako. Nik ez dakit zer gertatzen den gure inprenteruekin, baina lotsagarria ere bada lan bat okerrik gabe gure hizkuntzan atera ezina. Dena dela, liburua inprintatu ondoren eta eskuz idatzizko kodizeaz alderatzen hasi eta

[JUAN ANTONIO MOGUEL TA URQUIZA]

CRISTAUBAREN ICASBIDEA EDO
DOCTRINA CRISTIANIA

Edizio kritikoa
Fr. Luis Villasantek
prestatua

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA
BILBAO 1987

hutsak bazirela konturatu nintzenean, esan nion gure argitalpenen arduradunari: “Zatoz Arantazura, eta nik esku iskribua eta zuk ale inprimatua eskuetan dugularik, pasada osoa eman behar zaio liburuari ‘Fe de erratas’ bat bertan ipintzeko”. Hala egin dugu eta horregatik erantsi behar izan zaio orri bat gainetik.

Esan behar da, bestalde, ez ortografia eta ez ezer aldatu gabe agertu dugula liburua. “Editio princeps” edo aurrenengoa delarik, hala behar zuen.

Erdal hitzaurrea eta bai Mogelen beste idazki batzuk ikusirik, laster antz ematen duzu liburu hau egitean zer asmo edo xede zuen —erlijiozko xedeaz gainera, noski—. Berak bizkaitar eskolatu edo landuei euskara kultur tresna edo ibilgailu izateko gauza dela erakutsi nahi die. Badaki eta, bizkaitarrek —eskolatuek behintzat— euskara hizkuntza txartzat jotzen zutela, gauza ez dena, eta ideia hori burutik kendu nahi die.

Eta bizkaieraz egiten du bere liburua. Dakizuten bezala, bizkaiera literarioaren sortzaile edo aita dugu Juan Antonio Mogel. Bidea urratu behar izan zuen. Ez zeukan bere aurretik arnasa luze edo handiko lanik prosaz euskalki horretan egindakorik. Orduan Markina aldeko euskara bizia hartuko du oinarri.

Hasierak beti izaten dira zailak eta hori nabari zaio Mogeli ere lan honetan: ahozko hizkera bizia hizkuntza landua bihurtu nahian ari da eta baditu bere zalantzak eta haztamuka ibiltzeak. Lapurdierazko euskalki literarioa ordurako finkatua eta trebatua zegoen, baina bizkaiera ez. Horregatik ere liburu hau guztiz ohargaria dela uste dut.

Norbaitek galdetuko du agian: “Zergatik ez zen argitaratu bere garaian?” Ez dakit zuzen, baina arrazoi batzuk aipa daitezke oker egoteko arrisku handi gabe: 1. Oso zaila zen argitaratzeko baimena lortzea, batez ere liburua euskaraz izanik; 2. Egileak ez zuen edizioa pagatzeko dirurik izango. Mogel bertute handiko apaiza zen; zeukan guztia pobreei ematen zien; Frantziako Iraultzatik ihesi zetozten apaizak etxean hartzent zituen; hil zenean ez omen zeukan ezer. 3. Hil ere ustegabeen hil zen; izurriak jotako gizon batzuei hiltzen laguntzen zebilela, bera ere gaitzat kutsatua hil zen; hiltzean 59 urteko adina zuen. Eginak zituen lan argitaragabeak umezurtz eta sakabanatuak gelditu ziren. Segur aski, bere iloba Juan Josek hartuko zuen horien kargua, baina hark argitaratzeko eragozpen berberekin aurkituko zen. Gero badakigu zelako gerrak egon ziren XIX. mendean.

Peru Abarca, egilea hil eta 80 urte geroago agertu zen hemen Durangon. Eta oraingo hau 180 urte geroago agertzen da Bizkaiko Diputazioaren laguntzari esker. Nik uste dut *Peru Abarca* eta oraingo hau anaia bixkiak direla alde askotatik. Gai desberdina darabilte, hori bai, baina gainerakoan arrangura edo kezka berberetik sortuak dira biak: euskara gai dela, gauza dela Bizkaiko jende ikasiari agertu edo egiaztatu nahi diote biek.

Liburuaren Sarreran xehetasun edo zertzelada gehiago jarri dugu, baina aurkezpen honetarako esandakoaz aski izango dela deritzot.

Nahi izanez gero, erdal hitzaurreko pasarte batzuk irakur daitezke. Orduko giroa ezagutzeko ez du parerik hitzaurre honek.

Esan behar da, azkenik, liburu hauek aztergai izan daitezen ateratzen direla. Azterketok egiteko daude oraindik. Egin daitezenean, orduan izango da beroien balio eta emaitzak neurtzeko garaia.

“AZKUE BIBLIOTEKA”-K ERATUTAKO ERAKUSKETAK

J. A. Arana Martija

1987

A. Pozaren mendeurrena zela eta, “Azkue Biblioteka”-k Kartografia Erakusketak antolatu zituen toki eta egun hauetan:


| | |
|----------|-------------------------|
| Urduña | Irailak 23/Irailak 29 |
| Gernika | Urriak 2/Urriak 5 |
| Leitzaga | Urriak 23/Urriak 28 |
| Zarautz | Azaroak 24/Abenduak 8 |
| Iruñea | Abenduak 10/Abenduak 20 |

1988

Erakutsitako mapa, plano eta abarrek lortu zuten arrakasta handia izan zen eta beste toki batzuetatik ere Erakusketa antolatzeko eskaria heldu zen. Euskal-tzaindiak bere bilera batetan beste bi kartografia erakusketa egitea onartu zuen. Lehena Portugaleten, Elai Alai Dantza Taldearen babespean eratua izan zen Martxoaren 28tik Apirilaren 11ra. Bigarrena Gipuzkoako Errenterian Iraialaren 5etik 30era Xenpelar Udal Erakusketa Aretoan.

Barcelonako Biblioteca General de Catalunya-ko areto batetan, Otsailaren 29tik Martxoaren 5a arte Catalunyan argitara emandako euskal liburuen erakusketa bat antolatu zen, Circulo Vasco delakoak eratutako jardunaldi batzuren barnean. Erakusketa honetarako katalogo bat argitaratu zen.

Gernikako Euskal Jaien Mendeurrena zelata, eta Gernikako Kultur Etxean, Iraialaren 28tik Urriaren 10era, 1880-1900 bitartean argitaraturiko euskal liburuen



erakusketa bat antolatu zen. Erakusketa honetarako ere katalogo bat eta kartela atera ziren.

Durangoko Liburu eta Diskoen Azoka inguruan, Udalaren Erakusketa Aretoan, Azaroaren 8tik Abenduaren 11ra arte, Azkuek **Euskalerriaren Yakintza** eta **Latsibi** elaberria ilustratzeko erabili zituen grabau, irudi eta abarren originalekin erakusketa bat antolatu zen Durangoko Arte eta Historia Musekoekin batera.

1987 ETA 1988. URTEETAN BATZARREETARA JOATEA

| 1987. urtean | Zenbat aldiz | 1987. urtean | Zenbat aldiz |
|---------------------|-------------------------|---------------------|-------------------------|
| J. Haritschelhar | 12 | E. Larre | 8 |
| A. Irigoien | 12 | P. Salaburu | 7 |
| F. Krutwig | 12 | P. Zabaleta | 7 |
| J. San Martin | 12 | J. L. Davant | 6 |
| Fr. Luis Villasante | 12 | J. Hiriart-Urruty | 5 |
| P. Xarriton | 11 | A. Zavala | 3 |
| J. M. Satrustegi | 11 | L. Mitxelena | 2 |
| F. Ondarra | 10 | E. Erkiaga | 1 |
| P. Altuna | 9 | Juan Gorostiaga | 1 |
| E. Knörr | 9 | | |

| 1988. urtean | Zenbat aldiz | 1988. urtean | Zenbat aldiz |
|---------------------|-------------------------|---|-------------------------|
| A. Irigoien | 11 | F. Ondarra | 8 |
| P. Salaburu | 11 | P. Zabaleta | 8 |
| J. San Martin | 11 | Tx. Peillen (Apirilean izendatua) | 7 |
| J. M. Satrustegi | 11 | I. Sarasola (Urtarrilean izendatua) | 7 |
| Fr. Luis Villasante | 11 | J. Hiriart-Urruty | 6 |
| P. Altuna | 10 | J. A. Arana Martija (Urrian izendatua) | 2 |
| P. Xarriton | 10 | A. Zavala | 2 |
| J. Haritschelhar | 10 | X. Diharce "Iratzeder" | 1 |
| F. Krutwig | 10 | E. Erkiaga | 1 |
| J. M. Lekuona | 10 | | |
| E. Larre | 9 | | |
| J. L. Davant | 8 | | |
| E. Knörr | 8 | | |

| Orotara | Zenbat aldiz | Orotara | Zenbat aldiz |
|---------------------|-----------------|------------------------|-----------------|
| A. Irigoien | 23 | P. Zabaleta | 15 |
| J. San Martin | 23 | J. L. Davant | 14 |
| Fr. Luis Villasante | 23 | J. Hiriart-Urruty | 11 |
| J. Haritschelhar | 22 | Tx. Peillen | 7 |
| F. Krutwig | 22 | I. Sarasola | 7 |
| J. M. Satrustegi | 22 | A. Zavala | 5 |
| P. Xarritton | 21 | J. A. Arana Martija | 2 |
| P. Altuna | 19 | L. Mitxelena | 2 |
| F. Ondarra | 18 | E. Erkiaga | 2 |
| P. Salaburu | 18 | X. Diharce "Iratzeder" | 1 |
| E. Knörr | 17 | Juan Gorostiaga | 1 |
| E. Larre | 17 | | |

EUSKALTZAINDIAREN BARNE-ERREGELAK

IX. Maiztasun-saria

51. Urtebiko bakoitzaren azkenean euskaltzain oso bakoitza batzareetara zenbat aldiz etorri den neurtuko da. Neurri hori batzar-agirian jar eta **Euskera**-n argitara bedi, xehetasunak emanez, maiztasun handie-nekotik hasi eta ttipienekoraino. Maiztasun-handien hori ohorezko sari bezala hartuko da, beste akademia batzuetan egin ohi den bezala.

HILBERRIAK

PIARRES LARZABAL

ABERTZALE, IDAZLE, APEZ ZENA

Herria, (1988-1-21) aldizkaritik jasoa

Euskaldun ainitzek, mugaren bi aldeetan, badakite nor zen Piarres Larzabal Zokoko jaun ertora, izenez eta aditzez bederen. Kasetek eta afixek berek ikasia zuketen izen hori: zenbat aldiz ez dute haren antzerkien berri eman eta zenbat herrian!

Bera ez hanbat ibiltzale, bereziki eritasuneko azken zazpi zortzi urteetan, ez eta ere lehenago, zenbat eta zenbatek ez diote ordea Zokorat, bere herri eta etxerat bisita egin! Azken hau izan da halere, nahiz doluz goibeldua, hunkigarriena: ortzegunean, urtarilaren 14ean, sei zazpi ehun jendek eskaini dioten ehortz omenaldia, meza nausi eder batekin.

Aroa eta denak alde ziren neguko goiz eztí hortan, apez abertzale baten biziko borroka ez hain eztiaren omendatzeko.

Azkaindar semea

Bere sort herriari aski hurbil ereman ditu Larzabalek azken 36-37 urteak. Azkainen sortu zen Piarres, Larruna mendiaren pentokan 1915eko maiatzaren 7an. Geroztik, beti maite ukamen du, on deno, Ixabeleneko lur harritsu xuhurreri agur batен doia etortzea, ala etxeko maitatueri ala haurreko orroitzapen sanoeri buruz.

Sanoa baita putikoa. Den hora haatik ez sekulan beretzat baina besteren oneko. Goizik entzunik elizaren eta herritarren deia, horien bien zerbitzuko dugu Jaungoikoaren apez 24 urtetan eta Hazparnerat bikario izendatua.

Baina gerla hastera doa: buru oneko apez gazte eta bere gisan pilotari lotzalea zenak behar du joan, denak utzirik: bigarren zerbitzu baten grazia aurkitzen du hor, erizaingoa, eta hori bera zaio baliatuko Alemaniako presuner erizainak beren herrirat libro utziak izanen direlarik, Euskal-Herrirat itzultzeko.

Apez xehea eta jende xehearena

Gerlatik itzulirik, Hazparnerat doa bere bikario posta doi doia jastaturat. Mirande jaun ertorarekin, H. Etcheverry eta L. Larregain lehenbiziko bikario

lagun, Mañex Arbeletche geroxago, bada zer egin Hazparnen, mila bat langile ere pasatzen diren denbora haietan herrian eta beraz gazte ainitz tokian gelditzen.

Langileria horren alde aurkitzen du Larzabalek bere bide berezia: hanbat ateratua ez den mundu horren guziaren laguntzea, argitza, sozial mailean bereziki, giritxino gatz eta biper bizixagoez berotuz eta pixtuz, bestela eztitzera lagokeen fedea, orozgainetik gazterian.

Bere dohainak hor erakutsiak baititu apez horrek, eta baita lur mota guzietarik Elizako lurretan, etsezakeen nehor hoberik hauta Mgr Terrier, orduko apezpi-kuak, **Zokoan**, Urruña, Ziburu eta itsasoaren mugetan, parropia berri baten sortzeko karguarekin ezartzeko.

Zokoan has eta has

Denak egiteko baitira Zokoan, ttikitarik hasten da ttikien adixkide hori. Horra preseski etxetto bat: barne bat edo beste badauzka “Matanta” gelariarentako, autoaren tegia gainerateko guziendako: hontan izanen ditu apezak, ez autoa, ez baitu, baina bere egoitza, errezebida, bilkurak eta oro, beste barne batean aldiz elizattoa. Hura zen hora “denen etxea”, zinezko ongietorriarena eta partimen guzienak: han, zenetik jaten eta edaten ere batzuen nornahik, mila jestu egin gabe.

Elizaren egiteari beharko da lotu halere. Larzabal jaun ertorak badaki berak hori nola planta eta ez dute ehortz egunean hor sartu direnek erranen ez zela hori, bere inguru galeriarekin eta familia haundi baten moldean, ongi asmatua. Nasai baina haundikeriarik gabe, ez galda nondik bildu duen jaun ertorak horren dirua. Galdezko akta dohainik bederen ez du apezak, ez -eta axolarik ere.

Baina beharrena badu: horra jendea heldu zaiola Zokorat, bereziki udan. Hor otoitz egiten da xinpleki, eta gauzak argitzen deplauki, hitz haundirik ez etaauxunkeriarik gabe. Egia batzu latzago botatzen baditu noiztenka mihiak, kriktau orok badakite etzela Jesus bera ere orori kausitzeagatik ari.

Anai artea

Eta hona zein diren izanen, Larzabalen bihotzean, ttikien arteko ttikienak: beren lurralaren, nortasunaren eta herri zuzenbideentzat pairatzen dutenak, guziz, lurra galdurik, hegoaldetik etorri iheslariak. Haientzat eta halakoentzat eginen da Larzabal abertzale egia batzuen predikari. Eta holako misiolari bati ez baitzaio hitza aski, bota ere beraz obrak!

Atea zabaltzen die Larzabalek anai abertzaleeri. Langile onak baitu zerbait aldiz bederen saria, ongi baliatuko zaio ondarren Zokoko apezari berari, egin ongia: berak etxerat hartu abertzale familia ukulanen baitu, azken hatseraino artaizale eta zein ederki azken otoitzetan, bere inguruan, Belen etxekanderea, bai eta honen senar eta seme alaba xarmantak.



Ikusten den zuhaitzak ez diezagula halere oihan guzia gorde: zer mundua, eta nolako zauri ixilik ez ditu Larzabalek artatu, bai Zokoko herri berrian eta bai Anai-Artearekin eta hainbeste adixkiderekin sustatu dituen laguntzen bidez. Ez ahal dute holako eta holakoek Larzabal bat ahanztekoa.

Antzerki, idazian Euskaltzaindia

Aipatu ditugun ongi eginak oro hemen laburzkiegi lerrokatu ondoan, iduri luke gizon buru haundi kezkatsu eta griñaz bete bat zela Larzabal. Eta etzuera deus gosturik izanen ez arrailleria baten ez-eta irrizasla batentzat jendartean.

Ez holakorik pentsa: kontrarioa zen eta Larzabal. Omore gaitzeko laguna, gaitzak jo eta ondoan ere ez zuen bisitari adixkidea utziko, kantu xahar edo beste, irrikarkailak eginarazi gabe. Hola zen, gaztean, nehork ez zakien moldean antzerki egiten hasi: batean dorpeak, *Oihanalde*, *Bordaxuri*, *Etxahun*, *Hiru ziren*, eta bestean zapartigarriak, *Portu-Xoko*, *Herriko Bozak*, *Mugari Tiro*, *Zuedako Nexkatxa* eta holako. Erran ditake Euskal-Herri guzia jostarazi duela epe batez Larzabalek, denbora berean pentsaketa sarkorenak egin araziz, bereziki herriaz, etxeaz edo zuzentasunaz.

Ez bakarrik antzerkietan eta toberetan. Kondairak eta kondaketak halaber aberatsenetarik dauzka beti: Larrungo betizoez ala ihizi harrapalariez ala bere herriko oroitzapen xaharrez edo zernahitaz, iturri bat badauka ahoa zabalik eta zintzurtaraka zurrupatzeko.

Aise zuten beraz Larzabal Euskaltzaindikotz berexi: damurik ez baitzitakeen joan deneko aspaldian bera biltzarretan ibil.

Bere hil ondoko predikua

Hila Espos antzerkia egina zuenak holako bat ere egin zezakeen: bere ehortz eguneko mintzaldia berak egin du. Bazuen gisala zortzi urte hontan egina bere enterramenduan Roger Idiart apezak irakurtzeko predikua. Hein bat ixiltasunekin entzun du beraz jendeak hila, bizi baten ahoz erraiten: bere eskerrak Jainkoari, familiari, herritarri, herriko elizaren garbitzale ta deneri... eta dei bero bat, testamentua moldean, pobre bizi eta pobre hil, herriarendako, euskalduneri eta apezeri.

Jainkoaren Ama kantua eman da bururatzeko berak galdu turik.

Mezan kantuak eder eta suhar, aintzinean eta ondoan txixtu, tzalaparta, bertsu (Xanpun eta Lazkano) eta aurresku (hilarriean). Jaun haundi guti han: adixkideak. Euskaltzaindiko, Enbatak, Anai Artea, Euskalzaleen Biltzarra, Herri Batasuna. E. Goyhenetche, A. Luberriaga, P. Dutournier, M. Itzaina, M. Bortayrou, Xinto, Duhourtarrak...

Pierre Moleres Baionako jaun apezpikuak egin dio ongi etorri beroa meza hastean euskara ederrean. Hitz bat aldiz erdaraz ondarrean: elizak holako batean, fededun edo gizon guzieri utzi nahi dien mezua, errespetuz eta jendetasunezkoa gutiernetik baina gehiagoko zerbaite ere sinesten edo bederen onartzen duten guzientzat, bereziki Euskal-Herriko gazteriarentzat.

Ez zena Larzabal ere gazteen aldekoa!

E. L.

Ehortz egunean jaun apezpikuak

Gorputz hunen inguruau gaudela, bihotzez agur eta ongi etorri, Piarrès Larzabal apez zenaren iloberi, etxeeko guzieri, ainitz urtez artatu duen familiari, Euskal-Herriaren lau hegaletarik bildu haurride guzieri.

Eskerrak Jainkoari, gure bidean ezarri daukun lagunarentzat: gizon apala eta xehea, ttikien eta ahulen adixkidea, pobre, iheslari, behartsu guzien laguntzailea, euskaltzain argia, idazle nasaia, euskaltzale eta abertzale suharra, fede handiko girixtinoa, kar beroko Elizartzaina.

Elizatik ez ote zagonetz doi bat bazter, arrangura dute zonbaitek. Nere aldetik, hau erran dezaket: orai urtea, Baionarat etorri berria, izan nintzaion ikusten, eta mahain baten inguruan elgarrekin goxatu ginen. Nahiz ordukotz eri handi zen, bere begiko argitik beretik ageri zuen, zer bozkarioa zuen, bere apezpikuari ongi etorri egitea.

Ez dugu gorde behar, zuen jite aberatsarekin, nekez jasaiten zituela mugak, Elizakoak besteak bezala. Bainan Elizaren baitan eta bere baitan ikusten zituen itzal guzien gatik, bere burua osoki Elizako zaukan, Elizari josirik nahi zuen bizi eta hil.

Meza huntako bildutasunean, denek gogoan ukamen dugu Piarres Larzabal apeza. Fededunek otoitz eginen dugu, bere etxea beti nor-nahiri zabalik zaukanari, Jainkoak bere betiko etxea zabal dezaion.

P. M.

JUAN GOROSTIAGA BILBAO

(1905-1988)

Jaio Deustuan jaio zen, baina berak urtebete zuelarik, familia Getxora aldazen da. Durangoko Jesuiten barnetegian egon zen ikasketak egiten. Gero, apaiz-bokazioari jarraikiz, Comillasen egin zuen hartako karrera, lizenziatura eta guzti. Ondoren Erronkari Institutu Biblikora bidaltzen dute eta han Ekiadoreko Hurbileko hizkuntzak ikasten ditu. Gaztedanik izan zuen hizkuntzearako zaletasun hau. Comillasen bere ikaskide izan zen Manuel Agirregabiria xehetasun hau kontatzen digu: “llevaba a todas partes en los bolsillos de su gardapolvo una biblioteca de libros en hebreo, griego y euskera... a quien todos le admiraban por sus conocimientos de lenguas antiguas” Ikus **Euskera** (1978), 356.

Ingurumarioko baldintzapenek baldintzatzen dute askotan gizonaren bizia, eta uste dut hori gertatu zitzaiola Gorostiaga jaunari ere. Sasoirik onenean zela, horra zorioneko gerra. Cubara abiatzen da. Han Zubizarreta apezpiku karmeldar bizkaitarrak Seminarioan irakasle jartzen du. Frantziskotarren komentuan ostatzutako zela ere badakit. Fraideek kontatu didatenez, bere gelan atril batean zabalik edukitzen zuen Azkueren hitzegia. Bere ikerketen helburua zen euskara-hitz-ondarean sailkapena egitea: alde batetik, euskarak bere-bereak dituen hitzak, eta, bestetik, kanpotik hartuak dituenak.

Gero Cubatik Mexicora joan eta han indio batzuen herrixketan jarriko da beroien apaiz bezala. Uste dut Mexicoko egotaldi horrek eragin handia egin ziola. Esaten zuen, hemengoen aldean, hiaeik direla benetako kristauak. Hona etorrira gero ere, behin baino gehiagotan egin zituen berriz itzuliak hara. Bere azken urteetan Algortako Trinitarioen komentuan bizi izan da.

Euskaltzaindiari dagokion aldetik, 1932an urgazle izendatua izan zen; beraz, gerra aurretekiko. Euskaltzain oso, berriz, 1950. urteko azken egunetan, eta 1951. urteko Apirilaren 28an Bilboko Udaletxearen egin zuen sarrera-hitzaldia, Nazario Oleaga jaunak egiten zizkiolarik ongi etorrizko hitzak. Orduan ez zegoen **Euskera** aldizkaririk, eta Zaitegik Guatemalan argitaratzen zuen *Euzko Gogoa-n* agertu zen hitzaldi hori (laburtua, nik uste). Titulua Aurkibidean dator: “Bizkai zaharreko izenak”. Ikus *Euzko Gogoa* (1952), 5-6 zenbakiek, 22. orrialdean. 1966. urtean Euskaltzaindiak liburuzain edo bibliotekari izendatu zuen.



Liburuak:

- Epica y Lírica Vizcaína antigua*, Bilbao, 1952.
Vocabulario del refranero vizcaíno de 1596, Salamanca, 1953.
Historia de la anteiglesia de Guecho, Bilbao, 1953.
Antología de poesía popular vasca, San Sebastián, 1955.

Artikuluak:

“El testimonio de la lengua en la Prehistoria. Ensayo de Paleontología lingüística vasca. Otro aspecto de la antigua religión euskaldun. Los nombres vascos del día festivo”. **Euskera** (1934), 274.

“El fondo primitivo de la lengua vasca o los grupos etimológicos” BAP (1953), 545.

“Toponimia céltica del País Vasco” BAP (1953), 211.

“Diccionario etimológico de la lengua vasca” **Euskera** (1958), 63.

“Euskera bat edo unificación del euskera” **Euskera** (1959), 96.

“Juan Antonio Mogel ta historia aurreko Espaiña” **Euskera** (1960), 168.

“Los nombres vascos de los días de la semana” **Euskera** (1959), 87.

“Los nombres vascos de los meses” **Euskera** (1958), 51.

“Polifacética tradición euskalduna” **Euskera** (1960), 317.

“Urtzi-Dios” **Riev** (1934), 672.

Erkiaga jaunaren sarrera-hitzaldiari berak eman zion erantzuna. Ikus **Euskera** (1974), 349.

Euskaltzaindian egin zuen azken hitzaldia Nazario Oleaga zenaren omenaldian izan zen. Ikus **Euskera** (1984), 491.

Beste aldizkari batzuetan ere baditu artikuluak: *Gernika, Munibe, Helmantica, Euzko Enda, Euzko Deya, Eusko Jakintza, Zumárraga*, etab. Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia*-n datozen letrakatuak. Asko azpimarratzen zuen Gorostiaga jaunak latinak eta erromantzeek euskaran izan duten eragina. Berak zioenez, ez dugu euskararen historia sekulan ulertuko ez badugu kontutan hartzten hizkuntza honek erromanzazioitik hona beti izan dituela etxe-lagun bezala latina eta erromantzeak.

La “Gran Enciclopedia Vasca”-n ere egin zituen argitalpen edo bir-argitalpen batzuk. Hitzaurrea ere egin zion Retanak ateratako Azkueren edizioari.

FLV aldizkarian ere baditu lan batzuk, hala nola:

“El fondo primitivo de la lengua vasca” FLV (1982), 105.

“La niña arrebatada por la lamia” FLV (1984), 129.

Bere amets handiak izan ziren euskararen etorkia eta kristautasunaren lehen urratsak Euskal Herrian arakatzea. Ez dakit bere paperen artean horretzaz zerbait utzi ote duen.

Arana-Martijari esker ikusi ahal izan ditut *Galea* Getxoko aldizkariak orain-tsu eskaini dizkion artikulu batzuk. “Ermitaño urbano” deitzen zaio bertan. Ekainaren 7an hil zen.

Goian bego gure euskaltzain eta adiskide jatorra.

L. V.

IGORRE-KO JULEN AITA **(1898-1988)**

Yurre-tar Yulen Aita, berak azken denboretan idazten zuen bezala, Bizkaiko Igorren, Arratia ibarrean jaioa da. Herriz Nikolas Barrenetxea Uribasterra zuen izena. Jaio 1898.urteko abenduaren 3.ean jaio zen; hil berriz aurtxoaren 27.ean., Erramu Igandez. Hamabi bat urteko mutikoa zelarik, Bizkaia utzi eta gero hilko zen Altsasuko kaputxinoen komentura abiatu zen, fraide izateko asmoarekin. Filosofia eta teologia Hondarribian eta Iruñean egin zituen, eta 1923. urteko martxoaren 31.ean apaiztu zen.



Bere euskal zaletasunak bultzaturik, oraindik ikasle zelarik hasi zen aldizkarietan idazten bai hitz laxoz eta bai hitz neurtuz. Bere lehenbiziko olerkia eta prosa *Zeruko Argia*-n ikusten ditu argitaratuak. Gainera Intzar Damaso Aitaren

laguntzaile haundia izan zen aldizkari horren lanetan. Baino hainbeste maite duen euskara eta Euskalerria utzi behar ditu, nagusiek Txinara mixiolarri bidaltzen bait dute 1927.urtean. Txinan egongo da hogei-ta-sei urtez, handik ere maiz idazten duela *Zeruko Argian*. Komunistek botatzen dute, eta zenbait hilabete Filipinetan igaro ondoren, 1954. urtean Aberrian dago berriz ere eta Altsasuko komentua izango da haren lantegia.

Ez du euskal aldizkaririk, ezin du beraz euskaraz idatzi. Hala ere, badu non eta nola lan egin euskaldungoaren alde. Sakanako herriek ongi ezagutzen dute kaputxino txiki eta bizkorra, berarekin aitortzen dira eta haren predikuak entzuten dituzte. Bi leku ditu maite ezer bainoago.

Prest zegoen Aralarko Santutegira joateko, behar zen guztietan. Altsasutik trenbidez Uharteraino, eta gero hemendik oinez aldapa gora San Migelaino, hemen euskaldun jendeari pozik languntzeko. Behin baino gehiagotan egin dugu bide hori berarekin, Zamartze baselizaren aldamenetik, burnizko gurutzearen ondotik, ezker-eskuin trikuharriak (Hartzabal, Otsopasaje) genituela. Euskara izaaten zen gure mintzagaia.

Guk ezagutu genuenean 66 urtekoa zen bera. Fraidekide guztiak harriturik zeuden Igorre-ren ibilaldiekin. Ez Aralarerra bakarrik, joaten zen baita ere Urbira, Aita Lasarekin batean euskal artzaineri laguntzera. Trenbidez Altsasutik Otzaurtera, eta hemendik gora oinez.

Ibiltari eta ibiltzaile haundia izanik, maiz topatzen zen inguruko mendi, baso eta dermoietan jende xumearekin: langile, nekazari eta artzainerkin. Orduan ere, besteak beste ahalegintzen zen euskararekiko zaletasuna eta maitasuna pizten. Beti eta eten gabe saiatzen zen herriaren bihotzean gure hizkerarenganako garra bezirkirik egon zedin.

Esan dugun bezala, gazte-gazte zelarik hasi zen euskaraz idazten. Batez ere *Zeruko Argian* agertu ziren haren idazlanak. Ez dugu ahaztu behar gudu ondoko *Zeruko Argiaren* zuzendari izan zela denbora paska batean. Idatzi eta argitaratu zituen liburuak, berriz, hauek dira:

1. Bedoña-tar Joakin “Loramendi”ren *Olerki eta Idatzi Guztiak*, 1960;
2. *Loramendi eta haren gararia*, 1962;
3. *Batikano Batzarra, lenengo aldia*, 1965;
4. *Batikano Batzarra, 2., 3. eta 4. aldiak*, 1967;
5. *Mao tse-tung*, 1978;
6. *Mao tse-tung, 1936-1954*, kronika eta bigarren zatia, 1987.

Horiek dira egin zituen lanak. Baino besteri ere lagundu zion euskarari buruzko ikerketa lanetan. A. Kandido Izagirrek zintzoki aitortzen du Igorre-k lagundu ziola Altsasuko euskara ixtadiatu zuenean “atzerarre guzietan eta bero-nek arkitu dizkit”, dio, “lankide onenak erri ontan”. Pedro de Yrizar-ek ere A. Igorrerengana jo zuen eta honek pozik lagundu lekuko onak bilatzen, Altsasu eta Olaztiko aditzari buruzko iker lanetarako.

Azkenik, Altsasuko kaputxionen elizan, berari esker, eman izan da meza bat euskaraz altsasuar jatorrentzat. Eta bertako ikastolan ere egin zuen lanik, ahal

zuen neurrian. Beraren euskal zaletasuna neurtzeko ez dugu isilik gorde nahi, berak behin batean eta bat ere arrokeriarik gabe esan ziguna, alegia, Txinara bidali izan ez balute, Azkueren hiztegia buruz jakingo zuela.

Arrazoi guzti horiengatik Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen, Donostiako Diputazio Jauregian 1983.eko martxoaren 23.ean izan zen bilkuran.

*Lekaroz, 1988-IV-29
Frantzisko Ondarra*

MIGEL JABIER URMENETA **(1915-1988)**

Bere 72 urteekin gaztetasunez hil dela 1988ko ekainaren 12ko eguna argitzean Migel Jabier Urmeneta irunscheme ospetsua, esan du norbaitek. Eta ongi esan ere, ilunabarraren beha egon gabe joan baita. “Memoriak” idazteko presarekin; Madrid, Portugal eta Iruñetik margo eta marrazkien erakusketak egiteko eskariak eskuan zituela. Odolaren indarra eta bizia bera jaten zihoa kion leuzemiarren berri jakinki, ez zuen inoiz bizi nahiaren eragin pozgarria galdu. Zortzi-hamar kilometro egin ohi zituen egunero zukurra eskutik hartuta hain ongi ezagutzen zituen Iruñea inguruko bideetan zehar. Eta egunak bazuen halare beretzat euskaraz mintza praktikak egiteko txoko bat.

Urmeneta bezalako nortasun emankorreko gizon baten aipamen zehatza egitea ez da erraza. Hamabi haurrigeren anaia zaharrena Iruñeko familia oso abertzalean jaio zen 1915eko azaroaren 26an.

Bizi behar izan zituen denboren fruitu edo emaitza zela bera, ez gertakizunen sortzaile, esan ohi zuen apalki. 1936eko uda gorrian, Salamankan Zuzentza ikasturteak burutzeko gai soil bat falta zuela harrapatu zuen gerrateak, eta hiru urte baxterrak baretu bitartean ez zuen titulua lortzeko biderik izan. Beste 45 urte igaro behar izan zuten, erretiroko adina bete ondoren legegizonak bere bulegoa Iruñean ireki arte.

Gerrateak eragin nabarmena izan zuen bere gaztaroan. Beranduago ulerkaitzak zitzazkion arrazoiengatik “División Azul” famatuari Errusiara joan zen kapitain graduarekin. Gero, Militar Estatu Goreneko diploma jaso zuen 1944ean eta Estatu Batuetako *Fort Cleveland*-era bidali zuten agintariekin.

Ezin zen dizdiratsuago somatu bere etorkizuna, baina hamasei urteren buruan aitaren heriotzeak aldatu zuen Migel Jabierren biziko izarra. Iruñeko Udal Aurrezkiaren Zuzendaria zen hora, eta Estatu Batuetan zuen kargua utzi eta etxera itzuli zen aitaren lanpostua betetzeko.


Geroztik, Granadan Gobernadore Zibila baino nahiago zuen Iruñean alkate; eta Madrilen Ministro ez baino, Nafarroan diputatu geratu zen. Madrilgo Gobernuaren Ordezkari izendatu nahi izan zutelarik Euskal Herri guztirako, sasoin hartan iraultzaleak ziren baldintzak ezarri zituen bere aldetik kargua hartzekotan: ikurrinaren onespina, autonomia eskuratzeko segurtapena, amnistia orokorra eta Estatuko Segurtasun Indarren kontrola.

Begitarte zorrotzaren seriotasuna galdu gabe, irribarre emankorra zerion ezpainei berri hori aitortu zidan unean.

— Oraintxe etengo ditu Madrilek zurekilako loturak, esan nion harriturik neure etxeko sutondoan.

— Berdin zait, erantzun zidan urduritasunik gabe irribarreali fier atxikiz.

Ez zizkioten baldintzat onartu, noski, eta eguneroko lanbidean jarraitu zuen adina bete arte.



Iruñea eta Nafarroa izan ziren bere amodio zabalaren zero urdinak. Kaleko biztanleen alkatea zen hiriburuan, zuzenean jasoz euren kezkak. Industriagiroaren bide berriak urratu zituen Nafarroarentzat Diputazioan. Zapalduen eskari xumeak zituen beti mahai gainean, eta "Misericordia" etxera bidali ohi zituen esker onez jasotako bere opariak. Azken denboretako irunscheme ospetsuenak jauntasun gorenarekin uztartu zituen zintzotasun leial eta bihotz amultsua.

Euskaltzalea

Urdin-ilunez oso apain jantzirik begiztatu nuen lehenbiziko aldian Luzaiden 1956eko "Bolantetan". Nafarroan zehar euskara mintzo zuten haurrak saritzeko xedea zerabilen ordurako eskuartean. Ekintza xume bezain ereintza baliotsua gertatu zen Nafarroako euskararen negu beltzean. Haize berrien bolada izan zen askoren kontzientzian agintarien babesarekin euskara sukaldetik plazaera eramatea. Pizkunde itxaropentsuaren hasiera amesgarria.

Hamar urte iraun zuen herriz-herri haurrak saritzeko lanak, eta piztutako sua bizirik mantentzeko asmoz, Urmenetaren itzalean sortu zen 1966ean *Principe de Viana* euskal aldizkaria. 7.000 ale atera ohi ziren hilero.

Hizkuntza bizia eta gai arruntak erabiltzea eskatzen zigun herritarrek ulertze-ko moduan. Ardi hilaren inguruko artzaien bilera zitzaion jakintsuen eztabaidea hutsean uztea euskara.

Ez zuen, noski, ikerketa gaizki ikusten eta diputatu aulkitik gogotsu bultzatu zituen 1969an beste bide batetik abiatutako FLV eta CEEN aldizkariak. *Fontes-en* lehen zenbakian berak zuen aurkezpena.

Ikastolen sorreran Diputazioan zegoen eta asko erraztu zituen legezko oztopoak. Horretaz kanpo, bestelako eskoletan euskara ikasi nahi zuten haurrentzat ordu erdiko ikastaroak ezarri zituen egunero Diputazioak ordaintzen ziela irakasleei.

Baina etorkizunak kezkatzen zuen eta euskararen aldeko lege bat aurkeztu zuen Diputazioan. Agintea utzi aurreko azken batzarrean onartua izan zen, zoritzarrez jarraitzaileek zokoratu eta inoiz bete ez bazuten ere. Euskarari bultza-da gehiegi ematearen beldur ziren ondorengoa.

Iruñeko Udal Aurrezki Kutxan ere ezarri zuen euskararen aldeko ezaugarria: olerti eta eleberri laburren Nafarroako sariak sortu zituen euskarazko lanentzat.

Lortuak zituen hainbat izendapen era guzitakoak eta euskararen alde egindako lanek ere merezi zuten ezaugarriren bat. Hori dela eta 1966ean urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak.

Euskarra ikasi zuen baina trebetasun gutxi baitzuen bapatean mintzatzeko, mintza praktikak egiten ari zen lagun batzuren arteko taldean. Erdaraz idazle txukun eta garbia zen, baina hala beharrez edo, bere biziko azken lana euskaraz egina du. Hilauurreko astean bidali zuen Udaletxera San Ferminetako programa ofizialerako eskatua zioten izkribua euskaraz.

Goian bego Jaun haundi, euskaltzale jator eta adiskide mina.

J. M. Satrustegi

BATZAR TXOSTENAK

GRAMATIKA

STRESS AND PITCH

(Luis Mitxelena zenak utzitako langaia)

Arratsaldeon guztioi.

0. Dakizunetan Koldo Mitxelena zenak euskal azentuari buruz utzi zituen erabat nahasi paper batzu, Euskaltzaindiari Txillardegiak egin zion proposamena komentatuz eta puntu batzuetan kontrako arrazoia naba-riak iruditzen zitzaitzak agertuz. Eta hemen nauzue paper horiekin bueltaka aritu ondoren, Mitxelenak zuen eritziaren oinarriak argitzeko bidea topatu nahik, nahiz eta eginkizun hau aurrera eramateko pertso-narik egokiena ez izan. Badakizue ordea hemen zaudeten guztiok gauzak honela etorri direla, bere emazteak paper hauek nere eskuetan utzi nahi izan zituenetan gero. Damurik eta zoritzarrez lana oraindik oso gordin zuelarik eraman zuen heriotzeak eta nik ezin izan dut, egia esan, paper horietatik argibide handirik atera. Ez dut uste ere hori denik nere egite-koia, Mitxelenak utzi zigunaren berri ematea baizik. Euskaltzaindiak badu bere baitan paper hauen muina nik baino hobeki ikertuko duenik.

1. Los papeles que Koldo Mitxelena ha dejado en relación con el problema del acento vasco estaban en el interior de una carpetilla azul, en cuya portada, y bajo el emblema y nombre trilingüe de *Euskaltzain-dia*, puede leerse el título “Stress and Pitch”, con el cual Mitxelena quería hacer relación al hecho de que, en euskera, el problema del acento está inseparablemente ligado al de la entonación, consideración sobre la que, a título póstumo, nos ha dejado aún algunas líneas escritas. En efecto, en su libro *Palabras y textos*, editado por el Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco hace apenas unos meses, dice Mitxele-na lo siguiente:

“14. A note on Old Labourdin accentuation


La clasificación de tipos acentuales que ahí se presentó adolecía de muy graves defectos, entre los cuales estaba la escasa fijeza de las fronteras, más las *terrae incognitae* reales o posibles.


En cuanto al tipo I, que es posiblemente el más importante en la realidad actual, tengo ahora el resultado de unas pruebas hechas por Emilio Alarcos Llorach en la Facultad de Filología de la Universidad de Oviedo, que además tuvo la amabilidad de comentar enviándome también un esquema de la entonación que no incluiré aquí, por creerlo innecesario. La carta es del 15 de julio de 1977 (fecha ya antigua, pero demasiado reciente para que pudiera hablar de ello en *Fonética histórica vasca*³) y el material comentado consiste en los espectrogramas de dos palabras, *galera* y *galdera*, que tuve que pronunciar yo mismo. La audiación de su registro me pareció, con todo, enteramente normal. Vamos, por lo tanto, a sus palabras:

“Te he puesto un esquema de la entonación (como se trata de alturas relativas, el valor en c/s no tiene importancia). Lo que se ve es que *galera* es ascendente todo el tiempo hasta el final de -a en que, como es lógico, cae el tono. En cambio, en *galdera* la mayor altura se alcanza en la a primera y luego va descendiendo paulatinamente hasta el final. En el otro espectro la parte de arriba es el *amplitude display*. Se ve bien claro que *galera* tiene las tres vocales bien acentuadas y algo más la -a: mientras, en *galdera* es considerablemente más intensa la primera a (y a mí, claro es, me suena a esdrújulo, cosa que no ocurre con *galera*).”


En calidad de material de trabajo, adjunto, por mi parte, los espectrogramas enviados por Alarcos a Mitxelena, así como el esquema de entonación dibujado a mano por el propio Alarcos, por si puede ofrecer algún interés a los especialistas.

2. Como es sabido, Mitxelena hizo una clasificación en cuatro tipos del acento vasco (el primero de los cuales, al que llamó *Tipo I*, hace referencia precisamente en el párrafo que acabo de citar), que Txillardegi ha considerado oportuno reducir a dos: el primero, que denomina *Mendebaldeko azentu-mota* (W), absorbe los *Tipos I* y *IV* de Mitxelena, y el segundo, llamado *Ekialdekoa* (E), incluye los *Tipos II* y *III*. La propuesta de unificación del acento hecha por Txillardegi está basada en el Tipo W (*Mendebaldeko*). Pues bien, Mitxelena, en sus papeles, parece aceptar esta división en estos dos tipos de acento, pero pone algún reparo al establecimiento de sus límites (seguramente a los límites que él mismo había indicado); de alguna señal que ha dejado sobre el mapa que aparece en el libro *Euskal Azentuaz* de Txillardegi, así como de un párrafo escrito, se deduce que el tipo W debería tener sus límites más al sur por la parte baztanesa.





Espuma de la autoración



3. Por lo que se refiere al fundamento teórico-lingüístico en el que Txillardegi basa su tesis sobre el acento vasco, que está expuesta en su Tesis Doctoral publicada como *Euskal azentuaz* (Donostia, 1984), Mitxelena ha dejado algún apunte breve en el que hace constar su discrepancia. Me voy a permitir omitirlo en esta ocasión, no sólo porque se trata de cuestiones excesivamente técnicas, sino porque tengo la intención de publicarlo, ampliado con el resultado de mi propia investigación sobre *Fonología Métrica* y otras consideraciones *extramétricas* en un plazo de tiempo breve.

4. Hay, por otra parte, algunas observaciones que Mitxelena ha dejado anotadas sobre cuestiones métricas (me refiero al *verso* en esta ocasión). Creo que tienen un interés muy especial para quienes trabajan sobre estos temas, que, además, son particularmente polémicos en este momento. Como tales temas escapan por completo a mi competencia, me limito a presentar fotocopia de las anotaciones manuscritas dejadas por Mitxelena, para que puedan ser consultadas y estudiadas por los especialistas.

"Maurice Grammont, *Petit traité de versification française* 5^e tirage 1969. Librairie Armand Colin. Collection U.

5. Dans nos plus anciens verses français le vers... un élément ling. comptant un nombre déterminé de syllabes, dont certaines sont obligatoirement accentuées...

/Les plus anciens vers français/ Dans tous les vers fr. la dernière syll. qui compte est obligatoirement accentuée. Le vers de 10 syll. avait une autre syll. obl. accentué; c'était ordinairement la 4^e et quelquefois la 6^e; elle était suivi de la césure. Le vers de /6/ 12 sylls. avait aussi une autre syll. accentuée à place fixe et suivie d'une césure, la sixième.

p. 6 //jusqu'au X^e s. incl.//

Euskal azentua, Donostia 1984.

55. Azentuaren azterketa razionalizatzerakoan egin diren saioen multzoan, tresna azkarra da *Fonología metrikoa*: bai azentuaren lekugune edo posizioaz, are azentuaren balioerrelatiboa ere, bide egoki bat eskaini du /... zuhaitz metrikoak.../ Traba bakarra hauxe: euskalkiaren deskribapen zehatz eta fidagarri bat izan behar.

a) *Foot* delakoen antolakera, eskuinetik, ezkerretara estate baterako. HN

b) *Feet* horien markaketa: *sw*, adibidez Eta azentua argitu egiten da.

Arazorik zailena, beraz, hizkeraren azentu-posizionaren *deskribapen irmo eta zehatzean* datza. /erraza Z=HN/

427. Bruce Hayes, *A metrical theory of stress rules*, Univ. of Indiana, 1981; gehi *Lang. aldizkarian gai hauetaz argitara dituen artikuluak.*

Bruce Hayes. RA on Attridge. The rhythms of English poetry, 60 (1984), 914-23.

Bonny John Seton:

| | |
|--|-----------------------------|
| Upón the eighteenth dy of June | A dr  ary dy to s  e |
| The s  uthern l  rds did pitch their c  mp | Just at the br  ide of D  e |

Colon (foot, foot):

O Tite tute Tati, tibi tanta tyranne tuliste.

Ibant obscuri sola sub nocte per umbras

Barbara... Andra moi

Scopgedichte die vierhebige Langzeile

Die beiden Kurzzeilen sind durch den Stabreim miteinander verbunden, derart, dass die erste Hebung der zweiten Kurzzeile den Hauptstab tr  gt und die beide Hebungen der ersten Kurzzeile die Nebenst  be tr  gt. Drei St  be sind die Norm.

Hiltibrant enti Hadubrant untar herium tw  m.

Ek HlewagastiR HoltingaR horna tawi  o.

| | |
|--|---|
| Malum dabunt Metelli Naeuio poetae | Virum mihi, Camena, |
| noctu Troiad exibant capitibus opertis | tuque mihi narrato / omnia disertim. |

| | |
|--|-----------------------------------|
| Mon âme a son secret, ma via a | Il est un nom cach   dans l'ombre |
| son myst  re, | de mon âme |
| Comme un vol de gerfauts, hors du charnier natal | |

Jean Haritschelhar, *L'oeuvre po  tique de Pierre Topet-Etchahun, Euskera* 14-15, 1969-70. Le Club du disque basque, Mus  e Basque,

  rx'aphal bat bad  g   herrian tristerik / barnetik /   tzirik / adixkidik

3. erraiten / gin  n / egonen / etxekeu  n

4. erraiten? / asetzen? / prebalitzen / zir  n

M  ndian malerusik ms.

6. aproba //aprob  // dembora / herra / malurra. 10 falta / ? / ukha / pacencia / gait  a

15. erretora / lioba / obra / cihaurenekila 18.et  ahon / ondon / Iguelon / Ciberon

tausat = tauskit

zi tausat, ~~tauskit~~ ^{tauskit} ~~tauskit~~

II p. 4 Berse lane / Baduta nc²

Bamins berain / Embait berain

Edu ihatum zapasa.

7. Halar / Nalas!

V, 16. Vzi sizaden mang baizawat

Exequitario Enis ausat

17. Hilen d'eta su / sivate hozparu

VII. 19. ene pena / nc muen maiteua

See. -a or -á?

Bi berset dolorusik

9. banütin / beinin / neron egin / libertatin / artin

Complainte Heguilus, 1848, Khantore berria, 624 s. bertso papera

4. emastic / helakhit! / profeituric / hil urhenturic

13. / p. 628 / punituric / garbituric / utciric / salvatcecos cien buric
"zuen buruak"

- 4 verain / lezain
 [lésain] / [letsain]
16. bai zausat / ems... ausat
 ni hau temanic / gaxoa nac
- 17 (hospita) peta fu
 vous êtes par rapport
 à moi

Azentudun azkena eta azentugabea berdin neurtzen dira.

Errimarako, azken bokala da bakarrik premiazkoa: ez “coda” eta ez “onset”.

426. *L'assonance ne porte que sur une voyelle*, la dernière du vers, c'est-à-dire, comme en esp., lorsque le vers assonancé est *agudo*. Le poète soul. Pierre Topet-Etchahun (1786-1862), 1969

427. esklabo / establian lo / gero / etsaier so / ezarteko / lekhai. 1.^o, Ahargo eta Kanbillu, 4: Oloruen / manduen (tzat) / Barkoxen / astuen (-tzat). 416

449. Il n'y a donc pas corrélation entre le rythme du vers et le rythme musical et plus particulièrement à la rime lorsque, comme c'est le cas pour la 2.^e strophe, celle-ci est faite de participes passés en *tū* qui, en soul., sont paroxytons alors que l'accent musical portant sur la dernière syllabe réclamerait un oxyton. Cf. Oih.”

Gabriel

Lérdundi, $\underline{\underline{x}} \underline{\underline{x}} \underline{\underline{x}}$

appui long de pose $\underline{\underline{x}} \underline{\underline{x}} \underline{\underline{x}}$

simpée d'enchaînement $\underline{\underline{x}} \underline{\underline{x}}$

$\underline{\underline{x}} \underline{\underline{-}}$ des-rhythme $\underline{\underline{x}} \underline{\underline{-}}$ d-tempo
 $\underline{\underline{-}} \underline{\underline{-}}$ tris- $\underline{\underline{-}} \underline{\underline{-}}$ hr.

$\underline{\underline{-}} \underline{\underline{1}} \underline{\underline{-}} \underline{\underline{1}} \quad \underline{\underline{-}} \underline{\underline{1}} \underline{\underline{-}} \underline{\underline{1}}$

$\underline{\underline{-}} \underline{\underline{1}} \underline{\underline{-}} \underline{\underline{1}} \quad \underline{\underline{x}} \underline{\underline{-}} \underline{\underline{x}} \underline{\underline{-}} \underline{\underline{x}}$ Sétoys. ternaire

$\underline{\underline{x}} \underline{\underline{1}} \underline{\underline{x}}$ compl. d'appui
rad. nom/verb. $\underline{\underline{-tu}}, \underline{\underline{-i}}$
rad. $\underline{\underline{-tsé}}, \underline{\underline{-te}}$

[Kantu, Kante, etc., conn nahi
duela dirudi]

$\underline{\underline{x}} \underline{\underline{x}} \underline{\underline{x}}$ $\underline{\underline{-}}$ $\underline{\underline{x}} \underline{\underline{-}} \underline{\underline{x}}$ rad.

$\underline{\underline{x}} \underline{\underline{-}} \underline{\underline{x}} \underline{\underline{x}}$ rad. $\underline{\underline{1}}$

Jamá... au e Rini
ta ti sole le ti
zaspí intén unnam

transcrite ortho
X et Ker 2. Roman Basque-ni amendiin
1983, 347-413

- b) Urrian beste hiru miaketa berri aurkeztu ziren inkestagileen bileran; lehena G. Aurrekoetxeak burutua (*EHHA: inkesten 2. azterketa-*

*dia), zeinetan lexikoaz landako emaitzez aritzen baitzen; hots, morfolo-
gia, sintaxia eta fonetika arloetako erantzunen egokitasunez, hain zuen
ere.*

c) Bigarrena zera da: X. Videgainen “Oharrak inkestagintzari buruz”. Lan honetan gaiaren ingurua arakatzen zen. Aurreko bi lanetan inkestaren kalitateaz ihardun bazeen oraingo honetan inkestaren kantitateaz, nolabait esateko, arduratzenean; hau da, galdeztenean inguruneaz, hain zuen. Bi alderdi hartzen ziren kontutan: hizkuntzari buruzko oharrak eta entziklopediari buruzkoak. Haietan galderaren inguruan bildutako hitz interesgarriak, egitura sintaktiko ohargarriak, erregistro-mailari buruzko oharrak, lekuoaaren meta-hizkuntzazkoak, esaera eta gonparaketak. Hauetan lekuoei esperientziak erakutsitako jakitatea, narrazio etnografikoak eta sineste edo praktikak.

d) Hirugarrena G. Aurrekoetxeak burututako “EHHA: inesta eta zintak” dugu. Inesta-puntu ezberdinak inkestetan iraupena zuen aztergai.

Azterketa hauek inkestagile bakoitzak beste lankideen lan-moldea jakin zezan burutu ziren.

3. Informatizapena

Inkestagintzan ezeze, informatizapenean ere aurreratu du proiektuak 1987. urtean zehar, gura adina ez bada ere.

Puntu honetako arazo larriena, hau da, Euskaltzaindia eta CNRSn arteko hitzarmena zuzentzen eta bideratzen eman da urte osoa. Hala ere ez da nahi bezainbat aitzindu, ezta gerorako oinarririk finkatu.

Itun hau ezinbesteko da, bestalde, orain arte Strasburgeko iker-taldearekin izan diren harreman pertsonalak ofizial daitezen, bi erakunderen arteko harremanak bihurtuz.

Baina oraindik ezin daiteke esan noizko izanen den kontratu hori, presa handikoa bada ere. Esan behar da, bide beretik segituz berreskurtu ezinezko denborara hurbiltzeko arriskutan gaudela une honetan.

Bien bitartean funtzionamendu-programa laburra egin eta praktikan jarri ditu informatikariak; jada, galdekizun osoa eta lan-fitxategi ezberdinak informatizatu direlarik.

Beraz, alor honetan datu prozesaketa eta kartografiarako programa nagusia da falta dena, zeina egiteko Strasburgen “Atlas linguistique et ethnographique de la Lorraine germanophone” egiten ari diren hizkuntzalari eta informatika arazoetarako dituzten laguntzaileekin izatea guztiz preminazko ikusten baita.

4. Artxibaketa

Inkestak bildu ahala, eta materiale magnetikoa artxibatuz goazelarik buruan geroago eta kezka handiagoa sortuz doakigu, materialea ahal denik eta ondoen kontserbatzeko baldintza egokiak bildu asmoz.

Jadanik 1.000 ordu baino gehiago jasoak ditugu. Atlas lanak bukatzean 3.500etik 4.000ra ordu izango ditugu bilduak. Aberastasun ikaragarria, sekulan Euskal Herrian zintatan bildu ez dena. Materiale uniformea, Euskal Herri osoko eskualdetan materiale berdintsua biltzen duena.

Denok dakigu zenbat denbora eta izerdi kostatu den horrelako bilketak lan bat aurrera ateratzen: proiektua egin, dirua bildu, lan-taldea osotu, eta erosoenak ez dena, materiale bilketa bera.

Hainbeste kostatako eta hain oparoa den materiale hau ezin da hor bazter batetan utzi ondo eta seguru kontserbatzeko behar beharrezko diren baldintzak jarri gabe.

Baina kontserbaketa bera ere ez da erraza zoritzarre. Baldintza fisikoak egokiak behar ditu: gela edo lokal egokia, tenperatura jakina eta egonkorra, berdin hezetasunari dagokionez, hauts eza, kanpo magnetikorrik eza, eta abar.

Bestalde, kontserbaketa on batetarako entretenimendu bat behar dute (“efecto copia” deitua ez sortzeko)...

Areago oraindik, ez da ahantzi behar aditurek aholkatzen duten segurantzazko kopia. Baino ez noa neurri hauei buruzko nire jarduna luztzen, jadanik argitaratuak diren lanak jarraitu besterik ez baitira egin behar.

Gaur arte egoera koiuntural honetatik irteteko burdinazko armairuetan gordetzen ditugu, tenperatua egonkorra duen gela batetan. Baino argi dauakagu epe laburrera soluzio-bide bat aurkitu behar dela.

Eta bide ezin-hobea litzateke Euskaltzaindian behin baino gehiagotan aipatu den “fonoteka” eraikitzea, materiale hori luzaroan kontserbarea nahi badugu bederen.

Hemendik dei bat egiten diogu Euskaltzaindiari “fonoteka” hori eraikitzeko urratsak ematen has dadin, “Azkue biblioteka”ko erregela berezietako 4.4. saila garatuz edota beste erakunde batekin batera.

Beraz, eta amaitzeko, esan liteke bide onetik doazela Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren lanak nahiz aise uler daitekeen atzerapena ezagutu duen. Baino badela oraindik zenbait gauza eginkizun eskuartean.

ONOMASTIKA

GIPUZKOAKO EUSKAL TOPONIMIAZKO MATERIALEAK

Donostia, 1988-I-29

Luis M. Mujika Urdangarin

Herri baten toponimi-materialeak balio historiko, fisiko, topografiko, kultural eta ekologikoa duten iturri aberats gerta daitezke. Toponimia, ala ere, hizkuntz gertakizuna da, nagusiki, eskualde batean mintzairaz zehatz batek eduki duen bizitza eta indarraren islada ukaezin baita. Euskal toponimiaren kasuan nabarmen dira izen nabar eta ugariak, oso maiz, aski arkaikoak, gure lurrazen zokogune bakoitzaren adierazgarri bezala, hots, gure lur, zelai,akan, ibar, haran, soro, oihan, malkar bakoitzaren lekuko gisa. Euskal lurrardearen izaera malkartsuak egiten du gure toponimia herri zelaitsuena baino ugariagoa izatea, adibidez, Gaztela, Aragoa eta Kataluniako parte nagusi batekoan baino oparoagoa.

Guk gure materiale hauetan, Gipuzkoako probintzian soilik, 120.000 inguruko toponimo kopurua bildu dugu, toponimoen aldaki (variante) dialektal eta behedialektal gehienak jaso ditugularik.

Euskararen ezagutza sakonago baterako beharrezkoa da materiale hau biltzea gerora euskararen lexikoa, konposakerako legeak, fonetika eta dialektologia zehatz sakonkiago azter dadin. Beraz, toponimia, hitz arkaitz aunitz gordetzen duelarik, eremu aproposa da gure hiztegia hedatzeko eta, baita, euskalki bakoitzaren mugak ere hobekiago zehazteko.

Guk eskaintzen ditugun materialetan, bada, halako toponimoaren lekukotza ematen da, lekuizenaren kokatze topografikoa egin gabe, nahiz-eta aunitzetan zehaztapen hori ere eman. Kokatze hori, noski, ekipolangan baten eginkizuna litzateke, berak dituen zaitasunengatik. Dena dela, guri toponimoa *hizkuntz-fenomeno* gisa interesatzen zaigu hemen, bereziki.

I. MATERIALE TOPONIMIKOAREN ALDE ZENBAIT

Bilduriko materiale toponimikoak onomastikaren esanahi zabalean ulertzten ditugu, ezen-eta bertan oikonimiari, fitonimiari, hidronimiari, oronimiari, patronimiari dagokion izen-multzo aunitz sartzen baita.

Toponimi-materiale horietako alde nagusienak atalez-atal hauek lirateke:

- a) Herri-izenak. Toponimia nagusia.
- b) Mendiak (muinoak, lepoak, hegiak, mendateak, tontorrak, arroak).
- c) Zelaiak edo lautadak, haranak, ibarrak.
- d) Oihanak, malkarrak, sasitzak, txaradiak.
- e) Belardiak, larrediak, soroak, lurtsailak, baratzeak.
- f) Iturriak, errekaik, ibaiak, idoiak.
- g) Bordak, sarobeak, artegiak, korteak.
- h) Baserriak.
- i) Zubiak, etxeak, ermitak (oikonimia, nagusiki).

Materialeen zehar, herri bakoitzaren toponimia tipia eskaini baino lehen, beti alde toponimiko desberdinen laburpen bat ematen da, adibidez, landareria edo flora, fauna, minerale, nekazaritza, abelzaintza, industriari atxikitako ziklo kulturalak (errotak, ferrolak, liho-industria, arrobiak, teileriak); baita funts erlijiosoa duen toponimia, eta, ondoren, alderdi filologiko bereziak. Eredu gisa, hona hemen Bergara-ko toponimia dela-eta egin dugun bereizketa (Ikus dagoeneko argitaratua dugun *Toponimia, fonetika, lexikoa liburua, 160-170 orriak*).

A) ALDE FISIKOAK

I. Orografía

I.1. Orotariko izenak:

Aitz (ATX, AZ): Iruaitzeta, Aitzbeltza, Aizkibel 1760 urtea. Aizburu, Aizpeondo, Soroaitzeta, Atxaiturri, Atxondo.

Toki (Leku): Azpileku, Garalekueta, Iraleku, Kargaleku, Pelotatokialdea. *Aran*: Arane, Zumaran, Aranburu.

Ibar: Ibarrola, Ibargoitia, Ibarguren, Ibarbaltz 1861 urtea, Ibarzuri 1797 urtea.

Alde: Aldabide, Aldabidepegotxe (?), Arraskalde, Eguzkialdea.

Azpi: Azpileku.

Be (Pe): Abelospe, Aldape, Adaolape, Basabe, Etxetxope, Garape, Goikosolapia.

Arte: Basarte, Sorobitarte, Zabarte, Larrarte, Kortabitarte.

Ager: Agirrealdapa, Agerrealdea, Iparragirre.

Ondo (Iri): Egizabalondo, Olondo, Elizondo, Etxondo.

Mendi: Andumendi, Arizmendi, Belamendi, Mendigaña.
Oste: Arzioste, Azuloste, Boluostia, Etxeostia, Iraolaoste, Itxostea, Mokoroste.
Besteak: Zalduamendi.

I.2. Gainbeherak:

Buru: Agirreburu 1813 urtea, Aingeruburu, Aizerburu, Amatianoburu, Lizarburu, Telleburu, Esparruburu, Askaburu, Egiburu.
Bizkar: Bizkardo, Biskardosakona.
Gain (Gañ/Gan): Astigaña, Gañeder, Guensolugain.
Sakon: Askargasakona, Bigarrenzakona, Sakona, Sakona-Ibarrotza, Sakoandi, Sakondegi.
Garai: Garaikoetxea.
Goi/Goen: Goenengogastañaria, Goikoiturri, Guenbulu, Ojanguren, Osazulogoena.
Aier: Aierditxiki, Aiardiazpia 1777 urtea.
Muño: Belamuño, Elkorumuño, Pagamuño, Muñegi, Muñoa 1810 urtea, Munabeburu, Unamuno.
Amil: Amilaga, Amilleta, Amilpe.
Arru/Arro: Arrueta, Arrupe, Arrube 1811 urtea.
Leze: Lesazulo, Lesabolu, Lezaran.
Zoko: Zokotegi.
Mehaka: Meaka 1812 urtea, Miaka 1857 urtea, Miakaegia 1846 urtea.
Egi: Boluegia, Egieldea, Egiasakona, Egibar, Egieder, Egino, Egigoiti, Egisolo, Gastañakoegia, Eginoburua, Keisetakoegia.
Aldapa: Aldapa, Aldapeta, Aldapiaesparruzakona, Egialdapa, Oindaoaldapa.
Malkar: Malkarra, Malkorburua.
Aldatz: Aldatz.
Besteak: Erroitz, Irutontor, Irutontorreta, Mugarieta, Mugarri.

II. Landak Orokorki

II.1. Orotarikoak

Landa: Landaeta.
Lau: Bekolaua, Garolau, Laua, Munakolaua, Osaizlauba.
Zelai: Keisetazelai, Pagolazelai, Santazelai, Sorginzelai, Zelaikoesparrua.
Ibar: Aribar 1775 urtea, Askasibar, Berezibar, Ibarbalz, Ibarzuri 1797 urtea, Ibarrola, Ibarguren, Ibarbaltz 1861 urtea.
Baso: Aizpurubaso, Aldetabasua, Basalar, Atxotegibaso.
Zabal: Basozabal, Olazabal, Sorozabal.
Besteak: Otzordoka, Eluse, Eluseirubaso, Ziarsolo.

III. Flora

III.1 Zuhaitzak eta zuhaixkak

Agin: Aginaga.

Haritz: Aristi, Arizbakotxa, Ariznabarreta, Aristisakona, Arizaundi, Arizpe. *Gaztain*: Gastandola, Gastain, Gastañarizbaldo, Gastañatxueta, Gastañazulo, Gastañari.

Elorri: Elosua, Elorreta, Elorregi, Elorragaitz.

Aran (Okaran): Arando, Aranbeltz, Okarandi.

Arantza: Aranzaduia, Aranzasti.

Zugaitz: Zugasti, Zugastegi.

Arte: Arteaga, Arteagaostea, Arteta.

Lizar: Lizardi, Lizardierrekea 1608 urtea, Lizarrondo 1812 urtea, Lizarzaburua, Lizarsolua.

Intxaur: Intxaурpe, Intxaurreta.

Pago: Pagomuño, Pagaldai 1797 urtea, Pagadisoste, Paggerre, Pagaerre.

Gorosti: Gorosarri, Gorostalde, Gorostidi, Korostegi.

Sagar: Bekosagasti.

Urritz: Urreitzisakona, Urrejolaurre, Urrestitxiki.

Ote: Otebeltz, Otabarreta, Otaegi, Otaerre.

Urki: Urkizu, Urkizuerreka.

Ametz: Amesti, Amezabalaga, Amestiburua.

Haltza: Alsaluze, Altzazu, Altzerreka, Altzeta, Altzluzeta, Alzuondo.

Gerezi: Keiseta, Keisetakoegia, Keisburuta 1813 urtea, Kreiseta 1812 urtea.

Zur: Zurraga, Zupide, Zuraiztipia.

Besteak: Askarrondo, Askarraga, Askarragasakona, Askargorta, Eskia, Galarraga, Zumaketa, Zumeta, Zumaran.

III.2 Landareak (fitonimoak)

Belar: Belastegi, Belastegiburu, Berastegierreka.

Madari: Madaripotzu, Madaripotzuklabelinaitz.

Arto: Artosarri, Artuaga.

Illar, (Txillar, Iñar): Idarragaldea, Illarragazpikoa, Illarregi.

Txara: Errekanondoktxara, Txarakua, Txaratxiki, Txarazabal.

Iratxe (Ira): Idaleku, Iraburuaundia, Iraleku, Iraluze.

Sasi: Artasasi, Artzisasi 1842 urtea, Sasibalz 1811 urtea.

Untz: Unzabaso, Unzabal, Unzueta, Untzaerreka (Auntzaerreka?).

Isats (Gisats): Gisasola, Gisasueta, Isasburu, Isasmendi.

Intsusia: Intxuerreka, Intxuzabal.

Mahats: Mastiasoroaldea, Masterreka.

Albitz: Albisia, Albisubaso, Albizuri.

Besteak: Azpilleta, Errondo, Klabelinaitz, Klabelinaltzeta, Landareta, Lapatzalde, Makatzaga, Mallukileku, Mispildi, Pikusoro, Sostratxikia.

IV. Fauna (Animaleria)

IV.1. *Animale nagusiak*

Otso: Osazulo 1811 urtea.

Azkon: Azkonasulo, Azkonazulueta, Azkonabieta.

Besteak: Aunzerreka, Satorretxe.

IV.2. *Xomorroak eta beste*

Erle: Erlaetxe, Erlaetxegi.

Karakola: Karakoleta.

IV.3. *Hegaztiak*

Txori: Txorialdea, Txorietxealdea.

Ontza: Onzabaso.

Uso: Usogastañadi, Usogastañegi.

Besteak: Mosolotegi.

V. Mineraleak

V.1. *Mineraleak orokorki*

Harri: Arlaban, Armuñoeta, Arriluze 1853 urtea, Arzabal.

Burdina: Burdiñeta, Burdiñoa, Burdinkruz, Burdinkuruze.

Kisu: Kisula (Kisuola?).

Hondar: Ondarza.

Lur: Lubarri, Lugarri.

Lohi: Loidi. Loizubieta.

VI. Hidrografia

VI.1. *Hidrografia orokorki*

Erreka: Koroserreka, Lisibaerreka, Sorginerreka, Narbaizaerreka, Arrainerreka, Atxotegierreka, Aunzerreka, Belastegierreka, Gorosabele-reka, Errekatxoeta, Intxuerreka, Abrainerreka, Altzerreka, Aizerreka 1811 urtea, Epelerreta.

Idoi: Idoi.

Iturri: Anduiturri, Anguaiturri, Antxiturri, Atxaiturri, Iturriondo, Iturbe-gieta 1857 urtea, Iturrimendi, Iturburu, Metaliturri, Sonsiturri.

Latsa: Lasao, Lasarte, Lasarterreka, Lazpiurburu.

Ibai: Arzibai.

Ur: Urzulo, Ubera, Ibi, Ibunarren, Ubidea, Ugalde, Uberasolo, Ugarana-bidea, Ursalto.

Ugalde (Ugarte): Huarteburua, Ugartelau.

Osin: Agorrosin, Agirreosinaldeko, Larrosin, Osinaga, Osineta.

Putzu: Madaripotzu, Potzuetalaua, Pozotxueta.

Madura: Madurea, Madurasolea.

Besteak: Neberaldea, Presaburu, Presaldea.

B) ALDE EDO ZIKLO KULTURALAK

I. Komunikabideak eta Eraikuntza

I.1. Komunikabideak

Bide: Bidebaso, Bidebia, Bideburua, Bidegorrieta 1811 urtea, Bidaburu.

Kamio: Kaminpea, Kaminburua.

Estrata (Estrada): Estrata, Estrataldia.

(Bide) Gurutze: Askaduibidekurutza, Bidekuruzeta, Kurutzeburua.

I.2. Eraikuntzak

Iri (Uri): Basauri, Iribe, Iriburu.

Etxe: Etxaburua, Etxaurre, Etxaldesparrua, Etxeingurua.

Zubi: Zubizua, Zubibarri.

Gaztelu: Gaztelu, Gazteluburu.

Horma: Ormape, Ormabarri.

Dorre: Torre 1818 urtea, Torreoste, Torrealdia.

Besteak: Hospitalgastaña, Hospitalbaso, Txabolaga, Txabolaburu.

II. Nekazal kultura

Barruti: Barrutia, Barrutikotxaria.

Larre: Larragoiti, Larragoikoa, Larragoikofalda, Larramendi, Larrategi.

Esparru (Hesi): Aldapiaesparruzakona, Astoesparru, Egiesparrua, Zalai-koesparrua, Esparrutxiki, Esparruba.

Larrain: Larrantxota, Larragaña.

Sail: Petrisalla, Sailuzeta, Sailluzia.

Solo: Agirresolo, Makursolo, Solobarria, Artasoro, Atxurisolua, Bekosoluak, Irusolo, Soloandia.

Mindegia: Mintegi 1857 urtea, Muntegisakona, Montegieta (Muntegieta?).

Lubarri: Bekolubarria, Lugarritxo, Lubarri, Lubarriburu.

Besteak: Angiozar, Ipinarriaga 1813 urtea, Ipinsoro, Irabasi.

III. Abere kultura

Asto: Astoesparru.

Mando: Mandaleku, Mandabidea, Mandoerrekkaleku.

Saroe: Sarodieta (?).

Egilegor: Egileor, Egilior.

Korta: Aldakorta, Aldakortegi, Goikokorta, Kortabarri, Kortalekua, Alkorta.

Auntza: Auntzerreka.

Besteak: Abeletxe 1792 urtea, Artolazabal, Zezeaga (lugar de toros).

IV. Industria

Errota (*Igera, Bolin*): Bolintxo, Lesabolu, Bolinburu, Guenbulu, Larrañagabolu, Errotalde, Erroteagaso.

Labe: Labekua, Labeaga.

Teila: Telleria 1857 urtea, Telletaburu.

Ola: Olaburu, Olabarri, Olakoegi, Olagastañari, Ibarrola, Ansola, Balzola, Olaiturri, Urola, Olariaga.

Liho (*Linu*): Linapozueta.

Karobi: Karoizarra, Garobietoondo, Karobiazpia, Garobiburu.

Besteak: Kanteraburu, Upategi.

V. Toponimia erlijiosa

Eliza: Elisbaso, Elizalde, Elejalde.

Gurutze: Guruzeta, Guruzeondo, Guruzeoegia, Irugurutzeondo, Kuruutzeta, Kurutzekoegia.

Kalbario: Kalbario.

Kanposantu: Kanposantualdea, Kanposantobidea.

Santu (*Santa*): Sanjoan, Sanfausto, Sanantolin, Sanmarzial, Sansalbador, Santaesparrua, Santazelai, Andremari.

VI. Oikonimia (etxeizenak)

Amatiano, Garitano (bekoa), Gillengoa, Gomezkortaburua, Jauregi, Juanzarkoa, Kapaingoa, Lopealdeoste, Lopesorobarrena, Marzelegi, Matxinbaso, Migelenaristi, Patxilubarri, Perurena, Petri, Petrierrekandia, Postas, Posadakua, Tabernakua.

C) FILOLOGI ALDEAK

I. Atiziki Zenbait

I.1. *-AGA*: Kruzeaga, Kurutzeaga, Labeaga Makazaga, Olariaga, Osinaga, Otzaga, Pagoaga, Irabolaga, Urteaga, Zezeaga, Zurraga, Asunaga, Arriaga, Arteaga, Arteagasaki, Agirrezeaga, Amillaga, Amezabala, Artuaga, Arziaga, Alzarraga, Egiaga, Jaunsuaga, Erroteaga, Galarraga, Ipiñarriaga.

- I.2. —*DI (TI)*: Aranzasti, Elorradi, Gastañari, Gastañadizabal, Makazti, Mispildi, Intxaurdieto, Intxausti, Gorostidi, Korostidi, Okarandia, Olarradi, Pagadia, Sagastia, Urrestitxiki, Zabaldia, Zapardiaondo, Zubardi, Sakondi.
- I.3. —*DOI (DUI)*: Aranzadui, Azkaduibidekurutza, Sakoandi, Oñatearistoi.
- I.4. —*ETA (KETA)*: Zelata, Partitueta, Obieta, Telletaburu, Mugarieta, Orolekueta, Kirueta, Korostienda, Loizubieta, Iruortueta, Irutontorreta, Iturrieta, Iturtxueta, Zapardoeta, Garolekueta, Iruitzeta, Goroeita, Guruzeta, Intxaurreta, Txapardota, Zumeeketa, Karakoleta, Keiseta, Aitzaudieta 1810 urtea. Aldapeta, Altzabieta, Altzeta, Amillete, Erriluzeta, Arrueta, Anbrosiota, Angloeta, Igorreta, Aristitxueta, Azpilleta, Urreta, Errekatxota, Etxekoeta, Balzerreketa.
- I.5. —*OLA*: Aldaola, Gorostola, Iraolaoste, Kisula (Kisuola), Mekola, Pagaola, Urrejolaegiburu, Zamiola, Oronzola, Gisasola.
- I.6. —*ZU (ZA/ZI/ZO/SO/JO)*: Altzazu, Altzaso, Elosua, Eguzkitzaldea, Galarza, Ipintza, Lizarza 1806 urtea, Ondarza, Mugarza, Sagastiza, Sagatzia, Urkizaburu, Urkizu, Zubizua, Zuraiztiza.
- I.7. —*(T) EGI (DEGI)*: Osategi, Sakutategi, Zokotegi, Upategi, Zugastegi, Zabalotegi, Irazabaldegi, Korostegi, Odoldegia, Larrategi, Maduategi, Matxiategi, Marzelegi, Aldakortegi, Amutxastegi, Aranzastegi, Arregi, Arostegi, Arrandetegi, Atxotegi, Amategi, Bagustegi, Beiztegi, Beletegi, Eduegi, Erresinategi, Gallastegi, Gantxegi, Gastegibasotxo, Illarregi, Lamiategi, Markotegi.
- I.8. —*GIN (GILLE)*: Kapaingua (Kapagingoa).
- I.9. *Atzizki pilatuak*: Intxurdieta, Intxaurtxueta, Mekoleta, Montegieta (Muntegieta?), Sagastiza, Urteaga, Zabaldota (Zabaldoeta).
- I.10 *Besteak*: Bizkardo, Zabaldo.

II. Konposatu zenbait

Etxeaurreko solobarrena, Erdikoesparrupiak, Iruerrekamarraitza, Iruetapetrikurutzeondo.

III. Aldaketa fonetikoak. Hitz bitxiak. Besteak

- III.1. *Aldaketa fonetikoak*: Aizkibel, Aizbakotxa, Bidaburu, Bolunbualdea, Bolunostia, Bolunate, Elejalde, Ojanguren, Zupide, Zuburrutiburua, Urrejolaegiburu, Kruzeaga, Lugarri (Lubarri), Kanpanzar, Kaminpea, Iturroz, Irusulu, Intxartxota, Etxaburua, Bidekurtze, Aizpakar, Urbeja (Urbesa).

- III.2. *Hitz bitxiak eta zenbakiak*: Amarraaltzeta, Amarraitzeta, Bigarrenetxreka, Bigarrenzakona, Erresinategi, Ikarabide, Iduriburua, Iruaitzeta, Iruerreka, Irutontorreta, Kondesoro, Kakatzeta, Lenengortua, Sorginerreka, Sorginzelai.
- III.3. *Epitetoak eta koloreak*: Arizluzeta, Ariznabargaña 1841 urtea, Arlaban 1811 urtea, Bidegorrieta, Arteagasakiakona, Egieder, Egileor, Egurluze, Gañeder, Ibarbalz 1961 urtea, Lizarzasakona, Ortugarrar, Otaibeltz, Pagabeltz, Oterre, Paggerre, Paigorri (Pagadigorri?) Ibarzuri 1797 urtea, Sasibalts, Errekabalza.

II. ITURRI DOKUMENTALAK

Hemengo materiale-multzoa, funtsean, artxiboko lana da. Ahozko-iturrietara, lekuko testiguetara, kasu berezitan, soilik, joan gara, halako izen batean zalantzak eduki ditugunean. Dena dela, bide horren mugatatsunak izugarriak dira industrializazioak Gipuzkoan suposatu duen desorekagatik, baserri aunitz hutsik baitago eta toponimo askoren ezagupide bakarra esku-izkribuetatik bakarrik jaso daiteke. Bestalde tokiko-ikerketa hori komenigarria da egitea ñabardura dialektalak ongi jasotzeko, eta, batez ere, kokapen topografikoa egiteko. Gure interesa, bereziki, filologikoa delarik, eginbehar hori ekipo-lan baterako uzten dugu. Euskaltzaindiak berak bultzatzea ongi legokeena.

Gaurkoz artxibategi probintzialak, eskualdekoak eta munizipalak toponimi-dokumentaziorako arrobi onak dira. Beraz, XVI-XVII mendeeetako toponimo aunitz aurkitzen da iturri horietan, eta XVIII eta XIX mendeetako oso ugaria da.

Protokoloetan, zehazki, materiale ugari XVI. eta XVII. mendeetakoak, baina Oiñati-ko Artxibategi Probintzialean dagoen *Contadurías de Hipotecas* atala toponimiazko arrobi biziki aberatsa da. Horiekin batera XIX mendean Diputazioak eginiko *Nomenclator de Caserios* delakoa, eta Bergara-n, Azpeitian, Tolosa-n eta Donostia-n kokaturiko *Jabetzazko erre-gistroak* beste iturri ezinobeak dira. Esan daiteke XIX eta XX mendeetan ezagutzen dugun ia toponimia osoa, erdiarotik hona asaben zehar dator-kiguna, erregistro eta iturri horietan konstatagarria dela. Baita aipagarri dira *Amillaramientos* eta *Amojonamientos* liburuetan aurkitzen diren toponimiazko adierazpenak. *Amilaranmenduetan*, konkretuki, toponimia tipiarren zahaztapen bizia baserrien “perteneidos” direla-eta, soroen, artasoroen, galtsoroen, baratzeen eta belardien izenak bilduz. Bestalde, kasu batzutan, toponimozko izen-zerrenda zaharrak topatu ditugu, gure bilketa-lanak erraztu dituztenak.

Hona, bada, iturri dokumentalen zerrenda, guk erabili ditugun zehaztapen dialektal eta filologien laburdurak ere emanet:

- Comp. Isasti = Compendio de Isasti (XVII mendea).
- OGPAR = Oñati-ko Gipuzkoar Protokolo Artxibategia (XVI-XIX mendeak).
- IND. = Indices (Oñati-ko Gipuzkoar Protokolo Artxibategia-n) (XVI, XVII, XVIII mendeak).
- C. HIP. = Contaduría de Hipotecas (Ibidem) (XVIII, XIX mendeak).
- Erreg. = Jabego erregistroa (XIX-XX mendeak).
- Amil. = 1951-eko amilaramendua (Finantza Ministeritzaren Ordezkaritza Artxibategian, Donostia-n).
- Nomenklator = Gipuzkoa-ko baserrien izen zerrenda (1857 urtea).
- Mapa I.G.C. = Mapa del Instituto Geográfico y Catastral (Ediz. 2-gna).
- Artx. Muniz. = Artxibategi municipala.
- Lib. = Liburua.
- Zenb. = Zenbakia.
- Or. = Orria (folioa).
- Fol. = Folioa.
- Ord. Zenb. = Ordena-zenbakia.
- AN. = Goi-nafarrera (alto navarro).
- B. = Bizkaiera (vizcaíno).
- G. = Gipuzkera (guipuzcoano).
- BN. = Behe-nafarrera (bajo-navarro).
- L. = Lapurtera (labortano).
- S. = Zuberera (suletino).
- Sal. = Saraitzueru (salacenco).
- FHV. = *Luis Mitxelena*. Fonética Histórica Vasca. 1977 urtea.
- APV. = *Luis Mitxelena*. Apellidos Vascos. 3-gn. argitalpena.
- LEEE. = *Luis M. Mujika*. Latina eta erromanikoaren eragina euskaran. Ed. Sendoa, 1982.
- REW. = N. Meyer-Lübke. Romanisches Etymologisches Wörterbuch.
- RIEV. = Revista Internacional de Estudios Vascos.
- FLV. = Fontes Linguae Vasconum.
- BAP. = Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.
- Lat. = Latina.
- Gazt. = Gaztelania.
- Gask. = Gaskoinera.
- ZRPh. = Zeitschrift für Romanische Philologie.

III. FILOLOGI ALDEAK

Esan dugunez, euskal toponimia, beste edozeren aurretek, guretzak fenomeno linguistiko paregabea da, topografiarako duen interesaz gain. Beraz, toponimia dugu euskararen egitatean fenomenorik nabarmeneta-

koa. Hori dela-eta, materiale hau eskaintzerakoan tokizenak, orri-oinean, ohar fonetikoz, etimologikoz, dialektalez eta sufijalez horniturik eskaintzen ditugu.

a) *Fonetika*

Fonetikaren alorrean euskal konposakeran ematen diren fenomenoak kontutan eduki ditugu, eta bereziki:

- *Apofoniak*: etxe/etxAburu, bide/bidAguren.
- *Oklusiben gorketak* afrikari eta frikari ondoren:
aitz-bitarte/AizPitarte
aitz-gorri/AizKorri.
- Barneko ezpainkarien erorketak:
Arri(bi)llaga/Arrillaga.
Etxe(ba)rren/Etxarren.
- Bokaleen laburdurak:
a + o > o
a + e > e
e + o > o
o + e > e

Azken fenomeno hauek nabarmen Olaeta/Oleta, Basaerri/Baserri, Muñeta/Muñeta, Otaerreaga/Oterreaga kasuetan.

Txitrukarien nahasketa (s/z, ts/tz), gehienetan, bere hartan, aldaketarik gabe, utzi dugu agirien aitorra eta anarkia errespetatuz.

b) *Etimologia*

Etimologia izan da euskal alorrean eremurik labain eta arriskutsuena. Arlo honetan bi jokabide har daitezke: a) denetaz zerbait esan “irudimenaren” bide akritikoak erabiliz, b) etimoligiaz deus ez esan, zeharo zokoratzu.

Gure ustetan, ez bata, eta ez bestea, dira onestekoak. Gaur egun etimologiarien eremuak ildo ziurrak eman daitezke, adibidez, latina eta erromanikoaren ildoan doan etimologia zenbaitean; gure arrobiko hitzetan ere komeni da hizkuntzalariek *eluts*, *larratz*, *aier*, *sarobe* gisakoetan *erdal* ordaina ematea, gure izendegi batzuetako labainketak alboratzeko.

Materiale toponimiko hau egiterakoan arazo honetan zuhurak (prudentes) izaten ahalegindu gara, kasu aunitzetan etimologia ez baitugu abordatzen, “azterkizun gelditzen da” delakoa erasten dugularik. Hitzaren iturriari buruz esandakoak (iritzi arbitrarioak barne) autoreen izenak ere ematen ditugu, maiz. Honetan L. Mitxelena, J. Caro Baroja, K.

Bouda, Meyer-Lübke, Schuchardt, Campión eta beste askoren bibliografia aipatzen dugu.

c) *Euskalkiak*

Toponimia gure asaben ahoan sortu da euskarazko egoera dialektal desberdinatik; gure probintzian, zehazki, gertakizun dialektalak islada du erdiko gipuzkeran, Debaldeko bizkaineran, ekialde-muturreko goinafarreran, beste Goierri, Tolosa, Hernaniade, Azpeiti aldeko sub-euskalkiez gain. Hori dena hobeto isladatzeko toponimia artxibategi-ko dokumentuetatik aurkituriko fonetismoez jaso dugu. Gure ustetan, toponimia aldaketarik gabe jaso behar da, euskararen eremu tradizionala –aspaldiko fenomeno gisa— zeharo dialektala delako. Bai gaskoinaren eta okzitanoaren eremuan, bai Galizian eta bai Katalunian, toponimistak fiabardura dialektal horiek errespetatzen ahalegintzen dira, maiz.

d) *Atzizkiak*

Toponimia beharrezkoa gertatzen da gure atzizki-arrobiaren desfijazioa hobeto mugatzeko. *Zu/za/ze, eta/keta, -di/ti, doi/dui, aga* eta besteen erabilpen semantikoa toponimiaren erakutsietatik eraiki behar da. Gure lanean, batzutan, toponimia dela-eta, gaztelaniar, aragoiar, gaskoin et frantses lekuizen eta antropónimoekin parekaketak egiten ditugu.

Ikerketa filologiko honetarako funtsezkoak izan ditugu hurrengo obra hauek: Luis Mitxelena-ren bi lan oinarrizkoak, hots, *Fonética Histórica Vasca* eta *Apellidos Vascos* (azken hau gure deituren erreferentzian oraingoz ziurrena), J. Caro Baroja-ren *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, L. Elizalde *Indicaciones elementales sobre la formación de los usuales componentes de las voces topónimas*, Menéndez Pidal-en *Toponimia prerrománica hispana* eta A. Irigoiaren lan toponimiko zenbait. Baita oso hurbiletiak jarraitu dugu gure *Latina eta erromanikoaren eragina* eta *Hitz konposatu eta eratorrien morfo-fonetika liburuen ildoa*. Bestalde, L. Villasante-ren *Voces compuestas vascas y derivadas* delakoa zehaztapen sufijal batzutarako ongarria izan zaigu. Beste etimologisten ildoak biltzeko *FLV*, *RIEV*, *Eusko-Jakintza*, *BAP* eta gisako aldizkarietan azaldutakoak kontutan eduki ditugu.

IV. MATERIALEAREN HEDAPENA

Gipuzkoa-ko toponimiazko materiale-multzoa, gutxi gorabehera, ehun eta hogei mila tokizenetara igoten da, toponimia hitza esanahi zabalean harturik.

L. Elizalde-k RIEV aldizkarian 1932-tik 1936-era argitaratutako zerrenda (gerora BAP aldizkarian osatua) Gipuzkoako kasuan ez da iristen %-eko 7-ra ere gure izen-multzoarekin konparaturik. Beraz, gaur egun, Gipuzkoako toponimia tipiaren %-eko 90-a bildu gabe datza.

Toponimi-materiale hauen ugaritasunezko proba gisa hona hemen gipuzkoar herri nagusienetan jaso dugun toki-izen-multzoaren zehaztapena:

| | |
|-----------|-----------------------------------|
| ATAUN | 3.676 toponimo |
| OÑATI | 5.875 toponimo |
| AZKOITI | 4.256 toponimo |
| AZPEITI | 4.000 toponimo (gutxi gorabehera) |
| ELGETA | 2.206 toponimo |
| AMEZKETA | 1.770 toponimo |
| IDIAZABAL | 1.028 toponimo |
| ALBIZTUR | 1.220 toponimo |
| DONOSTIA | 3.100 toponimo |

Materiale-multzo hau hego eta erdialdeko Euskal Herri-ko beste euskualdekoekin parekatuta izugarria da, ezen-eta Mañeru-n (Naf.) 110 bat euskal toponimo baitaude, eta Gares-en beste 100 bat toponimo. Gure zerrendetan, bataz beste, Gipuzkoako toponimi-multzo errealauren % 90-a egon daiteke bildurik.

Bestalde, orain arteko mapa nagusienetan seinalaturik dagoen materialea aztertzen badugu (adibidez, Espainiako Ejerzituak urte aunitzetan egina eta gerora *Instituto Geográfico y Catastral* delakoak osatua) ondorio hau ematen digu:

| Inst. GEOGRAFICO Y CATASTRAL (mapan) | ARTXIBO-MATERIALEA (txosten honetakoa) |
|---|---|
| OREXA-n | 13 toponimo |
| GAZTELU-n | 11 toponimo |
| BERGARA-n | 46 (90) toponimo |
| BERASTEGI-n | 31 toponimo |
| LIZARTZA-n | 13 toponimo |
| BEASAIN-en | 33 toponimo |
| LEGAZPI-n | 31 (48) toponimo |
| | 530 toponimo |
| | 750 toponimo |
| | 4.500 toponimo |
| | 1.900 toponimo |
| | 1.250 toponimo |
| | 2.300 toponimo |
| | 2.400 toponimo |

Instituto Geográfico y Catastral-aren adierazpen toponimikoak Gipuzkoako Diputazioaren katastro-mapaz gainditua aurkitzen dira baserri, erreka, bide mendien kokapena eta izena dela-eta, baina mapa horien helburu nagusiena topografikoa delarik beraietan ere gure euskal toponimo tipi gehientsua falta da.

Azterketa konparatibo honetatik hau ateratzen da, alegia, oraingoz orain, gure toponimoen arrobi gehiena argitaratu gabe dagoela, eta kome ni dela argitaratzea.

V. ORAIN ARTE GUK ARGITARATUA

Gipuzkoan, J. Arin, Juan San Martin, Jesus Elosegi delakoez gain, toponimia urri argitaratu da. Ondoren, guk orain arte argitara emana adierazten dugu, beti Gipuzkoako probintziara mugatuta:

- a) "Gaztelu eta Orexa-ko toponimia, Gipuzkoa", BSBAP (1985) 271-321.
- b) "Lizartzako toponimoak. Azterketa linguistikoa", Eusko-Ikaskuntza, Hizkuntza eta Literatura, 5, 19-61.
- c) "Erreneriako toponimoak (materiale zenbait eta oharrak)", Bil-duma I, 145-191.
- d) "Berastegi-ko toponimia" (azterketa lexikala eta dokumentala), Eusko-Ikaskuntza, Hizkuntza eta Literatura (1987) (prentsan).
- e) "Zarautz-ko toponimoak (ohar dokumentalak eta filologikoa)", (Ayuntamiento de Zarautz, 1987).
- f) Toponimia, Fonetika, Lexikoa, Edit. Kriselu, 1987, 426 or.

Dena dela, nahiz-eta materiale hau publikaturik egon, eskuartean dugun %-eko 80-ak (artxibo bidez, funtsean, bilduak) argitaratu gabe darrai.

VI. LAN HONEN HELBURUA

Lan honen helburu nagusia gure kulturaren adierazpen nagusienetako bat ez galtzea izan da, euskaran ezer gutxi baitago hain ugari eta aberats *toponimia* bezain. Izan ere, gure mendi, akan, soro, belardi, erreka eta iturrieik "oraindik" euskara mintzaten dihardute, gure hiriguneetako hainbat eta hainbat semek euskara hori abandonatua edo ez-ezaguna duen bitartean. Gipuzkoako 120.000-ko toponimiazko izen-multzo hau gure paisajeak ahokatutako Euskal Hiztegi Nagusi bat da, gaurko isilune eta abandonutik ateratzea eskatzen duena. Toponimi-multzo hau larehun orriko hamazazpi bat liburu-aletara iritsiko litzateke argitaratzekotan.

Gure ustetan, Euskaltzaindiak, euskal Diputazioek, Unibertsitateak, eta beste erakundeek altxor guzti hau jasotzen eta argitaratzen arreta berezia jarri behar lukete. Orain arteko Euskaltzaindiaren ardurak eta lanak, horrela, beste zitu berri batez borobilduak ikusiko lirateke. Euskal Herria-ren urbanizazio gaitzak gure toponimi zahar-oparoa galtzeko arriskua eskaintzen digunean inoiz baino ahalegin biziagoa jarri behar litzateke altxor hau jasotzen eta ezagutarazten. Ezin daiteke euskara beraren eraikuntza zientifiko serioa egin toponimiari tarte berezia eskaini gabe.

NAFARROAKO LEKU IZENEN EUSKARAZKO FORMEZ

Alfonso Irigoin

Euskaltzaindiaren batzarre otsailaren 26-an Donostian egin zen har-
tan, Nafarroako leku izenen euskarazko formez batzordeak, hain zuzen
ere tokian tokiko jendez bereziki eta jakinaren gainean ugariturikoak,
prestaturik zuen lehenengo zerrenda ontzat hartzeko urratsak ematen
hasi orduko Pello Salaburu-ren izkribu bat partitu zen euskaltzainen
artean “Leku izenen formak Baztanen” tituluaz.

1. Baztanen oso ongi bereizten omen dira, “beste leku anitzetan ez
bezala, frikariak eta afrikatuak euskara mintzatuan” eta “erdararen eragi-
na zalantzagarri iruditzen” zaio, “hangoeik oso ongi bereizten” baitituzte
“Errazu (erdaraz) era Erratzu (euskaraz), biak nahasi gabe”. Gauza bera
Burguete eta *Auritz*, eta abar, baina “hala ere *Lekaroz*, *Arraioz*, *Almandoz*
eta *Bertiz* dira euskaraz”, erdaraz bezalatsu. Jakina, “lesakarrek *Bertitz*”
erabiltzen omen dute, ordea, “agian” “Lesaka aldean, eta oro har beste
tokietan Baztandik kanpo, afrikatuuen sistema bakarrik” dutelako “afrika-
tuarekin egin beharko dute nahi ta ez”. “Gerta liteke, —dio—, guk —baz-
tandarrak—, gaizki ahozkatzea edo haien izatea hain zuzen ematen ez
dutena”. Eta bestalde Baztanen “erdararen eragina nekez ikusiko den
toponimian (mendiska eta lekutxoen euskal toponimian alegia), bietarik
agertzen dela argi eta garbi”. *Pertaláts*, *Auritz*, *Berdáitz*, *Maulítx*, baina
Naás, *Erratxúriz*, *Otsanaíz*, *Ezkiz*, *Azkanáz*, *Erdíz*.

2. Gero ematen duen listan *Oharriz* formaren parean euskaldunen
artekekotzat bi jartzen ditu: *Umerritz* eta *Umerriz*. Hor, ordea, bazilazioa eta
zalantza nabarmena da, Elizondoko beste lekuko batek ere, Mariano
Izeta-k, duen berbera, zeren behin eta berriz *Umérritz*, jakinaren gainean
ondo markaturik eta bertakoen ahoan ipinirik, esan bazidan ere, geroago
bigarren aldiz gauza bera tratatu zuenean *Umérriz* esaten zuen bere joera
orokorraren arauera, baina, egia esateko, haren benetako ohitura *Oárriz*
esatearena da, izen ofizialak duen presio indar izugarriaren eraginez, eta
hark, bere emaztea *lekautzárrà* izanik, *Lekáuzèn* esaten badu ere, beste
batzu *Lekáutzèn* ebakitzent dutela aitortzen du. Horrela grabatu zuen
zinta magnetofonikoan, behin eta berriz errepikatzen duela desberdintasun
hori. Hau Baztango lekuren baten hala den ala susmo bat besterik ez

den baieztu beharko litzateke eta hala balitz lekukotasun egokiak bilatu zehazki. Gainera, hark, *Errázù* erabiltzen du eta entzun ere hala entzuten omen du normalki bere inguruan, baina badaki beste batzu *Errázù* ere esaten dutela, —lehen ikusi dugun bezala Salaburu-ren familiakoek ere bai—. *Errázù* euskaraz esatea, aspaldidianik, ez betidanik, erdarak duen ebakitzeko moduaren eraginez ez baldin bada, nahiz eta gurasoetarik ikasi, orduan zer da? Gipuzkoan ere toponimo berbera agertzen da txistukari afrikatua duela: ‘*Erratzu-txakolingoa*, -erdikoa y -goikoa, case-rios de Urretxua (Villarreal, Gip.)’, Eleizalde, *RIEV*, XIX (1928), 77 orr., (1).

Mariano Izeta-k *Almándozen*, *Anizèn*, *Arráiozèn*, *Oronózèn* / *Oronóztik* / *Oronoztárràk*, —erdarazko azentuaren pareko azkenengo hau, gentilizioan izan ezik—, *Bertizèn*, ematen ditu. Ofizialki erdaraz *Tipulaz* den formaren berri zuzenik ez zuen, 1575 urtean *Tipulaçé* forman dokumentatua Jose M.^a Jimeno Jurio-k normalizazioa egiteko beriziki bildu ditueneen artean, *AGN*.: *Pro. Santes.*, Car. 26, hau da: *tipulatze*, ‘cebollar’, euskaldunen artean beti txistukari afrikatu garbia duen hitza. Lekukoak bilatu beharko lirateke euskaraz mintzatzerakoan nola ahoskatzen duten jakiteko.

3. Lehenengo eta behin adierazi behar da *Almándotzèn*, *Bertitzèn*, eta Baztandik kanpoko toponimoen artean *Madótzèn*, eta abar, esaten dutenak ere argi eta garbi bereizten dituztela frikariak eta afrikariak, eta ez bakarrik bat bederaren hizkera arruntean, baita zenbait toponimotan ere. Kontua da jakitea zergatik erabiltzen dituzten halakoetan afrikariak eta ez frikariak.

Alderantziz gertatzen da, eta Mariano Izeta dugu lekuko, Baztango ez diren toponimoak esaten dituztenean, zeren *Urrózèn*, —baina konturatu gabe *Urròtzaldeán* dio hizketaldian—, *Madózèn*, *Azpirozèn*, *Imózèn*, *Aráizèn*, *Aizározèn*, ateratzen baitzaizkie. Eta hor zer esan beharko lukete afrikaria erabiltzen duten baztandar ez direnek, baztandarrek ez dutela afrikari eta frikaririk bereizten? Argi dago ez dela horrela. Baino, beste alde batetik, beti *Aurtíz* ebakiarren eta gero *Aurtizèn*, uste du badirela *Aurtitzèn* diotenak ere, eta agian hori pentsatzen du hurrengo aipatuko dena gogoan duelako. Izan ere, euskaraz beti eta zalantzarik gabe *Aurítz* ahoskatzen du erdaraz *Burguete* dena, eta jakina, hor, berezkoa denez, erdarak ez du inolako eraginik, eta hala dio Salaburu-k ere.

4. Erdi Aroko dokumentazio zaharrean badira argi eta garbi, ozitano tipoko grafien bidez alegia, azken posizioko afrikariarekin agertzen

(1) LUIS DE ELEIZALDE: “Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas”, *RIEV*, XIII (1922)-koan hasten da eta zatika ematen du aurrerantzean.

diren Baztango toponimo batzu, egungo egunean erdaraz -oz bukaera dutela izkribatzen direnak, Jose M.^a Jimeno Jurio-k bildu dituenen artean:

Almandotz (1268, *FEL. MOR*: *Igl. nav.*, n. 995).

Anitz (1192, *FORTUN*: *Colec. fue.*, n. 33; 1268, *FEL. MORR*: *Igl. nav.*, n. 903).

5. Bizkaian ere halako zerbait gertatu zen euskarazko formak finkatzerakoan. Baino hangoa erraz erabaki zen, zeren *Lemoizen*, *Laukizen*, *Berrizen*, eta abar, egungo egunean mundu guztiak hala esaten duenez gero ohitura horretan oinarriz harturik egoerari amore eman baitzitzaion, eta, beste alderdi batetik, ez baita ezagutzen halakoetan txistukari afrikariaren alde argi eta garbi eta anbiguetate gabe lekukotasunik emango lukeen dokumentazio zahar berezirik. Alderantzizko kasuren bat edo beste ere izan zen: esaterako *Gerrikaitz*, zeren askok eta askok toponimo horretan txistukaria frikari moduan emanaren inguruetaez ez baita horrela, cfr. *Euskera*, XXI (1976), 308 orr., (2). Neurorrekin Aulestin ordurako *Gérrikètz* bildurik nuen, eta hala argitara emanik, *FLV*, 11 (1972), 212-213 orr., (3).

Nafarroan, ordea, ugari dira hainbat kasutan afrikariaren ohitura zaharra gorde dutenak.

6. Batzutan, *Beraskoitz* tipokoak diren forma zaharretan alegia, ez bestelakoetan nahi ta nahi ez, afrikariaren azken iturria latinezko -s bat da, eta izan ere ondo gordetzen da *Briscous* erdarazko forma ofizialean, ikus joan den abenduan Euskaltzaindiko batzarrera aurkeztatu nuen “Leku izenen euskarazko formak Nafarroan” lana, baina euskaldunen artean azken posizioan zegoenean afrikariaren alde, -tz eginik, neutralizatzeko joera zuen, haren ordaina -z baitzen, ikus lat. *corpus* > eusk. *gorpuz > *gorputz*, cfr. Michelena, *FHV*, 2.^o ed., 14.6, 287 orr. eta hurr., (4).

Bidankozé eta halakoetan, ordea, -e bat agertzen da azken posizioan, Erdi Aroko dokumentuetan beretan jadanik ondo biltzen dena, Aragoi aldean egungo egunean galdurik badago ere, cfr. *Arascués*, Huesca-n, Erdi Aroan in *Arascuasse* (1097, *Pedro I*, dok. 31), (5), eta diptongazio gabeko formaz izkribaturik *uilla que dicitur Arasquosse* (1136, *Leire*, f. 248), (6).

(2) Euskaltzaindiaren agiriak: “Herri eta herritarren izendegia”, J. L. Lizundia eta Hendrike Knörr-en hitzaurrea, *Euskera*, XXI (1976), 287-315 orr.

(3) ALFONSO IRIGOYEN: “Formas de nombres de localidades vizcainas”, *FLV*, 11 (1972), 207-218 orr.

(4) LUIS MICHELENA: *Fonética Histórica Vasca*, 2.^a ed., San Sebastián 1977.

(5) ANTONIO UBRIETO ARTETA: *Colección diplomática de Pedro I de Aragón y de Navarra*, Zaragoza 1951.

(6) RICARDO CIÉRVIDE: “Índice completo de topónimos citados en el Becerro Antiguo de Leire (II)”, *FLV*, 25 (1977), 117-152 orr.

Honek ez du esan nahi bereziki formazio berriagokoetan frikariak ezin ager daitezkeenik, hala nola *Naás*, atzean *maas* ez duela, edo beste zerbait, edo garai baten *Gazte naiz* tituluaren azpian *Zeruko Argia*-n ateratzen zena, esaterako.

7. Eginik dagoen partea gogora ekartzen dugularik esan dezakegu, konparazio baterako, batzordearen aurreko izkribuan *Bertiz* bazegoen ere, eta beste alde batetik *Bertizarana* zegoen orain urte batzutakoan, cfr. *Euskal Herriko udalen izendegia*, (7), Jose M.^a Azpiroz apez jaunaren proposamenez *Bertitz* formara aldatu zen, eta inork ez zuen eragozpenik ipini bildurik zeudenenean artean, hala esaten baitu hitzun askok, eta ez horrela euskaldunago dela uste dutelako, Mitxelena-ren hitzetan Salaburu-k dioen bezala, —ez dakigu zein kontesturi dagokiola, ahozko transmisiokoa baita, dirudienez—, tradizioaren poderioz eta aurreko eritzirik batere gabe hala esaten dutelako baizik.

Gero batzordean parte hartu zuten guztiak ez ziren Euskaltzaindia-ren batzarrean izan eta ezta euskaltzain guztiak ere, elurra zela kausa.

Edozein modutan ere euskarazko formak finkatzerakoan memoria kulturala gogoan izatekoa da eta hori benetan hartzen baldin badugu, hartu behar den moduan, zeharo zuzena eta normala iruditzen zait neurri baten barruan eta gauza argia denean joera zaharrak hobestera jotzea.

Bilbao 1988-III-12

(7) EUSKALTZAINIA: *Euskal Herriko udalen izendegia*, Bilbo 1979.

IZEN GEOGRAFIKOAK

Donostia, 1988-IV-29

Alfonso Irigoien

Izen geografiko arrunton zerrenda hau Euskaltzaindiari oharrak egin eta ondo ikertu ondoan zerrenda berritu bat presta lezan eskatzen niola joan den abenduan neurorrek aurkeztatu nuena oinarritzat harturik osatua. Izan ere zenbait euskaltzainek bidalirik edota ahoz esanik jaso diren oharrak kontuan hartu ondoan egin da. Eskabidearen arrazoia Deustuko Unibertsitatean Gasteizko Lurralde Antolaketa-rentzat prestatzen diren mapetarako normazko nomenklatura bat, gero zabalago erabil litekeena, beharrezko dela ikustea izan zen. Ohar egileak, batzu izkribuz, beste batzu ahoz, honako hauek dira:

Izkribuz: A. Irigoien bera, Aita Villasante, Pello Salaburu, J. L. Lizundia, F. Krutwig, J. M.^a Satrustegi, J. San Martin, Patxi Altuna.

Ahoz: J. M.^a Satrustegi, F. Krutwig, Aita A. Zavala, J. San Martin, P. Charriton,...

Edozein modutan ere zerrenda hau irekirik gelditzen da etorkizunean ere zuzen eta osa dadin, Euskaltzaindiaren oneritzia badu ere.

Injurune fisikoa: Iehorreko eta itsasoko orografía

Gailurrak, Gainak
Mendi-arroak
Mendia (Baina erdarazko beste lekuetako formak errespetaturik: *serra*. Euskaraz ez da *mendia* beste hitzik erabiltzen. Kanpo-ko mapak euskaraz egin behar balira erdarazko *Sierra de Guadarrama* euskarara *Guadarramako serra* itzuli beharko litzateke bertako ohituren itxura zeharo aldatu gabe. Berdin gertatuko litzateke rusoen *estepa* edo Ameriketako *sabana* hitzkin, bertakoa gorde behar bailitzateke), **Serra** (batez ere Euskal Herritik kanpo erdaraz erabiltzen direnentzat), **Mendiserra**

Mendi katea (Batzu erdarazko *sierra* adierazteko erabiltzen hasi berri dira, baina *mendi katea* berez erdarazko ‘cadena de montañas’ da, beraz ‘cordillera’)

Medio físico: orografía terrestre y marítima

Elevaciones del terreno en general
Elevaciones y depresiones
Sierra

Cordillera

Ingurune fisikoa: Iehorreketa eta itsasoko orografia

Mendia, Basoa (bakotzak bere lekua duela)

Basapea (1), Beko basoa (azkenengo hau Urdiainen)

Muinoa, (Azkue-k *Muñatza* ere badu bere hiztegian Lardizabal gipuzkoarrarenagan bildurik)

Muna

Mendi baten gailurrak, gainaldeak, gainak

Gaina / Gana, Tontorra

Haitza / [h]atxa (Bizkaian)

Haizpunta, Haitzorrota

Lur azaleko sakonak, Burkandak (Baztanen)

Lepoa (Arin: *Añeiko lepoa*, Ataun-en)

Mendatea (ez da hitz zaharra), **Harratea**, (Arin: *Alleko arratea*, 1528: *Arrates de Alleco*, Ataun-en), (Arantzazun hitz arrunta), (*Mugarrako arratea*), (hitz konposatua da: *harr- [harry] + ate*), **Portua** (*Arabako portua*)

Ataka (Arin: *Beaskingo atakak, Ormazaretako atakea*, Ataun-en), (*ate-ren diminutivo*), **Harrataka** (*harrate-ren diminutivoa*, Nafarroan), **Ateka** (Ifarraldean)

Sakona

Bizkarra

Aska

Ibarra, Harana (nola berezi behar dira bata eta bestea? *Ibarra* ‘vega’ moduan ere erabili izan da)

Haitzartea, Arteka (Baztanen), **Bitarte estua**

Amildegia, Zenterna (Pello Salaburu-k dioenez azkenengo hau Baztanen hurrengo zentzuan erabiltzen da: ‘malda behera handi bat, gainetik ikusia eta anitzetan errekan bukatzen dena (bere ustez ‘precipicio’)

Medio físico: orografía terrestre y marítima

Montaña, monte

Monte bajo

Colina

Ribazo, porción elevada de un terreno

Puntos elevados de una montaña

Cima

Peña

Pico

Depresiones de la superficie terrestre

Collado

Puerto

Portillo

Hoya

Loma

Zanja, abrevadero

Valle

Desfiladero, cañón

Precipicio

(1) **Basapea.**— Hitz zaharra eta Azkue-ren hiztegian esanahi horrekin ematen ez dena da. Durango ingurueta dokumentu zahar baten sobre el aprovechamiento de los **basapes** hitz egiten da Xabier Santano Deustuko Unibertsitateko Deikerr-eko lagunak diostanez. Izan ere toponimia zaharrean *-be* amaiera, eta aipaturiko kasuan *-pe* aldagarría, erdarazko ‘suelo’ zentzuan agertzen da, baita orain euskaraz hitz egiten ez den Pirineoetako zenbait lekutan ere, ikus ene *En torno a la toponimia vasca y circpirenaica*, Bilbao 1986. Horretara formazioan *baso + -pe* dugu, ‘suelo de zona no cultivada’. Egungo egunean ere Lekeitio-n erdarazko ‘en el suelo’ adierazteko *beién ganiān* esaten da, hau da, ‘encima del suelo’, Arratian *turreán*. Pasai San Juanen *itxáspià, < itsaspea*, erabiltzen dute erdarazko ‘marisma’ adierazteko, hau da, ‘suelo de mar’; hala bildu nuen 1976-garren urteko maizteean Manuel Alvar-ek eskaturik egin nituen galderetan *Atlas lingüístico de los marineros peninsulares delakorako*. Azkue-k *basape bota* ‘echar al desprecio’ jasotzen du hiztegian, seguru asko esaera horren oinarrian hitz berbera dagoela.

**Injurune fisikoa:
lehorreko eta itsasoko orografía**

Eztarria (Arin: *Eztarriko saria*, 1792; *Eztarriko saria, Maumendiko eztarrie*, 1688; *Marumendiko eztarri, Salbiko eztarrie*), **Zintzurrira** (Baztanen)

Soila (Nafarroan eta Arantzazu-n), **Baso soila** (Eibarren)

Trokartea (oronimoa bakarrik)

Altxubidea (*altxu*, ‘rebaño’, Ekiadean)

Troka, Arroa (Azkenengo hau J. L. Lizundia-1987-II-6-an egin zidan kartan dioenez “Diputazioak Durango-ko batekin egindako eskrituran agertzen” da, “Monte llamado *Iurrenaga-emeticoa*”, “... desde *Iurrenaga-arro a Arandia*”, hau da, ‘barranco de Iurrenaga’. Aita Villasante-k Arantzazu-kotzat ere bidali du), **Sakana** (Nafarroan)

Errekarroa

Lur laua

Ordeka, Ordokia, Gainzabala

Lautada

Zabala

Harridi (Nafarroan)

Lur aldapatsua, Lur erripatsua, Maldia,

Aldasgora

Hegia

Aldapa, Aldatsa, Maldia, Patarra

Berezko husguneak

Harmaila (Nafarroan)

Leizea

Koba, Kobazuloa, Harpea, Leizezuloa

Harpea, Lehorpea

Ezkuepa (‘haizeen babespea’ Nafarroan. Seguru asko hitz konposatua da *ezkutu* eta -*be*(*he*) dituelo oinarrian)

Itsas eta kostaldeko gain-sakonak

Irla / Isla

Kostaldea, Itsasdegia, Itsasertza

Muturrak eta Puntak (Pasai San Pedro eta Getarian *muturra*, ‘punta, cabo pequeño’)

Berezko portua

Hondartzia, Hondarria

Kantila (Ondarroa *kantillè*, Lekeitio, Pasaia eta Getaria *kantillà*)

Labarra

Aremuna (Kutwig-ek dioenez Plentzian, baita *las artikulua* daramala erdaraz ere)

Haitza, Arroka

Areatza

Isurigunea

**Medio físico:
orografía terrestre y marítima**

Garganta

Raso

Cañada

Cañada, camino de pastores

Barranco

Barranco con regato

Terreno plano

Plano, altiplano

Llanura

Llana

Pedregal

Terreno pendiente

Ladera, línea de los montes

Cuesta

Cavidades naturales

Roca estratificada

Sima

Cueva

Abrigo de roca, etc.

Lugar abrigado

Relieve litoral y marino

Isla

Costa

Cabos y puntas

Puerto natural

Playa

Acantilado

Pared cortada a tajo, tierra costanera

Duna

Escollo, arrecife

Arenal

Cuenca

Injurune fisikoa:
Hidrografía

| | |
|--|----------------------------|
| Berezko ur multzoak | Masas de agua natural |
| Ozeanoa | Océano |
| Itsasoa | Mar |
| Golkoa | Golfo |
| Badia (Bermeo <i>badi/dž]iè</i> , Lekeitio <i>bari-/dž]ià</i>) | Bahía |
| Senada (Bermeo <i>senái/dž]iè</i> , Ondarroa <i>señádi</i> , Lekeitio <i>Senádià</i>), Kala | Ensenada, cala |
| Lakua | Lago |
| Aintzira, Zingira | Laguna |
| Uharka | Estanque |
| Urtegia | Pantano, embalse |
| Itsaspea (1), Padura / Fadura / Madura (azkenengo hau ez da gehienetan itsasokoa izaten) | Marisma |
| Berezko butzua / Berezko putzua | Charco natural en la roca |
| Idoia | Balsa |
| Itsasestua | Estrecho |
| Ahoa | Bocana |
| Ur multzo artifizialak | Masas de agua artificiales |
| Patina | Cisterna |
| Butzua / Putzua | Pozo |
| Ur-biltegia | Depósito |
| Berezko ubideak | Cursos de agua natural |
| Ibaia, Itsasadarra, Errioa | Ría |
| Ibaia | Río |
| Erreka, Latsa | Arroyo |
| Uharrea, Baserreka (Baztanen) | Torrente |
| Ur-jauzia | Salto, cascada |
| Iturria | Fuente |
| Ubegia, Iturburua, Zurruxta (Baztanen) | Manantial |
| Ubide artifizialak | Cursos de agua artificial |
| Ubidea | Canal |
| Erretena | Acequia |
| Errekastoa | Regata |
| Tuberia | Tuberia, tubo |
| Estolda | Desagüe |
| Luizia, Lur jauzia (Aizarnan), Luperia (Eibar eta inguruetan) | Corrimiento de tierras |
| Eraikunza hidraulikoak, Ur lanak | Obras hidráulicas |
| Presa, Andapara , 'cauce del molino, saetín', Aldapaiak , berdin. | Presa |
| Ugat ea | Esclusa |
| Haitzak, Arrokak | Escollera |
| Isuria (J. M. ^a Satrustegi-k Nafarroako-tzat emana), Ganbarru | Vertiente |
| Isuri punta (id.) | Divisoria de aguas |
| Meandroa (2) | Meandro |

Medio fisico:
Hidrografía

| | |
|----------------------------|--|
| Masas de agua natural | |
| Océano | |
| Mar | |
| Golfo | |
| Bahía | |
| Ensenada, cala | |
| Lago | |
| Laguna | |
| Estanque | |
| Pantano, embalse | |
| Marisma | |
| Charco natural en la roca | |
| Balsa | |
| Estrecho | |
| Bocana | |
| Masas de agua artificiales | |
| Cisterna | |
| Pozo | |
| Depósito | |
| Cursos de agua natural | |
| Ría | |
| Río | |
| Arroyo | |
| Torrente | |
| Salto, cascada | |
| Fuente | |
| Manantial | |
| Cursos de agua artificial | |
| Canal | |
| Acequia | |
| Regata | |
| Tuberia, tubo | |
| Desagüe | |
| Corrimiento de tierras | |
| Obras hidráulicas | |
| Presa | |
| Esclusa | |
| Escollera | |
| Vertiente | |
| Divisoria de aguas | |
| Meandro | |

(2) **Meandroa**.— ¿Uharana? Bigarrena Nafarroakotzat emana. Formazioaren aldetik argia: *ur + haran*. Azkue-ren hiztegiak ‘ugertz’ zentzua ematen dio Arakistain aipaturik,

Ingurune fisikoa: Hidrografía

Ugertza (Bizkaiko Batzar orokorretako agirietan agertzen da eta Azkue-k ere Bizkaikotzat du. Hitz egokia da: *ur + ertz*)

Uharana / Ugarana / Ubarana
Kaia, Nasa

Leku-en izenak

Oihana, Basoa

Pagoa, Pagoak, Pagadia (singularra, plurala eta kolektiboa)

Haritz, Haritzak, Hariztia, eta aldagarriak

Artea, Arteak, Artadia

Eukaliptua, Eukaliptuak, Eukaliptadia

Pinua, Pinuak, Pinadia / Pinudia

Sastraka, Sasia (Pello Salaburu-k Baztan-gotzat emana. Azkenengo hau batez ere 'zarza' da, zentzu zabala-goan erabilirik ere)

Txara, Txaraka

Ibintzea (Satrustegi-k Nafarroarako emana)

Larrea, Pentze / Euntze (Nafarroan), **Landa**

Lur landuak

Labore lurrak
